# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2015-02-27
EGUBAKOITZA
630. ZENBAKIA
15. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM


## Euskararekiko erasoen salaketa

Biharko manifestaziora joateko dei egin dute | 2



Esaldia. | GOIENA

Hondakin organikoa ere bereiziko dute arrasatearrek | 9



Candyren gaineko proposamena mahai gainean izan beharko da martxoaren 31rako | 4



Oxirondoko aisialdigunearen inaugurazioa Bergaran | 8

# Munduko txapela etxera, leran

Itoitz Armendaritz eskoriatzarra da munduko 'musher' txapeldun berria | 26



Itoitz Armendaritz eskoriatzarra bere txakurrekin, Lukun

XABI URZELAI




ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

**Gaixotasun arraroak dituzten debagoiendarrak**

**Mireia Gabilondo aktorearekin kamerinoan**

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

## SINADURAK


**Lizuna eta akaroak** | 6
ARANTZA OTADUI


6 | **Non daude emakumeak?**
MAIDER ARREGI


**Bart gaueko ametsa** | 10
ANE GOROSABEL


19 | **Sinetsi eta egin**
JON OLIVARES


**Bilgarri hutsala** | 20
JOKIN MERINO


40 | **Carlos Urquijo**
AGURNE BARRUSO

# Bergarako Laboratorium museoan, bisitak laster

Aurrekontuan kontuan hartu dute, azpiegitura hori ekainean zabaltzeko egon dadin | 16


DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 5 | HERRIAK 8 | KIROLA 26 | KULTURA 30 | GAZTEAK 33 | ZURE IRAGARKIAK 34
ZORION AGURRAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38





# Euskararen kontrako erasoak salatuko dituzte

## Eskualdeko hainbat elkartek eta erakundek manifestaziora joateko dei egin dute

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Bihar, zapatua, 17:30ean, Donostiako Gipuzkoa plazatik abiatuko da *Oztopoen gainetik euskaraz biziko gara* leloa duen manifestazioa, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak deitutakoa.

Azkenaldian hizkuntza-politiketan Espainiarengandik eta Frantziarengandik eta Nafarroako Gobernuarengandik izandako "injerentziak" salatzea eta hainbat administraziotako arduradunek aurrera egiteko hartu duten "determinazioa" txalotzea da ekimenaren helburua.

Besteak beste, ekitaldiaren amaieran Oñatiko alkateak berba egingo du.

**Kontrako neurriak**

"Mezu bat errepikatzen ari zaigu (...) Ez zarete nor, ez zarete askeak, euskaraz bizitzeko neurriak hartzeko! Asteotan behin eta berriro, eta are indar handiagorekin, ari zaigu hori gogorarazten: estatuetako ordezkariek Uztaritzeko Herriko Etxeak euskara ofizial izendatu izana epaitegietara eramanez, Uemako hainbat udali aktak euskaraz idazteagatik helegiteak jarriz, Ipar Euskal Herriko ikastolei elkartasunezko diru laguntzak baliogabetuz, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako euskara dekretuak auzitegietara eramanez (...) Euskaraz bizitzeko nahiari erantzuteko hartzen diren erabakien zein neurrien kontrako erasoaldi gero eta bortitzagoa pairatzen ari gara; hain zuzen ere, gure nahia, gure etorkizuna, haien esku dagoela gogorarazi nahi digute, oztopoen zein ukazioaren bidez, edo euskarari berari balioa kenduz", salatu dute Kontseiluetik.



Bergarako hainbat herritar eta udal ordezkari astelehenean. | IMANOL GALLEGO

Antzerako salaketa egin zuten astelehenean Bergaran, mozio eta agerraldi bitartez.

Mozioari dagokionez, Bergarako udalbatzarra osatzen duten EH Bildu, EAJ eta PSE-EE alderdietako ordezkariek. onartu zuten, besteak beste, "euskararen bidea beste eragile eta instituzioekin elkarlanean garatzeko konpromisoa" adierazi zuten Eta "udalerri euskaldunek, euskararen arnasguneak indartzeko politika eraginkorrak abian jartzen ahaleginduko direla eta Espainiako Gobernuaren ordezkariaren figura eta lana bertan behera uzteko" eskatu zuten. Horren aurretik, berriz, hainbat herritarrek eta udal ordezkarik kale bilkura egin zuten, mozio horri babesa erakusteko: "Egunerokoan euskaraz bizi nahi dugulako eta hemendik aurrera horrela jarraitu nahi dugulako", adierazi zuen Maren Belastegik, Uemako lehendakariak.

**Autobusak, eskualdetik**

Debagoienetik autobusak antolatu dituzte Donostiara joateko. Arrasateko euskalgintzak, Aretxabaletako Loramendi elkartearekin batera antolatutako autobusa 15:45ean irtengo da Aretxabaletako Azbetik eta 16:00etan Arrasateko Garibai geltokitik. Oñatin, berriz, 15:30ean aterako da Correos paretik; eta Bergaran, 16:00etan, autobus geltokitik.


PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GURE IKASLEEN AHOTAN





"Ikasteko metodologia oso eraginkorra da"

**ENERITZ SALCEDA** Lehen Hezkuntza graduko Atzerriko Hizkuntzaren ibilbideko 2. maila ikasten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, HUHEZIn.

**Zergatik aukeratu zenuen Lehen Hezkuntza Gradua? Eta zergatik MONDRAGON UNIBERTSITATEAn?**

Egia esan, betidanik izan dut argi etorkizunean irakasle izan nahi nuela, uste baitut irakasleek oso paper garrantzitsua jokatzen dutela gure gizartean eta beraien eginbeharra ezinbestekoa dela pertsonen garapen integrala bermatzeko. Gainera, argi neukan nire ikasketak MUn egingo nituela, *feedback* oso positiboak irakurri nituen-eta beraien metodologiaren inguruan.

**Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Orain arteko esperientzia hitz batean aberasgarri bezala definituko nuke. Askotariko errealitate eta pentsaerak ezagutzeko aukera izan dut, pertsona eta ikasle bezala garatzen lagundu didatenak.

**Nola definituko zenuke zure Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?, alde praktikoari garrantzi handia ematen zaio?**

HUHEZIko metodologia, oso eraginkorra dela pentsatzen dut. Teoria eta praktika uztartzen dute, eta, modu horretan saioak eramangarriagoak egiten dira. Talde lanek, eztabaidek, hitzaldiek, esperientziek... leku handia dute HUHEZIren metodologian eta dinamika hauek asko errazten dute ikaskuntza.

**MUtik zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko?**

Alde batetik, gehien gustatzen zaidana, irakasleen gertutasuna da. Talde txikiak izateak, irakasleen eta ikasleen harremana hobea izatea ahalbidetzen du. Honez gain, euskaldun giroa ere azpimarratzekoa da, garrantzi handia ematen diete-eta euskarari eta euskal kulturari. Bestetik, bizimodu unibertsitarioa faltan igartzen dut. Esparru akademikotik aparte, unibertsitate osoaren inplikazioa eskatzen duen ekintza edo jaialdi gehiago.

WWW.MONDRAGON.EDU


**OSKAR ELIZBURU** | ARRASATEKO EUSKALGINTZA

## "Askok uste dute gaur egun nahi duenak euskaraz egiten duela, eta ez da horrela"

**U.M.** | ARRASATE



UBANE MADERA

Oskar Elizburu da Debagoieneko AEK-ko arduraduna. Dio euskararen kontrako esku-hartzeek hizkuntzaren normalizazioari kalte nabarmena egiten diotela:

**Erasoa ikusten duzue zuek ere?**

Euskalgintzatik, euskaltzaleek eta hainbat erakundek euskararen normalizaziorako hartutako erabakiak lorpena direnean –normalizazioaren bidean asko laguntzen dutenak; udal batek euskaraz funtzionatzea...–, beti oztopoak jartzen dituzte, eta askotan kanpotik datoz. Adibidez, Uztaritzeko Udalean gehiengoz onartu dute euskara ofiziala izatea eta epaia etorri zaie ezinezkoa dela esanez, eta hemen Uemako udalen kasua dugu adibide, aktekin gertatutakoa.

**Eta kasu horretan, udalen inplikazioa ezinbestekoa dela diozue.**

Biztanleek benetan euskara erabiltzeko aukera izateko, ikusi behar dute administrazioak horri garrantzia ematen diola eta horren alde egiten duela. Horrela dago euskaraz bizi izateko benetako aukera. Hor hasten da jendea udalekin harremanak euskaraz izaten... euskararen erabilera biderkatu egiten da. Normalizazioari ateak zabaltzen zaizkio.

**Nahiko inplikatuta daude?**

Administrazio bakoitzak gehiengoen arabera erabakitzen du. Batzuetan erabaki onak eta lagungarriak hartu dituzte eta beste batzuetan oraindik hartzeko daude oinarrizko erabakiak. Baina gure hizkuntzak ofiziala izan behar badu, baliagarria izan behar du, eta, kasu horretan, argi dago administrazioek bideak jarri behar dituztela.

**Bestela, euskara erakusteko egindako lan guztia...**

Alferrik da. Eskolan jendea euskalduntzen dabil, eta euskaraz arlo guztietan bizi izateko aukera zabaltzen dabil. Euskaltegietan... ahalegina egin da. Baina gero ez bada erabiliko, horrek guztiak ez du zentzurik. Errealitatean plasmatu egin behar da.

**Uste duzu, zelanbait, erlaxatu egin garela euskarari dagokionez?**

Askok uste dute normalizatuta dagoela eta nahi duenak euskaraz egiten duela. Ez da horrela. Eta zerbait lortzen den bakoitzean, gainera, oztopoak daude. Horren aurrean, jendea uxatu egiten da. Eta kontzientzia hartu behar dugu normalizatzeko denon beharra dagoela.

# Emakumeek ikasketa teknikoetarako duten baliagarritasuna, agerian

## Lanbide Heziketan andreek beharko luketen presentzia azaldu dute

**UBANE MADERA** | BERGARA

Emakumeek, Lanbide Heziketan ere, oro har, hezkuntza, zaintza eta osasun alorretatik jotzen dute, eta ez espezialitate teknikoetarako gaitasunik ez dutelako. Gizarteak, tradizioz, andreekin lotu dituen rolak dira arrazoi. Hala azaldu zuen Emakundeko zuzendari Izaskun Landaidak Bergarako Miguel Altuna institutuan.

Baina gehiago ere badago, Lanbideko Lan Aktibaziorako zuzendari Gotzone Sagarduiren esanetan. Ez du uste emakumeek euren borondatez muzin egiten diotenik lan aukera seguruagoari eta baldintza hobeei. Diskriminazioarekin arrazoitzen du enpresaburu gizonezkoen mentalitatea aldatzea oso zaila ari dela izaten, eta, horrekin batera, adibidez familiaren edo irakasleen eragina aitortu. Errealitate hori aldatzeko denen inplikazioa behar dela, horretan bat datoz Jaurlaritza, Lanbide, Emakunde eta Confebask, eta nork bere esparruan badihardue-la gaineratu zuten.

Hain justu, Bergarako Miguel Altuna Institutuak *Lanbide teknikoa da nire aukera* izenburupean emakumeak Lanbide Heziketara gerturatzeko oraingo astean egindako jardunaldietan egindako adierazpen batzuk dira horiek.



Erakundeetako ordezkariak, hasiera ekitaldian . | MAIALEN TORRES

### Jendea behar da

Jardunaldiotan izan direnen artean, Confebaskeko zuzendari nagusi Eduardo Aretxagaren arabera, Euskadi aspaldiko hazkunde aukera handienaren aurrean dago, industriaren eskutik. Eta datu hori Lanbide Heziketarekin lotuz, euskal industriako egungo lanpostuen %71rako Lanbide Heziketa ikasketak behar dira, eta 2020rako %76tik gora izango da kopuru hori, Jorge Arevalo Lanbide Heziketarako sailburuordeak esan zuenez. Eta diote ez dagoela nahiko jende: hamar urte barru 160.000 pertsona ordezkatu beharko dira, erretiroagatik. Eta hemengo enpresak lehiakor izan daitezen behar da jende prestatua.

### Apustu segurua

Kasu horretan, Lanbide Heziketak ematen du prestakuntza hori, eta lanpostua eta soldata ona izateko, esan zuten etorkizuneko apustu segurua direla ikasketa teknikoak. Baina, emakumeei dagokienez, Lanbide Heziketa egiten dabiltzan %9 bakarrik ari dira elektronikan, elektrizitatean, mekanikan, automozioan eta halako ikasketetan. Eta azpimarratu zuten hori aldatu beharra dagoela, 4.0 industrian inteligentzia beharko delako gaitasun fisikoa baino gehiago.

Jardunaldiak martitzenean hasi eta atzo (eguena) bukatu ziren; eta iraun duten hiru egunetan, besteak beste, Elay, Soraluze, Fagor Ederlan eta Ulma Packaging enpresetako ordezkariek ere parte hartu dute.

# Domekan autobus linea berriak abian

## Oñatirako, Antzuolarako, Elgetarako eta Leintz Gatzagarako dira berritasun nagusiak

**J.D. / U.M.** | DEBAGOIENA

Oraingo domekatik aurrera, Lurraldebusen hamalau linea egongo dira martxan Debagoienean, hamar linea arruntak izango dira, bi eskaripekoak eta beste bi gauekoak. Bestalde, eskualdeko herriak lotuko dituen bi linea zirkular egongo dira; Debagoieneko herriak Legazpirekin eta Zumarragarekin ere lotuko ditu autobus zerbitzu berriak.

Eta Debagoieneko herrien arteko loturaz gainera, Eibarrekin, hiriburuekin eta Loiuko aireportuarekin konexioak zaindu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Horren berri eman zuen eguaztenean Larraitz Ugartek, Mugikortasun diputatuak, Arrasaten, prentsaurrekoan. Hark esandako moduan, "azken urte eta erdian garatutako parte-hartze prozesuaren ondorio" da hori guztia.

### Elorregiko geltokia ere bai

Ugartek jakinarazi zuen, baita ere, Elorregiko autobus geltokiak ere izango duela estreinaldia etzi, eta azaldu zuen eskaripeko zerbitzua izango den arren, horretarako makina jarri bitartean, autobus guztiak geratuko direla bertan. Eta hasieran herrien arteko loturak egiteko erabiliko den arren, epe luzera begira, hiriburuetara joateko geltoki bezala dagoela pentsatuta.

Eskaripeko gainontzeko ibilbideak honako hauek izango dira: Bergara eta Elgeta artekoa eta Leintz Gatzagaren eta Arrasateko ospitalearen artekoa.

**DATUA**

**14**

LINEA

**Hamar linea arrunt, bi eskaripeko eta beste bi gaueko linea izango dira.**

# EAJren ustez, Bilduren Deskargako kudeaketa "kaos eta gezur handia" da

**U.M.** | DEBAGOIENA

"Informazioa ezkutatu die, bai langileei, bai Batzar Nagusiei, izan ere, ez da gai izan kudeatzeko legealdi osoan egin behar izan duen obra handi bakarra", leporatu zion atzo, eguena, Eider Mendoza batzarkide jeltzaleak Larraitz Ugarte Mugikortasun diputatuari, Deskargako obrak geratu izanaren erabakiaren harira. "Bilduren kudeaketak Deskargan erakusten du nola ez den egin behar obra publiko bat", gaineratu zuen prentsaurrekoan.

### Gobernua, Ugarteren "morroi"

Era berean, EAJren batzarkideak honako hau esan zuen: "Kudeaketa ilun horren arrazoia segidakoa da: Larraitz Ugarte eta Bilduren aginteko foru gobernua bere hitzen morroi dira. Denborak arrazoia eman dio EAJri: Gipuzkoako orografia zaila da eta, orain, Larraitz Ugartek ezin du arrazoi hori onartu, izan ere, hori izan da egiten ari den obraren gainkostuen eta aldaketen arrazoi nagusia".

Besteak beste, Mendozak adierazi zuen jakinekoa dela Deskargako obrak %10 baino gehiagoko gain-kostua izango duela. Izan ere, 2014ko azaroan, esaten zenaren arabera, gain-kostua gutxi gorabehera %25 zen eta, egun, handiagoa izan daiteke, Mendozaren arabera. Eta esan zuen horrek ondorioak dituela bai Aldundiaren diru-kutxan, eta baita kaleratuak izan diren 150 langileengan ere.



Eider Mendoza batzarkide jeltzalea, atzo, prentsaurrekoan. | EAJ-PNV.


Angel Oiarbide. | GURE ESKU DAGO

# Erabakitzeko eskubidea aldarrikatu du Oiarbidek

**KOMUNITATEA GOIENA**
GURE ESKU DAGO | ARRASATE

Eguaztenean, Garaiako Berrikuntza Guneko Auditoriumean Angel Oiarbide izan genuen hizlari, Gure Esku Dago (GED) ekimeneko nondik norakoak eta erronkak azaltzen. GEDk Mondragon Unibertsitateari eta bertaratutakoei eskerrak emanez hasi zen ekitaldia. Angelek GEDren jatorriarekin hasi zuen saioa, Idiazabalen hasitako ekimen txikiaren, hau da, Nazioen Mundua ekimenaren berri ematen duen *Gazta zati bat* dokumentala Irlandaraino heldu izanaren erronka gogoratuz.

Irlanda bera ekarri zuen gogora behin eta berriz, demokraziaren eta ideologia ezberdinen arteko elkar ulertuaren adibide. Bertan, normaltasunez eta Erresuma Batuko legeen gainetik, are gehiago, arrazoi identitarioen gainetik eta autogobernu baldintza paregabean egonik ere, herri batek bere etorkizunaz erabakitzea normaltasunez ikusi delarik.

Politikariak eta legeak aurka izatea ez direla aitzakia esan zuen Oiartzabalek, elkarren artean ulertuko ezin garen ustea, pasibotasuna edo erabakitzeko eskubidea beste kontzeptu batzuekin nahastea direla benetako trabak eta landu beharreko erronkak. Izan ere, politikariak eta legeak gizartearen zerbitzurako instrumentuak direla gogoratu zuen, adibide garbiak jarrita.

### Elorregiko geltokia ere bai

Horregatik, gizartean erabakitzeko eskubidea normaltasunez ikusten denean eta kontzientzia pizten denean, politikak bere lana egingo duelakoan dago.

Era berean, GEDren helburua independentzia ez dela argi utzi zuen, erabakitzeko eskubidea gauzatuko duen agertoki hori baizik, hainbat helburu politikoren artean normaltasunez aukeratzeko baldintzetara heltzea. Horretarako, herritarren kontzientziak aktibatzea eta klixe eta aurreiritzi asko kenduz, erabakitzeko eskubide kontzeptua lokatzetatik atera eta garbitzea du helburu Gure Esku Dagok.

# Akordioetara iristeko eskua luzatu dio EAJk Bilduri

**U.M.** | DEBAGOIENA

"Inazio Azkarragaurizarrek ez du bailarako oposizioko zinegotzien parte-hartzerik sustatu lau urte hauetan Debagoiena Mankomunitatean"; halaxe erantzun dio Juan Karlos Garitanok, Arrasateko EAJko bozeramaileak, Inazio Azkarragaurizarri, Mankomunitateko lehendakariari, erakunde horren estatutuen aldaketaren harira joan den astean hark egindako adierazpenei.

**Elkarlanik ez**

Garitanok adierazi du "Mankomunitateko lehendakaritzan EAJko ordezkaria zegoenean, ezker abertzaleko zinegotziak, oposizioan egon arren, gonbidatuak" izaten zirela batzarretara, eta orain, aldiz, "Bilduk gardentasunik eta parte-hartzerik gabe" jokatzen duela. Eta, oro har, "gainontzeko alderdiekin elkarlanean aritzeko borondate falta" egotzi dio Mankomunitateko gobernuari, salatuz "ezker abertzalearen jokabide inposatzailea gailendu" egin dela.

Bukatzeko, baina, "akordioetara iristeko" eskua luzatu dio Arrasateko EAJk Mankomunitatearen gobernuaren ardura duen Bilduri, "Arrasaten atez atekoaren inposizioa ekiditeko egin zuten bezala", eta azpimarratu du "borondatea" besterik ez dela behar horretarako.

**Agurne Barruso** | Gipuzkoako diputatu nagusiaren kabinete-burua

# "Aurrera egiteko aukera egongo dela uste dugulako sartu gara honetan"

- Candyren berrindustrializazio prozesuan "baikorrak" dira
- Martxoaren 31rako proiektu bat mahai gainean jarri beharko dute

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Joan den egubakoitzean sinatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak, Candy Taldeak eta bertako enpresa batzordea osatzen duten sindikatu guztiek Bergarako lantegiaren berrindustrializazioa helburu duen hitzarmena. Horren arabera, inbertitzaile batek proiektu industrial berri bat martxan jartzeko aukera izango da egun Candyren lantegia dagoena lekuan bertan. Gainera, Candyko 76 langile prest agertu dira ibilbide berri horri ekiteko.



Agurne Barruso, Goienaren egoitzan. | UBANE MADERA

**Badago inbertitzaile berririk?**

Ezinbestekoa zen ostiralean sinatutako hitzarmena sinatzea hurrengo urratsak egiteko. Berez, Foru Aldundiak hartu du bere gain proiektu berri hori bilatzeko ardura. Ostiralean hitzarmena sinatu bezain laster hasi ginen zeregin horretan eta hitzarmenak jasotzen duena da martxoaren 31ra arteko epea dugula balizko inbertitzaile batekin aurre-akordioa sinatzeko. Orain datorrena da inbertitzaile hori bilatzea akordio horretan jasotako baldintzekin.

**Baikorrak zarete?**

Bai. Baina ez dugu espektatiba faltsurik sortu nahi, eta behin eta berriro esan diegu langileei ez dela eginkizun erraza. Candyn berrindustrializazio prozesua egin dugu denboraren kontra. Ezagutu ditugun esperientziak dira askoz prozesu pausatuagoak; hemen azken momentuan iritsi ginen proposamena mahai gainean jartzera eta horrek berorrek ere zaildu egiten du; beraz, espektatiba faltsurik sortzerik ez dugu nahi, askoren lanpostua dagoelako jokoan. Baina honetan sartu bagara da uste dugulako aurrera egiteko aukera egongo dela.

**Zergatik martxoaren 31 aurretik?**

Enpresari eta enpresa batzordeari egin genionean berrindustrializazio prozesuan sartzeko planteamendua, kronograma aurkeztu genuen; horren arabera, martxoaren 31rako konprometitu ginen proiektu bat, gutxienez, mahai gainean jartzera. Luzatu egin dira epeak, baina hasierako planteamenduaren arabera dator martxoaren 31koa; eta zerikusia du enpresa bera prest zegoelako apirilera arte jarduera bat mantentzeko gaur egungo Candyn garbigailuak egiten, eta zenbait langileren langabezia epe horretan hasten delako bukatzen. Zelanbait, egoerak eraman gintuen data horretara.

**76 langile ados daude bide berriari ekiteko; zein baldintzatan?**

Dakiguna da langileek gaur egun dituzten lan-baldintzak zeintzuk diren, eta horiek eramango ditugu proiektu berri bila irteterakoan. Seguru aski, gero, inbertitzaile berriarekin, hainbat gauza berriro negoziatu egin beharko dira; baina guretzat bada marra gorri bat guztiendako lana egotea, baldintza duinetan. Hitzarmenean bertan jasotzen da bai Candyk eta baita langileek ere badutela proiektu berriarekiko beto eskubidea, baldin eta ez baditu lan-baldintza duinak betetzen edo Candyren aldetik bere konpetentzia den proiektu bat ekarriko bagenu.

**Aldundia hasieratik inplikatu da Candyren kasuan; zergatik egin da ahalegin hori Candyren kasuan eta ez, adibidez, Cegasaren kasuan?**

Aldundia beti joan da horrelako itxiera bat izan den enpresetara. Neu Grumalen egon nintzen, han beste irtenbide bat hartu zuten… Candyren kasuan hasi ginen adituei galdetzen Candyk Bergarako planta itxiko zuela bueltarik ez zuen erabaki bat zelako. Adituek planteatu ziguten bazegoela Europan jardun normal bat: berrindustrializazioarena. Esperientzia pilotu moduan oso interesgarria iruditu zitzaigun Candyn martxan jartzea. Eta zergatik Candyn? Ba, adituek momentu hartan planteatu zigutelako, bost sindikatuek baiezkoa eman zutelako, enpresak baiezkoa eman zuelako eta aukera ikusi genuelako. Baina guretzat abiapuntu da Candyren prozesua gerora hedatzeko.

**Elkarrizketa osoa:** www.goiena.eus

SANJUANETAN GREZIARA



1.287 €
tasak barne

Greziara zirkuitu ikusgarria Arrasatetik

Ekainaren 21etik 28ra

Bidaiak barne hartzen ditu:
- Autobusa Arrasatetik Loiuraino eta Loiutik Arrasateraino
- Linea erregularreko hegaldiak Bilbotik
- Bisita osoak gidari ofizial espezializatuarekin eta monumentuetara sarrerak
- Mantenu osoa urarekin
- Lau izarreko hotelak erdigunean
- Greziako kulturaren gaineko hizketaldia soziologo greko batekin
- Halcon Bidaien konpainiarekin Arrasatetik
- Aireportu-tasak

Atenas, Olinpia, Delfos, Meterora/Kalambaka eta egun bateko itsas bidaia Poros, Hydra eta Aegina uharteen inguruan….
Magia heleniarra bete-betean Halcon Bidaien eskutik

Halconbidaiak.com

Informazioa eskatu, leku mugatuak!

943 79 29 88

Olarte 14, behea • Arrasate

## Candyren gaineko mozioa, onartuta

2014ko azaroan Bergarako udalbatzak onartutako mozioari azken paragrafoa kentzea eskatzeko mozioa aurkeztu zuen Candyko enpresa batzordeak astelehenean Bergaran; eta udalbatzak aho batez onartu zuen eskaera. Hori bai, EAJk eta PSE-EEk azpimarratu zuten onespena eman ziotela langileek eskatu zietelako hala egitea. Laburbilduz, kendutako paragrafoak zioen Bergarako Udalak ez duela Candyren jabetzako lurrik birkalifikatuko alde sozialaren, hau da, langileen adostasunik gabe. "Arazo administratiboak dituzte, nonbait, eta, horiek ekiditeko, eskaera hori egin zuten. Langileek aurkeztu dutenez, guk onartu egin dugu", azaldu zuen Jaione Isazelaia alkateak.

Aintzane Oiarbide jeltzaleak honako ñabardura hauek egin zituen: "Esan dugu ez dugula lursail hori birkalifikatuko. Arriskua, gainera, langileena da, eta laguntza beharko dute. Beste alde batetik, ez dugu oztoporik jarriko proiektuek aurrera egiteko; hori bai, proiektua sendoa izatea gura dugu, bideragarria eta etorkizuna izango duena".

Alderdi sozialistako zinegotzi Mari Carmen Barrenetxeak, berriz, zera azpimarratu zuen: "Candyren prozesuari buruz hainbat zalantza ditugu. Baina langileek gure aldeko botoa izango dute, boto horrek herriaren berrindustrializazioa babesten eta balioan jartzen badu eta deslokalizazioa eta lanpostuen galera ekiditen baditu".



Ubiria eta Unamuntzaga, Arrasaten, Kulturaten, Goienako kazetari Jon Berezibarren galderei erantzuten. | MAIALEN TORRES

# "Erabakitzeko eskubidea praktikan jarriz" egin gura du bidea EH Bilduk

## EH Bilduko ordezkari eta Amaiurko senatari bana Arrasaten izan ziren

**MAIALEN TORRES** | ARRASATE

"Garai batean, uste genuen nazioartetik edo estatuetatik burujabetzaren aitortza etorriko zitzaigula, baina orain dioguna da, erabakiz erabaki, erabakitzeko ahalmena berreskuratu behar dugula", esan zuen Maite Ubiriak, EH Bilduko nazioarteko arduradunak; eta gaineratu zuen horretarako "herritargo aktibo bat" ezinbestekoa dela, baita herritarrek "euren buruaren jabe izateko urratsak egitea" ere. Eta, hain zuzen, urrats horiek elkarrekin emateko asmoarekin elkartu ziren herenegun (eguaztena) herritarrekin Maite Ubiria eta Amaiurko senatari Alberto Unamuntzaga, Arrasaten, Kulturateko areto nagusian. Hain justu, *Euskal bidea* egitasmoaren berri emateko baliatu zuten saioa.

### Hitza ematea

Horren harira, euskal herritar guztien eskubide sozial, kultural eta ekonomikoak bermatzeko helburuz, "herritarrei hitza eta erabakia ematea" oinarri duen egitasmoa dela azaldu zuten. EH Bilduren ustez, helburu horiek lortzeko aukerarik onena euskal estatua da, "lurralde guztiak bateratzen dituen euskal errepublika da proposatzen duguna", baieztatu zuen Unamuntzagak.

### Aldaketen garaia

Proposamenaren testuinguruua "Euskal Herrian zein kanpoan gertatzen ari diren aldaketen garaia" dela esan dute. Batetik, azaldu dute Euskal Herriari eragiten dioten marko administratiboetan agorpen zantzuak ikusten dituztela. "Nafarroan erregimena erortzear dago, EAEn denok ikusten dugu gehiengo zabal batek erabakitzeko ahalmena jasoko duen estatus berri bat eskatzen duela eta ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetan, lehen aldiz, aukera bat zabaltzen da behin -behineko erakundetze prozesu bati ekiteko", dio Ubiriak.

Bestetik, nazioartera begira jarrita ere, uste dute euren proposamena garai egokian datorrela, Ubiriaren esanetan, burujabetzaren eztabaida Europako agenda politikoan kokatu delako, eta aldaketa sozialerako "haize berriak" datozelako, besteak beste, Greziatik.

> "Erabakitzeko ahalmena berreskuratu egin behar da"

> "Euskal errepublika da proposatzen duguna"

### Abiapuntua

Argi dute, ordea, auren proposamena abiapuntua baino ez dela, eta herritarren ekarpenen bidez eraikiko dutela jarraitu beharreko bidea. "Herritarrek erabakitzen dutenarekin bat egingo dugu" ziurtatu du Unamuntzagak, eta salatu du Euskal Herrian "demokrazia falta" dagoela.

### Galderei erantzuna

Hori guztia esplikatu zuten Goienako kazetari Jon Berezibarren galderei erantzuten; horren ostean, herritarrek aukera izan zuten kafe baten bueltan Maite Ubiriak eta Alberto Unamuntzagak esandakoa eztabaidatzeko eta ideiak trukatzeko.

Kafearen ostean, berriz, herritarren galderen tartea iritsi zen, eta, besteak beste, jakin nahi izan zuten balizko independentzia egoera batean euskal estatua nola artikulatuko litzatekeen, baita arlo sozialean zein ildo jarraituko liratekeen ere.


ENEKO AZKARATE

# Lur-jausia TTTren biltokian

Eguaztenean, 07:00 aldera, euriteak eragindako lur-jausia egon zen Bergarako TTT enpresaren atzealdean, pabilioi berria eraikitzeko asmoa duten inguruan. 100 tona harkaitz jausi zen eta biltokian sartu zen harkaitza eta harria. Batik bat, biltokian zuten materiala kaltetu da; instalazioetan ez da kalterik izan. Imanol Larrañaga gerenteak dioenez, proiektu berria egin beharko dute.

# Bederatzi gaztek jaso dute Gomiztegiko artzain makila

## Ikasturte amaierako ekitaldian, bestalde, Ramon Ugarte eta Josu Ogitza omendu zituzten

**LARRAITZ ZEBERIO** | OÑATI

Bederatzi gaztek jaso dute Gomiztegiko artzain eskolako makila. Egubakoitzean egin zuten ikastaro amaierako ekitaldia. Iban Aramendi, Xabier Azurmendi, Julen Biain, Ariel Dominguez, Antton Iturriaga, Gaizka Lopez, Julen Osaka, David Oskotz eta Gema Serra dira artzain gazte berriak. Sei Euskal Autonomia Erkidegokoak dira, bi Nafarroakoak eta bat Aragoikoa.

Gazteak izan ziren ekitaldi horretako protagonistak, baina baita omenaldia jaso zuten Ramon Ugarte Azkarreta artzaina eta Eroskiko langile Josu Ogitza ere.

Artzain eskolaren 18. prestakuntza saioa izan da honako hau. Urteotan 232 ikasle pasa dira Gomiztegitik.


Makila jaso duten artzain berriak. | LARRAITZ ZEBERIO

# Hitzaldi informatiboak egingo ditu Ordainduk martitzenean

Martxoaren 3an eta 4an, hitzaldi informatiboak egingo ditu Ordaindu elkarteak Kulturaten (10:00-13:00 eta 17:30etik aurrera). Martxoaren 3an sartu ezinda jendea geratzen bada, hilaren 4an berriz egingo dituzte, bestela ez. Esku artean dituzten gaiak azalduko dituzte eta jendearen iritziak batuko dituzte.

### Bilduri kritika

Bestalde, bailarako udaletan mozioak aurkezten dabiltza. Bergarako Osoko Bilkura egin eta "ordu erdi lehenago", mozioa gaien artean ez zela sartuko esan ziotela salatzen du Ordainduk, eta honakoa gaineratzen du: "Orain dela 15 egun eman genion sarrera mozioari, eta gaur [astelehena] debatituko zela esan ziguten. Udalaren gehiengoaren eta hura sustengatzen duen alderdiaren (Bildu) jokaera hori kritikagarria dela iruditzen zaigu".

## ZABALIK



**ARANTZA OTADUI**
goiena.eus/komunitatea/

# Lizuna eta akaroak

Batzuetan, nire inguruko inork ulertzen ez nauela dirudi, baina paper zaharren artean ibiltzea eta aurreko belaunaldien sekretutxoak ezagutzea gogoko dut. Eta, horregatik, iluntzean, paper zahar horiei heldu eta, detektibeak bezala, arrastoak bilatzen ditut kontsultatu beharreko hurrengo dokumentua non aurkitu daitekeen argitzeko.

Metodologia horri esker nire ikerketa historikoek aurre egiten dute, poliki, baina etengabe. Eta, bitartean, burua trebatzen dut, paleografia zientziari esker XV eta XX. mendeen arteko testuak transkribatzen ditudanean.

Letra korapilatsu eta bihurri horiek irakurtzeagatik dagoeneko desberdintzen ditut Juan Gonzalez de Salcedo eskribauak idatzitako testuak Lucas de Elorduik idatzitakoetatik. Badakit non eta noiz gertatu ziren –Debagoiena eszenatoki izan zuten– armaden arteko bataila odoltsuenak. Kontatu dezaket zein erakinetan erabili zen San Antolin harrobiko harria eta zeinetan Galarrakoa. Eta kokatu ditzaket Mugaibe eta Ubola toponimoak egungo Arrasateko edo Bergarako mapan.

**"Nahiago dut eskualdeko sekretu horiek zuekin partekatu"**

Gure historiarekiko jakin-min horrek artxibo pribatu eta publikoak kontsultatzera eraman nau, Euskal Herrian eta, baita, Europan, Amerikan eta Asian ere. Eta, hori guztia, mezenas bat aurkitu arte, autofinantzatzen dut, bisitariei kalitatezko edukia eskaintzeko, Iraganeko Oinatzak Elkartearentzat Arrasaten eta Bergaran burutzen ditudan bisita gidatuetan.

Baina, badakizue, sekretuak isilpean gordetzea konplikatua izaten da batzuetan eta nik nahiago dut gure eskualdeko sekretu horiek zuekin partekatu. Beraz, animatzen zaituztet nirekin edo Iraganeko Oinatzak Jakintza eta Zientzia Elkarteko beste taldekideekin, Bergara, Arrasate edo eskualdeko beste herriak ezagutzera. Eta bisita gidatua amaitzean, argi daukat lagunekin elkartzen zaretenean gauza interesgarri pila izango dituzuela kontatzeko.

## USTEAK USTE

**MAIDER ARREGI** | marregi@goiena.eus

# Non daude emakumeak?

Asteak pasa dira Greziako hauteskundeak Syriza Ezker Erradikaleko Koalizioak hauteskundeak irabazi zituenetik. Alexis Tsiprasek lehen ministro karguaren zina egin ondoren, Greziako Gobernu berriaren osaketari buruzko xehetasunak jakinarazi zituzten. Halaxe jakin genuen hamar ministrok osatuko dutela Gobernu berria. Baina hamarrak gizonezkoak direla ohartu al da inor? Oso zaila egin zait komunikabideetan horren gaineko erreferentziarik bilatzea. Bizi dugun garaian ezker *erradikaleko* koalizio batean emakumerik ez egoteak zer pentsatu eragiten dit. Beste behin, Europak badauka zer ikasi Afrika zein Hego Amerikako gobernuengandik.

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | goiena.eus/komunitatea/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Oilarra

**Garbiñe Ubeda**
http://goo.gl/JivI9B

*Comme les françaises sont jolies,* dio Hendaiako jantzi eta oinetako dendak, hala atariko panel erraldoian, nola plastikozko zorroetan. Zein apainak diren, genetikak edo odolak bermatzen dien ezaugarria balitz bezala.

Dotoretasuna soinean, eta *le savoir-faire* egunerokotasunean; zintzurretik irentsiko dugun generoa izan edo birziklatu ezinean auskalo non bukatuko duen zikinkeria izan, hexagonotxo gorri zuri urdina bildukian inprimatuta azalduko dute endibiek, txerrikiak, esneak, irinak, pixoihalek, kondoiek eta zernahik, han produzitu izanaren erakusgarri. Horra hor naziotasuna. Ez da sentipen loriatsua. Teknika, esperientzia, ezagutza eta jakinduriaren ikur baizik.

Min du Frantziak. Kultur erreferentzialtasuna galdu du munduan barrena, makalaldia du bere sukaldaritzak, zulatu egin zaio hezkuntza sistema, ankerki jo dituzte bere ikonoak, ez du Concorde supersonikoaren aldiko poderiorik.

Nahia eta ezina dario. Eta nostalgia, mintzaira eder eta garbiena izatearen fama zueneko garaikoa. Hizkuntzak kalitatea galdu duelako gazteen artean, ingelesak gaina hartu eta gainera men egiten diolako, prestigiorik berreskuratzen ez duelako. Hori ironia: ez al du euskaldunon amesgaiztoaren antzik?

Bakarren batek ordaindu beharko kristal hautsiak.

# Bizitzari bizkarka

**Julio Soto**
http://goo.gl/39kaYI

Oso *ekibokaturik* bizi gara, oso deskuidaturik. Ez gara jabetzen bizitza hau benetan zer den, zertan datzan; ez gara ohartzen bizitzen dugun bizitza, ez dela bizitza. Berdin ahoskatzen dela, berdin idazten, baina desberdin bizitzen dela.

Oso azalekoak gara, oso kanpora begiratzekoak. Garrantzirik ez duten gauzei garrantzi eman zaleak, eta garrantzizkoei *itsu-gor* egiten. Egunak arazo ez diren arazoez korapilatzen zaizkigu, korapilatzen ditugu. Arnasa kentzen digute, loa lapurtzen. Baina arazoak beste batzuk dira. Arnasa eta loa benetan lapurtzen dizutenak. Konponbiderik ez dutenak. Horiek dira arazoak.

Gizakiok behar ditugu eguneroko kezka txikiak, arantzatxoak. Aurrera egiteko heldulekutxoak dira. Baina puztu eta puztu egiten ditugu, zaildu eta zaildu. Eurentzat bizitzen bukatzeko.

Egunak betebeharrez betetzen ditugu. Gero eta obligazio gehiago, gero eta azkarrago, nahiago. Presaren presaz, eguzkiari begiratzeko ohitura ere galdu genuen, eguzkiari irribarre egiteko ilusioari eskua ukatu. [...]

Iraganean eta etorkizunean bizi gara. Ez gara bizi. Iraganik eta etorkizunik ez delako existitzen. Oroitzapenak baino ez. Eta eskerrak. Baina bizitza orain da, arnasaldi hau da. Urrunegi luzatzen dugu begirada, akaso ezagutuko ez ditugun egunsentietara.

Badakigu hilkorrak garela, bukatuko dela. Baina ez dakigu. Nahiago dugu hilezkortasunari aukera bat eman, nahiago dugu geure burua engainatuta bizi. Akaso gutxiago sufritzeko. Baina bizitza eta sufritzea lagun dira. Eta heriotzari bizkarka bizi denak, nekez egingo dio eguzkiari irribarre.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

## Amnesia, politikarien gaixotasun kronikoa

**Ana Bolinaga**
(Aretxabaletako Bilduko zinegotzien izenean)
Aretxabaleta

Aretxabaletako Aralarko eta EAJko zinegotziak sindrome neurologiko horren menpe daude, aretxabaletarron zorigaitzerako. Antza, politikariek gauzak ahaztu, ez dakite edota ez dute gogoratzen. Harrigarria!

Udalak Eki-Coach enpresa kontratatu ondoren kiroldegiko jardueren koordinazio lanak betetzeko, Aralarko eta EAJko zinegotziak Bilduren irudia zikindu nahian dabiltza. Eki-Coach kontratu txiki bitartez kontratatu da, 18.000 euro gehi BEZa otsailetik abendura.

Eusko Jaurlaritzak, diputazioek eta kolore guztietako udalek kontratu txikien bitartez kontrata ditzakete zerbitzu publikoak. Arruntak dira; hots, milaka kontratu txiki egiten dira. Hemen Aretxabaletako adibide gutxi batzuk:

Urkuluko Plana: 2005, 2006 eta 2007 (EAJ): Naturgintza Fundazioa, 7 kontratazio, 71.730,62 euro; 2008, 2009, 2010 eta 2011 (Aralar): Naturgintza Fundazioa, 16 kontratazio, 178.654,61 euro.

2008 eta 2009 (Aralar): Elhuyar, 17.970 euro euskara planerako eta 19.720,020 euro kultura planerako; 2004tik (EAJ) 2011ra (Aralar), Arteman, 107 kontratazio txiki.

Pandoraren kutxa zabalik dago eta zerrenda luzea da, Aralarko eta EAJko zinegotziek erakusten duten amnesia bezain luzea.

Legearen baitan kontratu txikiak herriko enpresetan lana banatzeko erabili beharko litzateke, esaten den moduan "pastela banatu", baina begi-bistakoa da eztabaida horri bizkarra ematen diotela hauek. Herritarron ezjakintasunaz baliatuz, arreta desbideratu eta eztabaida antzua sortu nahian ari dira buru-belarri. Zergatik ote?

Udalaren egoera ekonomiko latzak Ibarra kiroldegia du izena eta 14.613.929,72 euro dauka abizen (2.431.553.310,39 pezeta). Hauek dira Aralarko eta EAJko zinegotziek nahita aipatzen ez dituzten izen-abizenak (zifrak). Legealdiaren amaieran eta hauteskunde atarian, udaletxeko atetik eskutxotik helduta irten nahi dute arrozaren ordez hautsa barreiatuz eta beraien hanka-sartze politikoak Bilduri egotziz.

Kiroldegiaren auzian, eta legearen baitan, Bilduk interes pribatu eta partikularren aurrean interes publikoa lehenetsi du beti. UTEak erreskatea eskatu eta Udalak kiroldegiaren kudeaketa bere gain hartzeak azkura sorrarazten dizue. Kiroldegia ez itxi izanak, abonuaren %21eko jaitsierak eta Eki-Coach enpresaren arduradunaren lan txukunak azkura sorrarazten dizue. Udala ia erreskatatua izatetik zorra %41era jaitsi eta aurrekontuak %3,15 igo izanak hazkura sorrarazten dizue. Finean, lau urtetan ezkerrerantz biratu eta zuok utzitako herentziari buelta eman izanak ziztada ederra eman dizue! Eta horrek pika.

Amaitu aurretik, argitu nahian gaude eta zuei zuzentzen gatzaizkizue, Inaxio Garro, Jose Angel Antxia eta Olaia Sagredo: galdetu diezue aliantza honetan zuen bidelaguna den EAJri non eraikiko duten erraustegia? Gai honek asko arduratzen gaitu.

## Eskerrik asko!

**Garbiñe Santacruz**
Aramaio

Vicente Santacruzen heriotza dela eta, haren familiak eskerrak eman nahi dizkie Aretxabaletako GSRko langileei, emandako arreta eta maitasun guztiagatik.

## Kolore kontua Antzuolan

**Iñigo Ramirez de Okariz Telleria**
Antzuola

Badaukagu ohitura handia *kolore* hitza testuinguru desberdinetan erabiltzeko. Hala, bizitza beltza dela esaten dugu gertuko norbait hil delako, gaixotasun larri bat diagnostikatu digutelako edo orokorrean egoera animiko ahulean gaudelako. Orduan *beltz* kolorekoa ikusten dugu bizitza.

*Arrosa* kolorea, berriz, alderantzizko egoeretarako erabiltzen dugu: osasuntsu garenerako, zergatik ez, loteria-edo tokatu zaigulako edo, hemen ere, orokorrean garai animiko ona pasatzen ari garelako. Orduan *arrosa* kolorekoa ikusten dugu bizitza.

Ideologian ere kolore bitartez –edota koloreak erabiliz– adierazten dugu gure pentsamenduaren sinbologia: komunistek –edo iraultzaileek– gorria; anarkistek beltza; faxistek urdina; militarrek kaki kolorea…

Azkenengo hilabeteetan kolore ezberdinetako pentsaerak eta iritziak hautematen dira hedabideetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Azpiegiturako arduradunek Antzuola-Bergara autobiaren aurrean izan duten jarrera eta kudeaketa kolore grisaren inguruan, beltza ez esatearren.

Eta herritarrok, ze iritzitakoak gara? Ze kolore dute gure iritziek, jarrerek obra honen aurrean? Asteartean obra arduradunek emandako azalpen monokromo aurrean egon nintzen, eta, nola ez, jendeak bere galdera eta iritzi koloretsuak egin eta adierazi zituen, gehienak grisetik beltzera zihoazenak.

Konflikto honetan, ostera, konturatu nintzen forma aldetik ere garai bateko koloreak aldatu direla, eta oraingo herritar eta herri agintari askoren lehentasuna ez dela kalera irten –edo gure kasuan obrara irten–, pankarta bat jarri eta, zergatik ez, firmak jaso. Eta pentsatu dut: zenbat ahal duen koloreak!

## Migel Lopez Legazpi euskaldun ekintzaile eredu!

**Balen Tramon**
Arrasate

Horrela zioen, otsailaren 20ko GOIENAn, Aitor Orobengoak, arrisku-kapitalen beharra eta onurak goraipatu eta gero. Joan zaitez esatera honi, *derrigorrezko hazkundea* ez dela hain derrigorrezko…

Baina Migel Lopez Legazpikoa eredu gisa jartzea… Mexikon aberastu zen, Nueva Españan, Hernan Cortesek eta antzeko piztiek konkistatu berrian. Bere dirua inbertitu zuen gero Filipinetako inbasio espedizioan (1565). Felipe II.a Habsburgokoak konkistaren *adelantadoa* izendatu zuen. Kanoiak, mertzenarioak eta engainuetarako aproposak ziren elizgizon batzuekin beteriko itsasontzien armada-burua zen. Portugesekin eta hango nazio desberdinekin borrokan zazpi urtez jardun eta gero, diru barik hil zen, ordea (1572). Espainiar Inperioa bankarrotan zegoen eta urruti Manila. Holako proiektuak dira gure ekintzaileentzat eredu? Espezia kargamenduak Anberesen saltzen ziren Legazpiren sasoian. Inperio genozidaren irabaziak eta urrea Fugger alemaniar bankarien moduko oligarkiek eskuratu zituzten, ez miseria latz gorrienean zegoen espainiar populazioak. Ez zen erraza euskaldunentzat ere: Nafarroako konkista gerra (1512-1529) pairatu berri eta espainiar-frantses proiektu inperialista eta gerretan parte hartzera edota emigratzera kondenatuak.

Elkanoren, Garibairen, Lezoko Blasen, Okendoren, Loiolako Ignazioren, eta abarren biografiak edertu egiten dira, justifikatu, "euren garaiko" pertsonaiak direla eta. Eta ez dago "euren garaiko" testuingurua aztertzea baino hoberik, baina benetako testuingurua, ez espainiar eta frantziar historia ofizialek asmatutako epopeiak.

## Eskerrik asko, Antzuola

**Aritz Saidi Olaortua**
(A8M, antolakuntza taldea)
Antzuola

Otsailaren 22an ospatu genuen Antzuolako 8 Miliak mendi lasterketa kirol proba bat baino gehiago izan zen, beste behin ere. Eguraldi kaskarraren gainetik dozenaka lagun batu ginen, herri bezala bikain erantzunez.

Korrikalariek izugarrizko meritua erakutsi zuten eguraldia ikusirik etxean manta artean ez geratuta, baina zuek, boluntario eta ikusle izan zineten guztiok, are gehiago. Benetan txapela kentzekoa herri bezala emandako erantzuna. Guztiok helburu bakarrarekin, guztiok bat eginda. Eredugarria eta pozgarria benetan.

Horregatik, bihotzez, eskerrak eman nahi genizkizueke antolakuntza lanetan ibili garen guztion izenean, eta korrikalariengatik jasotako hainbat zorion agur zuei ere luzatu.

Zuenak ere bai baitira agurrok. Zuek gabe hau ez baitzen horrela gauzatuko. A8M zuek egiten duzuelako handi.

Aipatzekoa ere herriko zein inguruko taberna eta enpresen bultzada. Ezinbestekoak hauek guztiak ere.

Zorionak eta eskerrik asko guztioi.

4. ediziora arte…

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin
Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30
*Eskaintza baliagarriak martxoaren 3ra arte. Frutategian, arrandegian, okindegian eta harategian martxoaren 4ra arte. Martxoaren 25era arte arropan, bazarrean eta etxetresna elektrikoetan.*




2. alea
% 70

DODOT
Activity pixoihalak T3 neurria – 60 ale, T4 neurria – 52 ale, T5 neurria – 44 ale edo Sensitive T2 neurria – 88 ale
Alea: **22,49 €**
0,26-0,51 €/aleko

PSP 2. alea
**6,75 €**
2 ale: 0,17-0,33 €/aleko

**Eta gainera, ale bakoitzeko %5 itzultzen dizugu zure txartelean**
**(Adierazitako haurrentzako produktuetan)**




WIPP gel detergentea
22 dosi
Alea: **14,39 €**
0,22 € / dosia

PSP 2. alea
**4,32 €**
2 ale: 0,14 €/dosia

SKREI BAKAILAOA
KALITATE GOIENEKO BAKAILAOA ARRASATEKO EROSKI HIPERMERKATUAN.



# HERRIAK

BERGARA

# Aisialdiguneak Oxirondora

▸ Ludoteka apirilaren 13an zabalduko dute eta Jardunek dinamizatzen jarraituko du

▸ 'Azoka Bergaratzen' egitasmoan adostu zuten zerbitzuak azokako eraikinera eroatea

**MIREIA BIKUÑA** | BERGARA

Bergarako aisialdiguneak Oxirondora eramango dituzte. Azokaren bigarren solairuan ludoteka eta gune librea egokitu dituzte: txikiendako guneak 170 metro koadro izango ditu, eta ia 180 metro koadro gurasoek eta umeek partekatuko dutena. Azken hori martxoaren 2tik aurrera egongo da erabilgarri. Oxirondoko ludoteka, aldiz, apirilaren 13an zabalduko dute. Ludotekaren lekualdaketa Aste Santuko oporretan egingo dute, Jardunek umeekin duen eguneroko dinamika ez apurtzeko.

**Gurasoak eta umeak batera**

Bergarako Udalak azokan bateratu gura dituen aisialdiguneen inguruko hausnarketa *Azoka Bergaratzen* egitasmoan egin zuten. Herriko hezitzaileek eta gurasoek hainbat bileratan parte hartu zuten, eta aisialdiguneak bi espazio nagusi behar zituela adostu zuten: bata, ludotekarena, hezitzaileekin aisialdi gidatua eskainiko duena; eta bestea, gune librea, haurrek eta gurasoek elkarrekin konpartitzeko espazioa. "Gune libre horren helburua ez da aterpe hutsa izatea, txiki txokoak izan daitezkeen moduan. Hara joaten diren gurasoekin gune dinamiko bat sortu nahi dugu", esan du Leire Iruin zinegotziak. Hori horrela, umeek eta gurasoek dituzten kezketatik abiatuta, aisialdirako eskaintzen egitaraua landu gura dute, eta eskaintza hori euskaraz izan dadila bermatu. Gurasoei dei berezia egin diete. "Euren inplikazioa ezinbestekoa da ekintzak antolatzeko, eta izena emateko deialdia egingo dugu. Umeek beti egon behar dute heldu batekin gune librean", esan du Iruinek.

Gune libreko lehen ekintza atzoko ipuin kontaketa izan zen. Dagoeneko hainbat ekintza lotu dituzte literaturaren inguruan. (Ikus ondoko taula)

**Izen-ematea**

Ludotekari dagokionez, leku handiagoa izango dute aurrerantzean umeek. Egun Agorrosinen dagoen ludoteka txiki geratu da. 80 neska-mutikok dute izena emanda hango zerbitzua erabiltzeko. Ludoteka Oxirondon zabaltzen denean –apirilaren 13an–, beste izen-emate deialdi bat egingo dute ikasturtearen azken hiruhilekorako.



Nagore Narbaiza, Leire Iruin, Maren Belastegi eta Ariane Kareaga, Oxirondoko gune librean, eguaztenean. | MIREIA BIKUÑA

### ORDUTEGIA

**LUDOTEKA**

- Astelehenetik egubakoitzera, 4-12 urte: 17:00etatik 20:00etara
- Zapatuetan eta domeketan, Txapligu taldekoak: 17:00etatik 20:00etara.

**GUNE LIBREA**

- Astelehenetik domekara, 0-8 urte: 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara

Jardunek kudeatzen duen zerbitzua lekualdatu ostean, Agorrosingo gunea kirol jardueretara bideratuko dute.

**Txapligu aisialdi taldea**

Oxirondoko aisialdi zerbitzuko bi guneak astelehenetik domekara egongo dira zabalik. (Ikus goiko taula).

Aste bukaeretan Jarduneko Txapligu taldekoek erabiliko dute. "Orain arte, Zubietako eskolan elkartu izan dira, baina, hango egoera kaskarra kontuan hartuta, aste bukaeretan Oxirondon elkartuko dira Jarduneko begiraleekin", esan du Leire Iruin zinegotziak.



Mahai-futbola ludotekan. | M.B.



Umeendako komunak . | M.B.

### MARTXOAN, GUNE LIBREAN

**MARTXOAK 2, 9, 23**

- Saroa Bikandiren eskutik *Azalerako ipuinak*. Haurrekin komunikatzeko bideak: masajeak, poesia, ipuinak, literatura... Egunero bi talde egingo dituzte: 15:30ean eta 17:30ean. Izen-ematea, haur liburutegian. 10 euro.

**MARTXOAK 11, 18**

- Itziar Zubizarretarekin, *Nola kontatu eta aukeratu ipuinak*. 18:00etan. Izen-ematea, haur liburutegian. 10 euro.

**MARTXOAK 6, 13, 20**

- Irakurketa klubak. Bi talde: 3-6 urte (17:15) eta 6-8 urte (18:15). Irakurketa sustatu, euskal bibliografia ezagutu, irakurketa giroa sortu, ozenki irakurtzen trebatu... Izen-ematea, haur liburutegian. Doako emanaldiak.

# Astelehenean hasiko dira arrasatearrak hondakin organikoa ere bereizten

## Herritarrendako bilketa sistema berria datorren aste osoan jarriko da martxan, guneka eta era mailakatuan

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Datorren astelehenean, martxoak 2, jarriko da martxan hondakinak biltzeko bost edukiontzien sistema berria. Hondakinen Mahaiak hala adostuta, egun horretan hasiko dira edukiontzi zaharrak kendu eta txipdun edukiontzi berriak ipintzen: "Aldaketa era mailakatuan egingo da eta aste osoa beharko da herri osora hedatzeko. Horregatik, guneka egingo da, ondorengo ordena jarraituz: Musakola, Santa Marina, San Andres, erdialdea eta, azkenik, Uribarri-Erguin", jakinarazi dute Udaletik. Hortaz, arrasatearrek datorren astean bertan, euren kalean edukiontziak aldatzean, hasi beharko dute edukiontzi berriak erabiltzen. Prozedura bera jarraituko dute "hondakin sortzaile txikiak" diren komertzioek ere, txartela eta edukiontziak erabiliko dituztenek.



Informatzaile bat herritar bati ontzi marroia, grisa eta txartela ematen. | J.B.

**Kamioia sortzaile handiendako**

Bestalde, "hondakin sortzaile handiak" diren komertzioei atean bertan jasoko zaie organikoa eta errefusa. Bilketa horren hasiera edukiontzi-guneen aldaketarekin batera joango da. Beraz, martxoaren 3an, martitzena, edukiontzi berriak ipinita dauden guneetako komertzioei atean biltzen hasiko zaie kamioia. Astean zehar, edukiontziak aldatzen joan ahala, bere ibilbidea handitzen joango da eta martxoaren 9an herri osoko ibilbidea egingo du, Udaletik jakinarazi dutenez.

Azkenik, industrialdeetan dauden enpresendako bilketa martxoaren 9an hasiko da.

**Gutxienez %70eko tasa**

Sistema berria urtarrilean abiaraztea aurreikusi bazen ere, "hainbat arrazoi teknikok" eraginda atzeratu egin da. Hondakinen Mahaiak adostu zuenez, bederatzi hilabetez egongo da probaldian, eta, gutxienez, %70eko bilketa selektibo maila lortzea da helburua. Urte amaieran herritarrek jaso zuten etxe bakoitzari dagokion errefusarendako ontzi grisa, hondakin organikoarendako ontzi marroia, edukiontzi marroia eta grisa zabalduko dituen txartela, poltsa konpostagarriak –izan ere, organikoa botatzeko ezingo da plastikozko poltsarik erabili–, eta edozein zalantza argitzen lagunduko dieten hondakinen gida eta hiztegia. Hala ere, material kita jaso ez dutenek edo beste zalantzaren bat dutenek BAZen hondakinen informazio bulegoa dagoela gogora ekarri du Udalak.

Asteleheneko osoko bilkuran, hondakinen gainean PSE-EEk aurkeztutako mozio baten eztabaidaren amaieran, Hondakinen Mahaiak lortutako akordioaren balioa nabarmendu zuen berriro ere Inazio Azkarragaurizar alkateak: "Garrantzitsuena izan da Arrasaten gai izan garela akordiora heltzeko. Gonbidapena egiten diet herritarrei eta bereziki alderdi sozialistari akordio bete eta gauzak ondo egin ditzan".



PSE-EEren mozioaren bozketa; Bilduren eta Aralarren kontrako botoekin, ez zuen aurrera egin. | JOKIN BEREZIARTUA

### Hondakinak osoko bilkuran, PSE-EEren mozio baten bidez

Hondakinek Gipuzkoan eta Debagoienean "eragin duten hondoratze ekonomikoa" salatzeko, mozioa aurkeztu zuten sozialistek osoko bilkuran: "Zubietako erraustegia gelditzeagatik bailaran ia 500.000 euro ordaintzen ari gara hilabetean. Zertarako? Ezertarako ez", uste du PSE-EEko bozeramaile Paco Gartziak. EAJko Maria Ubarretxenak Bilduk Batzar Nagusietako erabakiari uko egin izana salatu eta hondakinen gaian azken lau urteak galdu egin direla uste du. Ingurumen zinegotzi Josu Peredak, ordea, Zubietako erraustegia geldituko ez balitz herritarrek ordaintzen dutena "gutxienez oraingoaren bikoitza" izango zela esan zuen eta banketxeek zehaztuko zuketela zabor tonaren prezioa: "Zaborra kanpotik ekarri beharko litzateke edo hemen ezingo litzateke birziklatu".

## Arrasate pasealekuko lanak hasi ahal izateko seinaleak jartzen eta beste lan batzuk egiten ari dira

### Udala eta Foruen plazen arteko bide zatia kale egingo dute; bidea ixteko egunik ez da zehaztu

**J.B.** | ARRASATE

Arrasate pasealekuko Udala eta Foruen plazen arteko errepide zatian obra handia egingo da. Bide zati hori kale bihurtu gura dute, oinezkoei zein bizikletei lehentasuna emanez; errepide zatia astelehenean, hilak 23, ixtea zen Udalaren asmoa: "Jarri beharreko seinaleak egiten ari dira. Eta horiek egin eta jarri arte, ezingo da bidea moztu. Bitartean, beste lantxo batzuk egiten ari dira dira, baita txabolak-eta jartzen ere", adierazi dute Hirigintza Sailetik.

Errepide zati hori noiz itxiko den ez dakite oraindik: "Laster izango da, baldin eta langileei esan zaien guztia aldez aurretik gertu badago. Herritarrei nondik nora ibili ahalko diren argituko diegu, eta informazioa jaso ez duenari begira, saiatuko gara seinaleen bidez adierazten".

**"Faserik konplexuena"**

Takolo-Goiru proiektuaren barruko lehen fasea izango da Arrasate pasealekukoa, "faserik konplexuena". Mugikortasun eredua aldatu eta arrasatearren bizi kalitatea hobetzeko helburuaren barruan, Udalak lehentasuna eman dio proiektu horri. Kanpotik datozen ibilgailuei saihesbideak erabiltzea gomendatuko zaie eta barruko mugimenduak Loramendi eta Uribe kaleetatik bideratuko dira. Obrek iraun arten sortu ahal diren eragozpenengatik barkamena eskatu du Udalak aldez aurretik; lanok sei hilabete irautea zehaztu dute.




ARRASATEKO UDALA

## Lur mugimenduak Gesalibarren

**Euriteen eraginez lur mugimenduak izan dira Gesalibar auzoan, eta Parraia, San Jurgi, Zabolain, Atxabal eta Etxebarri baserrietara doan errepidean alderik aldeko pitzadura bat agertu da, bederatzi zentimetroko zabalera duena: "Interbentzio barik ez dago jakiterik larritasun maila". Bidea neguan eta udaberrian zehar itxiko dute.**

## Kontseiluak deitu duen euskararen aldeko biharko manifestaziora joateko txartelak AEDn eta Jai Zalen

**KOMUNITATEA GOIENA**
AED ELKARTEA | ARRASATE

Kontseiluak deituta eta *Oztopoen gainetik euskaraz biziko gara!* lelopean, Donostian egingo den biharko manifestaziorako txartelak salgai ditugu AEDn eta Jai Zale tabernan. Autobusa irtengo da 16:00etan, Garibaiko geltokitik. Espainiar estatuko EAEko gobernu delegatua, Nafarroako Gobernua eta frantziar estatua epaitegietara jotzen ari dira euskararen aurka, eta horregatik deitu du manifestazioa Kontseiluak.

## Martxoaren 8ko egitaraua iragartzeko kartela, Perlata taldearena

*Ekintza txikiak, helburu handiak* izenburu daraman ondoko kartelak iragarriko ditu Martxoaren 8ra begira antolatu dituzten ekintzak. Lau emakumez osatutako Perlata taldea da egilea, eta 450 euro jaso dituzte. Emakume Txokoak datorren astean emango du egitarau zehatzaren berri.




Aurtengo kartela. | PERLATA

# "Edonon" erabil daitekeen txartela atera du Ibai-Artek

▶ Visa Arrasate–Mondragon sortu dute, "modernoa" eta 'contactless'–arekin

▶ Bestalde, biharko Merkemerkaua antolatu dute, 10:00etatik 20:00etara

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Visa Arrasate-Mondragon txartela sortu du Ibai-Arte elkarteak, "bailarako saltokiei bultzada emateko ezinbesteko urratsa" dena eta bezeroak fidelizatzea helburu duena. Orain arteko Ibai-Arte txartelak "harrera paregabea" izan duela ikusita, orain "pauso irmoa" eman dute Visa Arrasate-Mondragon txartelarekin. Nafarroako Rural Kutxarekin batera sortu dute txartel hori eta orain arteko Ibai-Arte txartela ordezkatuko du.

Hori bai, Ibai-Arte txartelaren abantaila guztiak ditu Visa Arrasate-Mondragon txartelak: iraungitze datarik gabeko puntuak ematen jarraituko du erosketa txartelen truke, deskontuak, promozioak eta opariak eskainiko dizkie erabiltzaileei, eta ordainketak hiru hilabetetan burutzea ahalbidetuko du oraindik, inolako interesik gabe. Gainera, saltokiek zerbitzu osoago bat eman ahalko dute txartelari esker, elkarteak aldiro-aldiro antolatzen dituen zozketetan parte hartzeko aukera eskainiko baitiete bezero fidelenei. Txartel "modernoa" da, doakoa eta *contactless* teknologiarekin, eta haren diseinuan Udalatx eta Arrasateko dragoia ageri dira.



Txartelaren aurkezpena Kulturaten, eguaztenean. | IMANOL BELOKI

### Txartela hurbiltzearekin nahikoa

Eguaztenean Kulturaten egindako aurkezpenean Nafarroako Rural Kutxako zuzendari Asier Perezek azaldu zuenez, txartela hurbiltzearekin nahikoa izango da ordainketa egiteko: "20 eurotik beherako erosketetan txartela hurbildu behar da bakarrik; 20 eurotik gorako erosketetan, berriz, pasahitza sartu beharko da. Hori da txartelaren beste ezaugarri berri bat". Bestalde, Ibai-Arteko kide Jesus Mari Elkorok adierazi zuen orain arteko txartelaren besteko arrakasta izatea espero dutela eta aurrerantzean ere halako erremintak sortzeko asmoa dutela: "Bailarako ekonomiak behar ditu halako erremintak, baita etorkizunean ere, eta asmoa dugu bide horretan jarraitzeko".

### Eskaintzak kalean, bihar

Era berean, bihar egingo da Ibai-Artek antolatzen duen udazken-neguko *stock* azoka, 10:00etatik 20:00etara, etenik gabe. Merkemerkauaren hamahirugarren edizio honetan, saltzaileek kalera aterako dituzte bukatzen ari den denboraldiko produktuak, prezio oso murriztuetan. 36 komertziok hartuko dute parte; arrasatearrek nahiz bisitari-turistek deskontu handiez gozatu ahalko dute denetariko arloetan: emakume, gizon eta haur modan, lentzerian, mertzerian, osagarrietan, oinetakoetan, etxeko dekorazioan... Saltoki aurrera aterako dute euren eskaintzak gehienek –Olarten, Otalora Lizentziadunan, Garibai etorbidean, Biterin eta Erdiko kalean– edo karpa-guneak osatuko dituzte. Bestalde, saltoki aurrean horretarako aukerarik ez dutenak edota erdigunetik urrun daudenak Biteri plazan edo Olarte kalean kokatuko dira.

10:00etan irekiko da azoka eta 11:00etatik 13:00etara Beriba Samba Eskolakoek batukada egingo dute. Arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara, Kiliki eta Erraldoien Konpartsa aterako da kalera. Gainera, musika jarrita egongo da egun osoan.

## NIRE USTEZ

**ANE GOROSABEL**



### Bart gaueko ametsa

Esnatu berri, goizean goiz, bart gaueko ametsa etorri zait gogora: mahai inguru atsegin bat konpartitzeko aukera izan dut, aspaldian bateren batzuk buruan bueltaka eduki izan dugun elkarbanatzea egiteko erabakia hartu eta espazio aske batean ikusi dugu elkar.

Ondoan genuena, guztiz ezagutu gabe, lagun sentitu dugu. Bidelagun. Berriketa etengabea izan da, elkarren arteko interesa bat-batekoa egunerokotasunetik kanpo dauden entzunaldietan sakon murgilduta, esperientzia ugari nireak balira bezala sentituz.

Eguraldiak azkenaldian ekarri dizkigun nondik norakoak ere izan ditugu tartean, akaso kasualitatea, baina denok udaberriaren zain, non ote dira eguzkia, loreak, bizitza. Kasualitatea akaso, baina denok oso barneratuta ditugu gureak eskaintzen dizkigun trabak eta aukerak, eta, zailtasunak zailtasun, ametsak aurrera egin ahala, indarra dugu protagonista.

Lanerako grinak, zerbait berri horri gogoz heltzeko beharrak. Ametsa ote? Posible litzateke ametsa benetan gertatu izana? Norberak bere eskuekin, duintasunez, konpromisoz eta ilusioz sortutako proiektua gauzatzea?

Eta, are gehiago, hau berau bizimodu bihurtzea? Apustu ugari mahai gainean, eta nik, irabazleak sumatu ditut denak.

Ametsa ote?

# Herritarren iritzi eta iradokizunak jaso gura ditu EAJk

Horretarako, hainbat galdera jasotzen dituzten esku–orriak banatu dituzte egunotan etxez etxe

**TXOMIN MADINA** | ARRASATE

Eguaztenean egindako agerraldian aurkeztu zuen EAJko alkategai Maria Ubarretxenak herritarren iritziak eta iradokizunak batzeko jeltzaleek abiarazi duten ekimena.

Azaldu zuenez, asteak daramatzate hainbat alorretako eragileekin biltzen; eta orain, norbanakoen proposamenak jaso gura dituzte. "Arrasaterako daukagun etorkizuneko proiektua herritarren iritziekin aberastu gura dugu", esan zuen, eta gaineratu: "Auzoen zein herritarren beharren diagnosia egin eta partekatu gura dugu arrasatear guztiekin". Ubarretxenak hitz eman zuen proposamen guztiak aztertuko dituela.



Maria Ubarretxena, eguazteneko agerraldian. | T.M.

### Anonimoa eta doakoa

Iritziak jasotzeko, eskuorriak banatu dituzte etxez etxe. Horietan hainbat galdera daude; besteak beste, aparkalekuen arazoari eta hondakinen bilketa sistemari buruzkoak. Eskuorriarekin gutun-azal bat ere bidali dute, era anonimoan eta doan parte hartzeko. Posta elektronikoz ere egin ahalko dira ekarpenak, *arrasateaj@gipuzko.com* helbidera idatzita.

## Endavant eta CUPeko kide Anna Gabriel Sabateren saioa etzi

Askapenak eta Ernaik antolatuta, Herrialde Katalanetako Endavant eta CUPeko kide Anna Gabriel Sabatek hitzaldia eskainiko du domekan Arrano elkartean. 12:00etan hasiko da saioa.

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa genero indarkerian
Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

## Ludoteka ibiltariak azken geldialdia egingo du bihar Musakolako gazte txokoan

KOMUNITATEA GOIENA | LUDOTEKAK
TXATXILIPURDI | ARRASATE

Ludoteka ibiltariaren laugarren eta azken aste bukaera izango da Musakolan. Joan den astean, *Sua* jolasarekin jolasten eta gazte txokoko sukalde ederrean bizkotxoa egiten pasa zuten zapatu goiza, eta biharko, pizza egin nahiko luketela aipatu ziguten. Beraz, gerturatzen direnek ideia berarekin jarraitzen badute, pizzak egin eta dastatzeko izango dute. Hala ere, parte hartzaileen esku geldituko da goiza nola pasa erabakitzea. Musakolako gazte txokoan elkartuko gara, 10:30etik 13:30era; ez dago ludotekako bazkide izan beharrik, 3 eta 12 urte arteko edonor joan ahalko da. Martxoan San Andres auzora hurbilduko da ludoteka ibiltaria.

# Ikus-entzunezkoa, ibilaldia eta irteerak, Besaideren egitarauan

Otsaila bukatzeko, auzolana egingo dute bihar, zapatua, San Balerion

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Bihar, zapatua, auzolana egingo dute Besaide Mendizale Elkartekoek eta egunotan izena eman duten herritar guztiek San Balerion. Hain zuzen, pinudi bat egondako lursailean bertako arbolak landatuko dituzte. 09:00etan batuko dira Meatzerrekan, San Balerio ermita ondoan.

Martxoa ekintzaz beteta dator Besaide elkartearendako. Hain zuzen, hilaren 2an, astelehena, Laura Martinezen eta Aitor Iguiñitzen eskutik, *Pedalka bizi: 8 urtetan munduan zehar bi gurpilen gainean* delako ikus-entzunezkoa izango da. Kulturateko areto nagusian izango da hori, 19:00etan.

Hilaren 8an, domeka, Eskola Mendizaletasuna programaren barruan antolatutako ibilaldi neurtua izango da. Arizmendiarrieta Ibilbidetik abiatuko dira parte-hartzaileak. Ekintza hori zabalik dago Gipuzkoako ikastetxeetako ikasle guztiei, berdin da eskola kirolean parte hartu duten edo ez; baina ibilaldia egin nahi dutenek Besaideri bidali behar dizkiote izen-emate datuak, martxoaren 6a baino lehen.



Formigalera bi irteera egingo dituzte martxoan. | BIQUIPEDIA

**Araia-Galarreta**

Irteerak ere antolatu ditu Besaide elkarteak datorren hilerako.

Mendi irteerei dagokienez, hilaren 15ean Arabako lautada integralaren 7. etapa egingo dute: Araia-Galarreta. Izen-ematea zabalik izango da martxoaren 9an, 10ean eta 11n, 19:30etik 20:30era bitartean.

Eski alpinoa egitera joango dira martxoaren 15ean –egun bateko irteera– eta hilaren 21ean eta 22an, bi kasuetan Formigalera. Izen-emateak astelehen, martitzen eta eguaztenetan egin daitezke, 18:30etik 19:30era bitartean.

Eskiarekin jarraituz, elur mota guztiak jaisteko tekniken ikastaroa izango da martxoaren 7an eta 8an; eta 26. Eski Zeharkaldia, martxoaren 14an eta 15ean. Bi ekintza horietarako izen-ematea zabalik dago Interneteko *www. gmf-fgm.org* webgunean.

## Udaberri Torneoko 1. fasean izango dira Arrasateko gimnastak

Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeak parte hartuko du Udaberri Torneoko lehen fasean. Etzi, domeka, jokatuko da, Oiartzungo kiroldegian. 10:00etan hasiko da eta alebinak, infantilak eta kadeteak taldean lehiatuko dira. Arrasateko taldetik hauek hartuko dute parte: alebinetan, taldeka –pilotarekin eta esku libreak–, 28 gimnastak; infantiletan, taldeka –uztaiarekin–, 18 gimnastak; eta kadete mailan –sokarekin–, zortzi gimnastak.

## Bolada onarekin jarraitu guran joango da MU Leioara

Oraingo aste bukaeran, Askartza Claret taldearen aurka jokatuko du Mondragon Unibertsitatea saskibaloi taldeak. Leioan izango da, etzi, domeka, 12:00etan.

Ligako bigarren bueltan sartuta dauden honetan, puntu bakoitza urrezkoa da, eta azken asteotan izan duten bolada onarekin –azken bi partiduak irabazi egin dituzte– jarraitzeko itxaropenarekin joango dira Arrasateko jokalariak hurrengo norgehiagokara.

## ZALDIBAR

**PARTIDUAK**

OTSAILAK 28, ZAPATUA

**11:00**
Aldatz-Jibaros FC
**Ostantz**

**12:00**
Ostantz-Sonografos
**Jibaros FC**

**13:00**
Kantzerlauten-Abokajarro
**Sonografos**

MARTXOAK 1, DOMEKA

**11:00**
Alytis FK 2.0-Haizea's Weah
**Betrayer**

**12:00**
Betrayer-Arrasate Taberna
**Haizea's Weah**

**13:00**
Dribling 2.0-Lasagabaster
**Arrasate Taberna**

CAMBRIDGE ENGLISH
Language Assessment
Authorised Centre
Cambridge ESOL Examinations Centre ES438

AZTERKETAK – 2015eko MAIATZA / EKAINA

Azterketak: ARRASATEN, DURANGON eta EIBARREN

Matrikula epea: martxoaren 3tik 25era

| AZTERKETAK | DATAK |
|---|---|
| STARTERS, MOVERS, FLYERS | Zapatua, maiatzak 30 (azterketa osoa) |
| KET (FOR SCHOOLS) | (Papers 1, 2, 3) Zapatua, maiatzak 30 Speaking Maiatzaren 22tik ekainaren 1era arte) |
| PET (FOR SCHOOLS) | (Papers 1, 2, 3) Zapatua, maiatzak 30 (Speaking Maiatzaren 22tik ekainaren 1era arte) |
| FCE (FOR SCHOOLS) | (Papers 1, 2, 3,4) Zapatua, ekainak 13 (Speaking Ekainaren 5etik 14ra arte) |
| CAE | (Papers 1, 2, 3, 4) Zapatua, ekainak 6 (Speaking Maiatzaren 22tik ekainaren 14ra arte) |
| CAE | (Papers 1, 2, 3, 4) Zapatua, ekainak 27 (Speaking Ekainaren 19tik 28ra) |
| CPE | (Papers 1, 2,3, 4) Eguena, ekainak 11 (Speaking maiatzaren 22tik ekainaren 14ra arte) |
| PET | (Papers 1, 2, 3) Egubakoitza maitzak 29 (Speaking Maiatzaren 22tik ekainaren 1era arte) |
| FCE | (Papers 1, 2, 3,4) Zapatua, ekainak 6 (Speaking maiatzaren 22tik ekainaren14ra arte) |
| FCE | (Papers 1, 2, 3, 4) Zapatua, ekainak 27 (Speaking Ekainaren 19tik 28ra arte) |

INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK

| | | |
|---|---|---|
| ARRASATE: | Parlance | 943 77 06 83 |
| | Idiomaster | 943 79 07 84 |
| BERGARA: | Espolon School of English | 943 76 03 53 |
| EIBAR: | Anglo-American | 943 20 01 08 |
| | Link Idiomas | 943 20 39 59 |
| ERMUA: | Akerlei | 943 17 66 32 |
| ELGOIBAR: | Kensington School of English | 943 74 02 36 |
| | Key Academia de Inglés | 943 74 30 44 |
| OÑATI: | Academia Sheila Fritz | 943 78 20 91 |
| ONDARROA: | Howdy | 96 683 23 79 |
| DEBA: | Akabi | 943 19 16 79 |
| | North Street English | 943 19 25 00 |
| DURANGO: | San Jose Maristak | 94 681 00 58 |
| MENDARO: | Akabi | 943 75 50 55 |
| MARKINA: | Chatterbox | 94 616 96 39 |
| ELORRIO: | Ontrack Hizkuntza | 94 658 46 73 |
| BERRIZ: | Speak up | 94 622 52 94 |
| ZUMAIA: | Golden Gate | 943 86 50 20 |
| MUTRIKU: | Gogoz | 943 60 43 58 |

# Ekintzaz betetako kultura gida prestatu du Udalak martxorako

Musika, zinema, antzerkia eta arte erakusketa izango dira nagusi egitarauan

MAIALEN TORRES | ARRASATE

Filmen, antzezlanen, operaren eta bestelako ikuskizunen artean, ez dute aspertzeko tarterik izango arrasatearrek martxoan.

Arrasate Musikaleko bandaren kontzertuak irekiko du egitaraua bihar, 12:30ean, baina astean zehar ere izango da zer egina. Astelehenean zabalduko dute *ARTEAN. Hamaika emakume artista* izeneko erakusketa. "Zentzumenak jokoan jartzen ditu, eta errealitatera hurbiltzeko modu bat da; edo ez", aurreratu dute antolatzaileek. Martxoaren 2tik 28ra egongo da ikusgai, Kulturateko klaustroan.

Eguaztenean, umeentzako ipuin kontaketa eta *Jostunak* dokumentalaren proiekzioa egingo dituzte, Kulturaten bata, eta Amaia antzokian bestea. Gure Esku Dagok antolatuta, ikus-entzunezkoan, "herritarren borondateak jositako istorio bat" ezagutuko dute bertaratzen direnek, 19:00etan.

Martxoaren 7an, berriz, Dantzaz konpainiak *Itzalak-txoriak* ikuskizuna taularatuko du Amaia antzokian. Bi zati ditu, eta Arriaga eta Laboa musikarien lanak ekarriko ditu Amaiara. Lehenengoan, Paolo Mohovich koreografoak itzalak arakatzen ditu, eta bigarrenean, Josu Mujikak Laboaren unibertsoa gogoratzeko dantzak sortu ditu. Bi koreografoek, euren lanak uztartuta, dantza garaikidea mota guztietako ikuslegoari gerturatu nahi diote, "mugimenduaren musikaltasuna" bertatik bertara sentiarazita.

Ekintza gehiago ere egongo dira, ordea: Pucciniren *Tosca* opera eta *Erdibana* antzezlana, besteak beste. Guztien informazioa zein ordutegia martxoko kultura gidan izango da ikusgai, baita Udalaren webgunean ere.

**Zinema eskaintza zabala**

Umeentzako, Disneyren *Into the woods* film musikala izango da lehen aukera bihar, 17:00etan. Ondoren, 19:30ean, Oscarretan hainbat sari eskuratu dituen *Whiplash* izango da ikusgai, bateria -jotzaile gazte baten arrakasta desioaren eta irakasle zorrotz baten gogortasunaren arteko talka kontatzen duen filma.

Horiez gain, *La teoria del todo*, *Siempre Alice* eta denbora gutxian hain entzutetsu bihurtu den *50 sombras de Grey* ere izango dira datozen asteburuetan. Asteartetan berriz, bestelako pelikulak eskainiko dituzte Amaia antzokian, besteak beste, Tim Burtonen *Big eyes*. eta Andrei Zvyagintsev errusiarraren *Leviatán*, Errusiako ustelkeria eta beste hainbat gatazka azaleratuz, herrialdean bizi duten errealitateari kritika egiten dion filma.




# Doinu klasikoetatik gaur egungo musikara

KOMUNITATEA GOIENA
ARRASATE MUSIKAL | ARRASATE

Urtero otsail edo martxo inguruan egin ohi dugun moduan, aurten ere, ohiturari jarraituz, Arrasate Musikaleko bandakook kontzertua eskainiko dugu. Domekan izango da, 12:30ean, Amaia antzokian, eta Mikel Markiegi izango dugu zuzendari. Bost pieza joko ditugu guztira, eta, klasikoetatik hasi eta gaur egungo musikaraino, gustu guztietarako doinuak izango dira emanaldian. Penellaren *El gato montés* operako pasodoble batekin hasiko gara, eta sarrera doakoa izango da.

**Piano-jotzaileak Andoainen**

Asteburuan zehar, Maria Rodrigez, Nerea Remiro, Lorea Gartzia eta Uxue Usatorre ikasleek emanaldia egingo dute Andoaingo piano jaialdian. Eta aurtengoa hamargarrena denez, hainbat irakaslek ere joko dute jaialdian; tartean, Arrasate Musikaleko irakasle Isabella Blezianek.

## Gaur iluntzean egingo dute joan den astean atzeratutako Herrixa Dantzan saioa Uarkapen

Portaloi elkartearen eskutik, beste behin ere izango da musika eta dantza tradizional ludikoekin gozatzeko tartea Herrixa Dantzan dantzaldi irekian. Joan den astean atzeratu egin zuten, eta horregatik egingo dute gaur, 19:30etik 21:00etara, Uarkapen. Hain zuzen, Patxi Monterok gidatuta, sokan, bikoteka, soltean, korruan eta taldeka egingo dute dantza han batzen direnek.


M.O.

## Maitasunez, 'Zure pittikintxo'-k

Barakaldoko maitasun gutunen lehiaketan lehen saria irabazi du Maider Osa arrasatearrak, euskarazko gutunen sailean. *Zure pittikintxo*, ume batek hil berri den amamari idatzitako gutuna, epaimahaiko kideen bihortzetaraino iritsi da. "Amatxok inoiz edo behin esan izan dit ez zarela bueltatuko, *Betirako* bidaia hasi zenuelako. Baina nik ez diot sinesten. Zer du, ba, azken bidaia honek, espezialetik?", dio gutunak. Guztira, mundu osotik iritsitako 134 lanek hartu dute parte, eta, besteak beste, Argentinako, Kubako eta Uruguaiko lehiakideak izan dira aurten.

## Eguaztenean ipuin kontaketa 5 urtetik gorako umeendako

Oihulari Klowneko Dorleta Kortazarrek ipuin kontaketa saioa eskainiko du datorren eguaztenean. Kulturateko Jokin Zaitegi gelan izango da, eta, 18:00etan hasita, ordubete inguru iraungo du kontaketak. 5 urtetik gorako umeek, beraz, aukera aparta izango dute irudimena dantzan jarri eta literaturaz gozatzeko. Gainera, bertaratu nahi dutenek ez dute sarrerarik ordaindu beharko, ez umeek, ezta gurasoek ere.

## AGAKOren 24. urteurrena ospatzeko esaldi bila dabiltza

Apirilean beteko ditu AGAKOk 24 urte, eta dagoeneko hasi dira urteurrena ospatzeko antolakuntza lanetan. "Egitarau indartsua" prestatzeko asmoa dute, baina, ezer baino lehen, lelo bat erabaki nahi dute. Horretarako, herritarren laguntza eskatu dute, eta Facebook bidez, *arrasatekogaztetxea@gmail.com* helbidera idatzita edo tabernetan jarri dituzten paperak beteta proposamenak bidaltzeko deia zabaldu dute.

# Aholkularitza zerbitzua egongo da Zubikoan astelehenetik aurrera

## Bi kirol aholkulari egongo dira fitness gelan kiroldegiko erabiltzaileei euren beharren araberako kirol gomendioak emateko

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Zubikoa kiroldegian kirol aholkularitza zerbitzua egongo da astelehenetik aurrera. "Kiroldegiko erabiltzaileek eurek egindako eskaera izan da, eta ez da fitness gelara bakarrik mugatuko. Zubikoako beste zerbitzuren bat erabiltzen duen herritarrari erantzuteko ere izango da. Helburua, baina, ez da entrenamendu pertsonalak prestatzea, baizik eta kirola nola egin aholkatzea", azaldu du Kirol teknikariak, Oskar Carrascalek.



Asier Penabad eta Olatz Igartua Zubikoa kiroldegiko fitness gelan. | EGOITEK

**Makinak ezagutu**

Zubikoa kiroldegiko zerbitzuak kudeatzen dituen Egoitek enpresaren kargu egongo da zerbitzu berri hori ere, eta bi monitore edo aholkulari izango dira: Olatz Igartua eta Asier Penabad. Txandaka egongo dira, egun batzuetan bat eta beste batzuetan bestea.

Kirol aholkularitza zerbitzu horrek funtzio hauek izango ditu: aforoaren kontrola, segurtasuna bermatzea, makina eta ekipamenduen zaintza, arautegiak betetzea, jarduera fisikoaren gaineko oinarrizko orientazioa eta preskripzioa, jarduera fisiko osasuntsua sustatzeko aholkularitza, makina, gailu eta ekipamenduaren gaineko aholkularitza eta dinamizazio lanak.

Igartua eta Penabad aholkulariak fitness gelan egongo dira eta erabiltzaileei laguntzeko egongo dira. "Gela horretan makina mota ezberdinak ditugu: kardiobaskularrak –arraunean egiteko makina, korrika egiteko zintak eta bizikleta eliptikoak eta estatikoak–, pisu libreak eta gorputzeko atalak lantzeko makinak. Bakoitzak, baina, erabilera konkretua du eta komeni da jakitea zertarako den bakoitza eta nola erabiltzen den. Horretan laguntzeko diegu erabiltzaileei", azaldu du Olatz Igartuak. "Gure lana ez da izango entrenamenduak jartzea edo kirol mailako emaitza konkretuak lortzeko bakoitzak egin behar duen *planing*-a zehaztea eta horren gainean egotea. Pisua galdu gura duenak zein ariketa egin ditzakeen, gorputzeko atal konkreturen bat indartzeko zein makina erabil dezakeen edo edozein jarrera nola zuzendu aholkatzeko egongo gara", zehaztu du arrasatearrak.

Zubikoako kiroldegiko edozein erabiltzailerendako izango da zerbitzu hori, baita fitness gelara inoiz sartu ez direnendako ere. "Horiek ere animatu gura ditugu. Akaso, makinak nola erabili ez dakitelako ez dira etorri asko, beldurragatik, eta lotsa horiek alde batera utzi eta etortzeko esan gura diegu", dio Igartuak.

**Doan**

Zubikoako fitness gelako erabiltzaile kopuru zehatza jakitea zaila dela dio kirol teknikariak, rokodromora doazenak ere hantxe egoten direlako, baina erabilera handia dela dio. "Hala ere, eta kontuan izanda beste kirol bateko erabiltzaileekin partekatzen dela gela hori, euren arteko elkarbizitza ona da, oreka ondo mantentzen dute, elkar errespetatuz, eta hori ona da", adierazi du Oskar Carrascalek.

Zubikoako bazkide guztiendako izango da aholkularitza zerbitzua eta erabiltzaileek ez dute ezer ordaindu beharko horregatik, urteko kuotaren barruan sartzen da. Egutegiari buruz, martxoaren 2tik ekainaren 13ra arte –Aste Santuko egunetan, Pazkoa astean eta zubietan izan ezik– eta irailaren 14tik abenduaren 23ra arte. Ordutegia, berriz, ezberdina da egun bakoitzean eta kiroldegiko sarreran kontsulta daiteke. "Zerbitzuaren erabilerak esango digu zer-nolako egokitzapenak egin beharko ditugun", dio Carrascalek.

# Zakarrontzi berriak jarriko dituzte herrigunean

O.E. | OÑATI

Herrigune historikoan dauden kaleko zakarrontziak kendu eta berriak jarriko dituzte laster. "Zakarrontzi berri horiek bi edo lau hondakin frakzio batean biltzen dituzte. Guztira, bost handi eta lau txiki jarriko dira: Foruen enparantzan, lauko bi eta bana Ona taberna parean dagoen plazatxoan, Etxaluzen eta Atzeko kalean, Iturritxo inguruan. Ramon Irizar kaleko parketxoan bi txiki jarriko dira eta beste bi Kale Barria eta Antixena parkea elkartzen dituen gune horretan", azaldu du Leire Egañak, Ingurumen zinegotziak.

Diseinu ezberdina izateaz gainera, burdin herdoilduaren itxura hartzen duen altzairuz egindakoak izango dira. Horrela, herrigunean dauden eraikin eta etxebizitzei hobeto egokituko zaizkiela uste du Udalak.

**Bi eredu**

Zakarrontzi berri horien eredua, baina, erabakitze dago oraindik. "Bi eredu daude: goiko aldea erabat irekita dutenak eta estalita dutenak. Kontua da, euriagatik, estalitakoak aproposagoak direla, baina hondakinak bildu behar dituztenendako lan handiagoa eskatzen die, akaso. Langile horien iritzia jaso behar dugu orain, erabakia hartu aurretik", azaldu du Leire Egañak.

Joan den astean eman zion oniritzia asmo horri Udal Gobernuak. Behin eredua erabakita, sei aste inguru beharko dituzte zakarrontziak egiteko eta herriguneko puntu horietan daudenak kendu eta berriak jartzeko.

# Eltziaren itxura zehazten



Martitzenean egindako bilera. | BAGARA

O.E. | OÑATI

Eteoren aprobetxamendu arkitektonikoa ezagutzen ari dira Eltzia proiektuko kideak, eta, era berean, euren iritziak ematen. Aste honetan, esaterako, bi bilera egin dituzte horretarako: gorputz mugimenduko kideak martitzenean batu ziren eta atzo, eguena, herri mugimenduko kideak batu ziren azalpenak entzuteko eta egindako proiektua ezagutzeko. Datorren astean, eguaztenean, auzo Eltziako kideak batuko dira, Eteon, 18:00etan. Sormen taldekoak, berriz, apirilaren 14an.

Bagarako kide eta Eltzia proiektuko koordinatzaile Johana Olaberriaren esanetan, asmoa da apirilaren 28rako jasota izatea kide guztien ekarpenekin egindako beste proiektu bat, gero berriz eurekin kontrastatzeko.

# Bi oñatiar eskolarteko bertsolari txapelketan

KOMUNITATEA GOIENA | OÑATIKO BERTSO ESKOLA | OÑATI

Oñatiko bertso eskolako Urko Arregik eta Gontzal Belategik Gipuzkoako eskolarteko bertsolari txapelketan hartuko dute parte. Sei kanporaketa egingo dituzte, guztira, eta oñatiarrak zapatu honetan, bihar, Zumarraga-Urretxun egingo den saioan hartuko dute parte. Bertso afari formatuan izango da kanporaketa eta Zumarragako elkarte gastronomiko batean arituko dira Arregi eta Belategi. Finala apirilaren 26an izango da, Irunen.

**Maiatzaren 30, Oñatin**

Bestalde, Gipuzkoako bertsolari txapelketa ere laster jarriko dute martxan. Eta hor ere izango dira Oñatiko bertso eskolako kideak. Bost oñatiarrek hartuko dute parte txapelketa horretan, horietako bat Maider Arregi, iazko Gipuzkoako eskolarteko txapelduna.

Apirilean edo maiatzean hasiko da txapelketa hori. Kanporaketa bat, hori bai, Oñatin izango da, maiatzaren 30ean, hain zuzen ere. Hantxe egongo gara, beste behin, Oñatiko bertso eskolako guztiok.

**Zuriñe Galartza** | Mankomunitateko Orientazio Zerbitzua

# "Aktibo egoten laguntzeko gaude"

Eguaztenetan eskaintzen da zerbitzua Oñatin

**O.E.** | OÑATI

Debagoieneko Mankomunitateko Orientazio Zerbitzuko Zuriñe Galartzak astean behin eskaintzen du zerbitzu hori Oñatin, Udaleko Enplegu Sailaren bulegoetan, Bidebarrieta kalean. Lana bilatzen laguntzea du helburu.


Zuriñe Galartza. | MANKOMUNITATEA

**Hamahiru hilabete hauetan, zenbat oñatiar etorri dira zuregana laguntza eske? Zein da balorazioa?**

Guztira, 61 pertsona etorri dira. Egia esan, hasieran, erantzun handia izan zuen, bai Lanbidek erabiltzaileak bideratzen zituelako eta baita herritar askok izena eman zutelako. Urteko bigarren seihilekoa lasaiagoa izan da, ordea.

**Zeren bila etorri dira?**

Batez ere, lanbideratzeko tresnen bila, betikoak: nola bilatu enpresak norberaren curriculuma eramateko, curriculuma nola egin, elkarrizketari nola aurre egin... Baina curriculum erakargarri bat lortzeko garrantzitsuena da: autoezagutza –zer nahi duen bakoitzak, zer lan-gaitasun dauzkan–, zer-nolako lana bilatzen duen –helburu profesionala– eta lan merkatuaren analisi bat egitea. Horrelako informazioarekin, curriculum pertsonalizatuagoa egin daiteke, eta ez du zerikusirik Internetetik ateratako edozein eredurekin.

**Zein da herritar horien profila?**

Batez ere, langabea. Langabe horren hiru profil ditugu: gaztea eta ikasketaduna, 40 urtetik gorakoa eta bere profila hobetu nahi duena lan merkatuari egokitzeko, eta ikasketa gabekoak –gazteak edo helduak.

**Zertan laguntzen diezue?**

Erabiltzaile bakoitzak sortzen eta jorratzen du bere prozesua, hori da garrantzitsuena, hura dela prozesuaren arduraduna, eta hori lehenengo ikasketa da eurentzat. Gu hemen gaude laguntzeko, hau guztia definitzen laguntzeko, tresnak eskaintzeko, baina egin beharreko lana erabiltzailearena da. Honen guztionen azken helburua da ikasitako tresnak erabiliz erabiltzailea aktiboa mantentzea euren lan bilaketaren prozesuan, eta autonomoa izatea bai prozesu honetan eta baita bizitzako edozein prozesutan ere.

**Tailerrak ere antolatzen dituzue, ezta? Martxoan egongo dira?**

Bai, tailerrak ere egiten ditugu eta martxorako, adibidez, bi antolatu ditugu: Linkedin eta sare sozialak. Lehenengoa martxoaren 23an izango da, eta Linkedin bat nola sortu, oinarrizko atalak zeintzuk diren eta edukiak nola sortu erakutsiko dugu. Bigarrena 24an izango da eta, hain zuzen, sare sozialen erabilpenaren ingurukoa izango da.

**Zer egin behar du lan orientazioa behar duen herritarrak?**

Debagoieneko Mankomunitatera deituz (943 79 30 90) eta hitzordua hartzerakoan aipatuz Oñatikoa dela; besterik ez.

# Leintz bailarako oñatiarrak berriz elkartuko dira

Martxoaren 7an egingo dute bazkaria Arrasaten eta oraindik badago aukera izena emateko


Joan den urtean Arrasaten atera zuten argazkia. | ANTONIO MURILLO

**O.E.** | OÑATI

Leintz bailaran bizi diren oñatiarrak berriz elkartuko dira elkarrekin bazkaltzeko. Joan den urtean antolatu zuten lehenengo aldiz, eta, izan zuen arrakasta eta elkarrekin afaltzen izan zuten giro ona ikusita, berriz egitea pentsatu dute.

Arrasateko elkarte gastronomiko baten elkartu ziren joan den urtean. 50 lagun elkartu ziren afaltzeko, eta aurten, jatetxe batean egitea pentsatu dute, iaz beste, behintzat, elkartuko direla pentsatuta. Hala, Arrasateko batzokian egingo dute bazkaria, martxoaren 7an, 14:30ean. Ordubete lehenengo Kajoi tabernan elkartuko dira luntxerako, eta bazkaltzera joan aurretik talde argazkia aterako dute. Joan gura duenak Arrasateko Ederra tabernan eman behar du izena. Prezioa 40 euro da.

## Gazteek lokaletan egiten dutenari buruzko kezka

**O.E.** | OÑATI

Gazte lokalen azterketa egiteko bidean, dagoeneko bost bilera egin dituzte eta gaiarekin lotura duten guztiekin elkartu da Udala. Gurasoen artean azaldutako kezka nagusietako bat izan da gazteek zer egiten ote duten lokaletan. Eta horri erantzuteko, bi aditu izango dira zapatuan, 10:30ean, gaztelekuan: Benjamin Tejeria eta Diego Carbajo soziologoak. Hiru orduko tailerra eskainiko dute.

## Martxoaren 8rako egitarau zabala prestatu dute

**O.E.** | OÑATI

Egueneko zineklubeko *Violette* filmarekin emango diote hasiera Oñatiko sare feministak Martxoaren 8rako antolatu duen egitarauari. Zapatuan, Sortzintxika herri lasterketa egingo dute, korrika, oinez, patinetan zein bizikletan. Ondoren, omenaldia egingo diete etxeko emakumeei eta emakume entrenatzaileei. Martxoaren 8an elkarretaratzea eta bazkaria izango dira.

## Tabakoari buruz informatuko dituzte gazteak

**O.E.** | OÑATI

Gazteei tabakoari buruzko informazioa emateko ekimena egingo du datorren hilean Oñatiko osasun etxeak. Hain zuzen ere, anbulatorioko bi erizain herriko ikastetxeetara joango dira gazteei tabakoari buruz berba egitera eta haren arriskuez eta ondorioez informatzera.

Gazteek aukera izango dute euren kezkak zuzenean osasun zerbitzuko adituei helarazteko.

**NIRE USTEZ**


**XABIER ETXEBARRIA**

## Etorkinak, turistak eta patroiak

Hil hasieran Oñatiko gaztetxean Putan Club taldearen kontzertua egon zen. Italiar eta grantziar jatorriko bikoteak beraien musika eta eszenaratzearekin gure gorputz eta zentzumenetan kristoren ostia eman baziguten ere, atentzioa eman zidan beste kontu batez aritu nahi nuke.

Taldeak ohiko salmenta postua jarri zuen eta bertan zegoen kamiseta bat bereziki gustatu zitzaidan. Kamisetan *Immigrants welcome, tourist go home, patriots fuck of* irakur zitekeen. Lelo ederra. Krisiaren ondorioei probetxua atera nahi eta gure indarra salbu, ezer ez dugunoi, elkarren aurka jarriz, etorkinen aurkako giroa sortu nahi duten hipokriten aurrean elkartasuna.

Turismoa salbazio ekonomikoaren giltzetako bat bezala saltzen diguten garaiotan, espekulazioaren bitartez aberastasuna esku gutxi batzuetan pilatzea, herritarron gehiengoaren bizi eta lan baldintzen prekarietatea eta ama lurraren ustiapena dakarrelako, turistei begirako herri ereduei aurre egin.

Eta azkenik, datorren tokitik datorrela patriota txobinistei kaka burutik behera. Beraien aberri handiaren izenean mundu osotik gerrak besterik sortzen ez duten horiei mespretxu guztia. Guztiaren aurka ari garela diotenentzat, gure herriak bertan bizi eta lan egin nahi dugunontzat izan daitezela.

**"Bertan bizi eta lan egin nahi dugunontzat izan daitezela"**

### Aingirei eta angulei buruzko hitzaldia kultura etxean

Natur Eskolak antolatu duen ingurumen hamabostaldiaren barruan, *Aingira espezie mehatxatua eta angulak arrandegian; nola liteke?* hitzaldia egingo du martitzenean, 19:00etan, Estibalitz Diaz biologoak. Eguaztenean, berriz, *Iraunkortasunerako, trantsizioa* izango da Iñaki Antiguedad katedradunak egingo duen hitzaldiaren izenburua.

### Trikibonbo taldeak Portu tabernan joko du gaur

Jose de Azpiazu musika eskolako Trikibonbo taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, 19:30ean, Portu tabernan. Taldeko bost kideak agertzen dira kontzertua iragartzen duen kartelean, makilak, eskusoinuak eta panderoak eskuetan dituztela. Herritar guztiak gonbidatu gura dituzte eurak entzutera.

### Era askotako aplikazioak nola erabili, KZgunean

Era askotako aplikazioak nola erabili eta zertarako erakutsiko dute, besteak, beste, KZgunean martxoan. Adibidez, irudiarekin eta soinuarekin lotura duten aplikazioak landuko dituzte. Sare sozialei eta Interneten oinarrizko ezagutzari buruzko ikastaroak ere antolatu dituzte. Izena emateko: 943 02 36 72.

### Nafarroako olioa erosteko aukera dago, jatorrizko prezioan

Errigorak Nafarroako ekoizlearen jatorrizko prezioan eskaintzen ditu hango produktuak, eta, udazkeneko kanpainaren ondoren, Eskutik Eskura ekimena abiatu dute orain. Hala, Nafarroa hegoaldeko olio birjina erosteko aukera egongo da Oñatin. Martxoaren 4ra arte egin daitezke eskaerak, kultura etxean.

### Maitasun istorio bati buruzko antzezlana domekan Santa Anan

Heriotzaz harago doan maitasun istorio bat da *Maitasunaren ostean, maitasuna* antzezlana. Ados Teatroaren ekoizpen berri hori Garbi Losada autore eta zuzendariaren eta Dora Salazar artistaren plastikoaren arteko elkarlanaren emaitza da. Domekan antzeztuko dute, Santa Anan, 19:30ean.

# Ruper Ordorika: "Ray zorrotza eta kritikoa da; oso maitatua da Habanan

## Ray Fernandez musikariak Euskal Herrian lehen zuzenekoa emango du

**MAIDER ARREGI** | OÑATI

Ondo gogoratzen du Ruper Ordorika musikari oñatiarrak Ray Fernandez musikariarekin eta Bladimir Zamora idazlearekin batera emandako zuzenekoak Kuban. "Oso aberasgarria izan zen. Bladimir poeta benetan interesgarria da eta Ray kantari handia da", azaldu du Ruper Ordorikak. "Kubako iraultzarekin lotuta, Silvio Rodriguez eta Pablo Milanes hartzen ditugu kontuan. Ray, aldiz, beste belaunaldi batekoa da eta badauka hanka bat ondo jarrita hango kantu zaharrean ere. Kantu oso erritmikoak egiten ditu; herrikoiagoak".

Ordorikak gizon apala dela azpimarratzen du. Baina egunerokoan oinarritutako kantu kritikoak eta zorrotzak egiten dituela. "Ez du bere burua intelektual moduan erakusten, baina badu begirada zorrotza; oso ondo errotua han. Umoretsua ere badela uste dut", dio Ordorikak.

Jarraitzaile asko dituela Habanan eta oso maitatua dela ere badio musikari oñatiarrak. "Zapatuko zuzenekoak mereziko du; ez dut bere taldea ezagutzen; joango naiz, bai, kontzertura".



Ray Fernandez musikari kubatarra. | IÑAKI MENDIZABAL

### Kubako trobadorea

Euskal Herria asko maite duen arren, Ray Frenandez lehen aldiz dator eta lehen zuzenekoa emango du, gainera. Otsailaren 28an gaztelekuan izango da Kubako trobadorearen doinu herrikoiak entzuteko aukera, 22:30ean hasita. Kubatarraren abestien letrak bereziak dira eta haren ahotsa apartekoa. Abesterakoan erakusten duen indarra ahaztu ezinekoa askoren esanetan. Gainera, Ray Fernandezekin musikari onak datoz. Haren erritmo bizi eta inprobisazio senera ondo ohitutakoak dira: Miguel Alejandro Valdes baxu-jotzailea, Roylan Carballosa perkusioan eta Lorenzo Molina tronpeta-jotzailea.

Habanan bizi diren euskaldunek musikariaren adiskidetasunaz gozatzeko zortea dute aspalditik. Baina, Habanaraino joan ezin direnak, Euskal Herrian zuzenean ikusi eta haren abestiez gozatzeko aukera ezin hobea dute bihar, zapatua.

Kuban zer pasatzen den eta hango errealitatea gerturatuko du kubatarrak bere zuzenekoan.

**ESANAK**

**"Herrikoak eta erritmodun kantuak egiten ditu; oinarria Kubako kantu zaharrean du**

**"Zorrotza eta umoretsua da; gizon apala. Biharko zuzenekora joango naiz"**

**RUPER ORDORIKA** | MUSIKARIA

# Musika eskolako bederatzi ikasle piano jaialdian izango dira bihar

**M.A.** | OÑATI

Andoaingo X. piano jaialdia egingo dute aste bukaeran: otsailaren 28an eta martxoaren 1ean. Jose de Azpiazu Musika Eskolako bederatzi ikasle ere bertan izango dira.

A kategorian, Izar Diaz, Anje Maiztegi, Naroa Martirena, Unai Pedrosa eta Ana Belen Ferrero ikasleak arituko dira Ainhoa Galdos irakaslearen begiradapean.

B kategorian, aldiz, Marta Igartzabal bakarka arituko da. Eta Unai Agirrek eta Asier Berreteagak lau eskutara eskainiriko pieza joko dute.

C kategorian, Sara Mantxolak parte hartuko du. Guztiak ere, Araceli Guridi irakaslearen laguntzarekin.

### Askotariko doinuak

Erritmo alaiak, lasaiak eta klasikoak entzungai izango dira oñatiarren eskutik. *Summer rain, Shining, Michel,* eta *Boggie* dira A kategoriako ikasleek eskainiko dituzten piezak.

B eta C kategorietakoek doinu biziagoak eskainiko dituzte eta publikoaren artean ezagunagoak izango direnak. Besteak beste, Pachelbel musikari arrakastatsuaren *Canon* piezak eta C. Norton-en *Camptown races* abesti ezagunak publikoa dantzan jarriko dute asteburuan Andoainen.



Andoaingo jaialdian izango diren oñatiarrak. | JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA

# Pako Aristik emango dio hasiera martxoko egitarauari domekan

## Askotariko musika, bertsoak eta dokumental emanaldiak izango dira

**KOMUNITATEA GOIENA** | ANTIXENA GAZTETXEA | OÑATI

Martxoaren 8aren harira, egun osoko egitaraua prestatu dugu. Emakumeen Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko, elkarretaratzea eta bazkaria egingo dira, besteak beste. Martxoaren 13an, aldiz, bertso afaria izango da. Urko Arregi oñatiarra, Aratz Igartzabal, Txaber Ormazabal eta Aitor Bizkarra arituko dira bertsotan. Txartelak Ona, Arrano eta gaztetxean salgai dituzue.

Estilo askotariko musika entzungai izango da; besteak beste, Tania de Sousak *Tania Tank* pop-rock diskoa aurkeztuko du martxoaren 14an. Hardcore basatiarendako tokia ere badago Antixenan, DROP!, Bullets of Misery eta Highkick taldeek zuzeneko gogorra eskainiko dute-eta martxoaren 28an.



Tania de Sousa abeslariaren promozio argazkia. | O.ASO / EDIZIOA: M.ANTERO

Film emanaldiei dagokienez, *RAF Facción del Ejército Rojo*, *Las uvas de la ira* eta Josu Mugurutza HBko kidearen bizitzari buruzkoa den *Zohardia* filmak izango dira ikusgai.

Martxoaren 20an, Susana Arregi nor zen gogorarazten duen dokumentala eskainiko da. Arregi hil zutenetik 25 urte pasa dira eta jasotako gertakariak kontatzen dira bertan.

Korrika ere badator; hala, martxoaren 21ean, 100 lagunendako bazkaria egingo da. Txartelak Ona, Arrano eta gaztetxean salgai. Egun horretan musika ere ez da faltako. OSSO eta Backbone taldeen zuzenekoaz gozatzeko aukera izango da. Eta martxoaren 23an Korrika pasako da herritik; gaztetxekook gure kilometroa izango dugu. Ondoren, txokolate-jana egongo da Antixenan.

### Asteburuan poema errezitaldiak

Antixena gaztetxean bi poema errezitaldi entzuteko aukera izango da. Gaur, egubakoitza, Markel Ormazabal eta Oier Guillan preso ohiek, espetxean bizitako esperientzian oinarrituta, musikatutako poesia emanaldia eskainiko dute, 20:00etan hasita. Martxoaren 1wan, domeka, Pako Aristik, *Urari ostutako poemak* izeneko errezitaldi saioa eskainiko du, 18:00etan hasita.

# Kontuak orekatu eta 'proiektu izarrak' garatzeko aurrekontua

- 21 milioi eta erdi euro izango ditu aurten Udalak
- Arduradunek aurrekontu orekatua dela diote
- Gobernuak alde bozkatu du, eta oposizioak kontra

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran 2014rako udal aurrekontuak onartu zituen udalbatzak. Aurrekontuak Udal Gobernuaren babesa izan zuen eta EAJ nahi PSE-EE alderdien kontrako botoak jaso zituen.

Bergarako Udalaren aurrekontua 18.164 euro handitu da: guztira, 21.589.815 euro. Aurrekontu bateratua, Udalaren menpe dauden erakundeak –Udal Euskaltegia, Biharginza eta Mizpirualde egoitza– kontuan hartzen dituena, aldiz, 24.948.143 euro izango da. Lauri Askargorta Ogasun zinegotziaren arabera, Udalak aurreko urteetan egindako esfortzuei esker sakon landutako aurrekontu orekatuak dira.


Jaione Isazelaia alkatea eta Ogasun zinegotzi Lauri Askargorta. | IMANOL GALLEGO

Oposizioak, baina, ez du aurrekontua berdin ikusten, eta zenbakiak orekatuta daudela onartu arren, lehentasun bakarra atez ateko hondakin bilketa sistema ezartzea dela uste du. "Aurrekontua udal batek duen tresna garrantzitsuena da eta ongi planifikatu beharra dago. Gobernu honek ez du horrelakorik egin eta bergararren beharrak ez dira bertan ageri", esan du bozeramaile jeltzale Aintzane Oiarbidek.

Jaione Isazelaia alkateak hori gezurtatu du: "Herritarrekin egindako Plan Estrategikoan zehaztutako norabideak markatutako ekintzak martxan jarri ditugu". Eta gehitu du: "Hori lortzeko, lau urtetako kudeaketa arduratsu eta efizientea bultzatu dugu".

### Proiektu nagusiak

Inbertsioen partidan ere udalbatza ez da adostasunera iritsi. Ogasun zinegotzi Lauri Askargortak agintaldia bukatu aurretik martxan jarriko dituzten proiektuak zerrendatu zituen astelehenean. Eta, haren ostean, bozeramaile jeltzaleak "kea saldu" eta argazkian agertzea baino ez dutela nahi esan zien Bilduko zinegotziei.

"Gobernuak proiektu izarrak diren horietako partidak ez dauzka bermatuta", esan zuen Oiarbidek. Askargortak ez zuen hori onartu eta aurtengo nahiz pasa den urteetatik datozen partideí esker Laboratorium museoa eta Errege Seminarioko askotariko kultura erabilerarako aretoa egingo direla azaldu zuen. Hori guztia agintaldian zehar egindako aurrezpen lanei eta zuhurtziaz jokatutako erabakiei esker posible dela esan zuen.

### Kontratazioen eztabaida

Gobernu taldeak egin nahi dituen kontratazioek ere sortu zuten eztabaida. Udalaren asmora sei pertsona kontratatzea bazen ere, osoko bilkuran aldaketa bat egin zuten. "Ekainean irekiko den museoaren premiei erantzuteko Udalak sei langile berri kontratatu beharrean bost langile kontratatuko dira", esan zuen Askargortak. Oposizioarendako, aldaketak Gobernuaren arinkeria eta inprobisazioa baino ez du adierazten. Horrez gain, eta kontu-hartzailearen txostena aipatuz, legez kanpoko kontratazioak direla azaldu zuen zinegotzi jeltzaleak. Askargortak premiazko kontratazioak direla erantzun zuen eta horietako prozesu batzuk martxan daudela gehitu zuen.

Aurrekontuak gobernu taldearen hamar botorekin eta PSE-EEren eta EAJren kontrako bost botorekin egin zuen aurrera.

**JAIONE ISAZELAIA** | ALKATEA

## "Ez dugu kerik saldu, errealitatea baizik"

Agintaldiko azken aurrekontua izan da hau, eta Jaione Isazelaia alkateak herritarrekin batera agintaldian zehar ezarritako proiektuak garatu dituen sentipena dauka.

**Nola definituko zenuke aurrekontua?**

Orekatua dela esango nuke. Aurreko agintaldiko joerari jarraituz, Udalaren egoera finantzarioa hobetzea eta aurkitu duguna baino egoera hobean uztea izan da Udal Gobernuaren helburuetako bat. Krisiaren ondorioz baliabideak modu nabarmenean jaitsi dira, eta aurrekontua aurrera ateratzea ariketa zaila izan da. Azpimarratu behar da Udalaren zor bizia 2011tik 2014ra ia bi milioi (1.921.204 euro) jaistea lortu dela. Une honetan Bergarako Udalak duen zorra Gipuzkoako udalen batez bestekoaren azpitik dago.


I.G.

**"Pertsonal gastuen igoera % 8,63koa da eta ez % 40koa"**

**Nola egin duzue hori?**

Kontsumoak murrizteko eta gastua arrazionalizatzeko ahalegin handia egin da. Agorrosinen egindako inbertsioei esker kontsumoak murriztu dira. Aurten soberan geratzen den urarekin futbol zelaia ureztatuko dute, eta kaleak garbitzeko ere ur-hargune bat jarriko da. Aseguruen kontratazioan ere jaitsiera handia lortu dugu.

**Pertsonal Sailean egindako igoera gogor kritikatua izan da.**

Pertsonal gastuetan %3,2ko igoera aurreikusten da 2015eko aurrekontuetan. Igoera begetatiboaz gain, derrigorrez kontratazio berri batzuk egin behar direlako; hala ere, nabarmendu nahiko genuke udal langileen soldatek, legeak horrela derrigortuta, izoztuta jarraitzen dutela. Honen inguruan udal langileek egindako lana aitortu eta eskertu nahi genuke. Oro har, agintaldi honetan pertsonal gastuen igoera % 8,63 izan da, inondik inora EAJk dioen %40.

**Hortaz, igoera egon da.**

Noski. Aurreko agintaldian Udalak azpikontratatuta zituen zerbitzuak, kale-garbiketa eta ur-zerbitzua hain zuzen ere, bereganatu zituen, horrela lehen azpikontratari ordaintzen zitzaiona zuzenean ordainduta. Denborak argi erakutsi du aldaketa honekin zerbitzua hobetu egin dela, baliabideak aurreztu egiten direla eta langileak lan baldintza duinagoetan daudela.

**Hondakin bilketaren partida ere oso kritikatua izan da.**

Hondakinen bilketaren inguruan adierazi beharra dago oraingo sistema aurrekoa baino askoz efizienteagoa dela. Hondakin bilketa beti izan da defizitarioa; adibidez, 2005eko defizita 307.418 euro izan zen, eta hondakin kopuru handiena zabortegira bideratzen zen. 2015erako 373.110 euroko defizita aurreikusten da, bilketa sistema aldatu aurretik 278.397 eurokoa zen aldea. Defizita handitu bada ere, kontuan izan behar da bilketa modu efizienteagoan egiten dela; izan ere, orain frakzio bat gehiago jasotzen da, eta birziklatzen den hondakin kopurua %81,6ra iritsi da.

**Oposizioak dio "kea saltzen" duzuela; horrekin bat zatoz?**

2014ko memorian jaso ziren udal honek azken urtean bideratu dituen ekintza guztiak, hori ez da kea, errealitatea baizik. Bestalde, adierazi nahi dugu oposizioari parte hartzeko aukerak eman zaizkiola, bilera guztietara gonbidatuak izan dira eta ez dute proposamen eraikitzaile bakar bat ere egin lau urte hauetan, ezezkoak eta kritika suntsitzaileak besterik ez ditugu jaso. Laboratorium museo proiektua martxan jartzeko 2013 eta 2014an zehar inbertsioak egiteko 381.061,86 euro bideratu dira, eta aurten 34.000 euroko partida bat dago. Seminarioko aretoko obrak egiteko iazko aurrekontuetatik 800.000 euro dauzkagu gordeta eta aurtengo aurrekontuetan beste 300.000 euroko partida bat gehituko diogu.

### AURTENGO AURREKONTUAK SAILKA

| SAILAK | GASTUAK 2014 | %2014 | GASTUAK 2015 | % 2015 |
|---|---|---|---|---|
| **Pertsonala** | 7.217.026,00 | 33,5 | 7.447.512,00 | 34,5 |
| **Ondasun arruntak** | 7.375.759,00 | 34,2 | 7.348.015,00 | 34,0 |
| **Interesak** | 183.301,00 | 0,8 | 189.501,00 | 0,9 |
| **Transferentzia arruntak** | 2.176.990,00 | 10,1 | 2.378.703,00 | 11,0 |
| **Inbertsioak** | 2.427.915,00 | 11,3 | 1.708.924,00 | 7,9 |
| **Kapital transferentzia** | 564.480,00 | 2,6 | 890.980,00 | -4,1 |
| **Finantzaketa aktiboa** | 275.100,00 | 1,3 | 275.100,00 | 1,3 |
| **Finantzaketa pasiboa** | 1.351.080,00 | 6,3 | 1.351.080,00 | 6,3 |
| **GUZTIRA** | **21.571.651** | **100** | **21.589.815** | **100** |

**MARI CARMEN BARRENETXEA** | PSE-EE

## "Ezin da pertsonarik kontratatu "



Alderdi sozialistaren ustez, aurrekontua ez da batere erreala.

Krisi egoeran gauden arren, Udaleko Pertsonal Saileko gastuek nabarmen egin dute gora. Gainera, agintaldia bukatzeko bi hilabeteren faltan bost pertsona kontratatzearekin ez gatoz bat.

Horrez gain, atez ateko hondakin bilketak eta Agorrosinek eragiten duten defizita gero eta handiagoa da. Sozialisten ustez, tasa eta zergak igo beharrean, defizita bezalako gaiek lanketa sakona behar dute.

**Non daude inbertsioak?**
Partida hau izugarri murriztu da, eta, gure ikuspuntutik, errepide bat konpontzea edo mantentze-lanak inbertsio moduan sartu ezean ez dago ezer. Museoa eta Errege Seminarioko lanak ezin ditugu partida honetan sartu, oraindik ez baitago lan horiek ordaindu-ko dituen diru laguntzarik.

**AINTZANE OIARBIDE** | BERGARAKO EAJ

## "Bi urtetan milioitik gorako defizita sortu du atez atekoak"



Beste behin ere, gastu arruntaren gehitzea nagusitzen da, pertsonal gastuak handituz eta inbertsioetara dirurik bideratu gabe. Ustez proiektu garrantzitsuena denak, Seminarioko elizako erabilera askotariko aretoak, ez dauka diru partidarik eta, oraingoz, ezta diru laguntzarik ziurtatuta ere, kontu hartzaileak bere txostenean adierazten duen moduan; datu objektiboa, beraz.

**Industria sustatu**
Gure lehentasuna industria sustatzea da eta Udalak, alkatea buru, hori izan beharko luke helburu, lanpostuak sortzeko lan politikoa egitea, beste erakundeak inplikatuz eta inbertitzaileak bilatuz. Gobernuak ez du lau urte hauetako azterketa gainditu. Aurrekontu honetan, diru izendapen garrantzitsu bat sartzea eskatu dugu, baina ez da Gobernu honen lehentasuna, nonbait.

**Herriko mugikortasuna**
Guk egindako proposamen garrantzitsuenetako bat Bergarako aparkaleku egoera larria gainditzeko parkinga eraikitzea da, eta horretarako 150.000 euroko diru izendapena izango lukeen azterketa txostena egiteko proposamen zehatza egin dugu. Hau ere ez da lehentasuna Gobernu honentzat. Bada behin eta berriz egin dugun proposamena atez atekoa kendu eta bosgarren edukiontzia ipintzea. Joan den urtean 700.000 euro inguruko defizita sortu zuen atez atekoak, eta 2015eko aurrekontuan 400.000 euro inguruko defizita dago aurreikusia. Bi urtetan milioitik gorako defizita, zenbaki objektiboek esaten duten datua, nahiz eta Gobernuak hau estali nahi izan.

Eskualdearekin mugikortasun eraginkorra sortu nahi bada, bidegorri sarea ere bukatu beharra dago, inguruko herriekin lotura benetakoa izan dadin. Zortzi urtean zehar hainbat promes entzun ondoren, loturarik gabe jarraitzen dugu.

Aurrekontu honek eta agintaldi osoko Udal Gobernuaren kudeaketak ez du etorkizuna izango duen Bergararen proiekturik definitu. Zaborretan defizita sortu beharrean industria, merkataritza eta autonomoen aldeko politika ekonomikoak sustatzea premiazkoa da, eta aurrekontu honetan ez dago horretarako diru izendapenik.



Laboratorium museoa kokatuko den Errekalde jauregia. | GOIENA

## Laboratorium museoa ekainean

Laboratorium museo proiektua martxan jartzeko 2013an eta 2014an zehar inbertsioak egiteko 381.061,86 euro bideratu dituzte. Museoa ekainean irekiko den arren, martxotik aurrera bisita gidatuak antolatuko dituzte.



Aretoa, besteak beste, zinema moduan erabiliko dute. | GOIENA

## Kultura erabileretarako aretoa osatzen

Seminarioko aretoaren proiektua idazteko 36.300 euro bideratu dituzte. Horrez gain, obrak egiteko iazko aurrekontuetatik 800.000 euro daude gordeta eta aurtengo aurrekontuetan jarritako beste 300.000 euro gehituko zaizkio.



20 urte baino gehiagoko esperientzia inplantologian

CLINICA DENTAL BERGARA

Bidekurutzeta 36 BERGARA • Tel.: 943 76 05 77
www.clinicadentalbergara.es

*Kontsulta eta aurrekontua doan*
*Zure tratamendua finantzatzen dugu.*

Espezialitate bakoitzerako mediku-talde kualifikatua dugu

**ODONTOLOGIA**
A. Pastor doktorea
U. Artetxe doktorea
I. Goikoetxea doktorea

**ORTODONTZIA**
Y. Otero doktorea

**PERIODONTZIA**
I. Goikoetxea doktorea

**INPLANTOLOGIA**
F. Juarros doktorea
U. Artetxe doktorea

**ENDODONTZIA**
G. Campos doktorea

DKV • MAPFRE • IMQ/ADESLAS • SANTA LUCIA • EROSKI
OCASO • PREVISORA BILBAINA • ORBITA • ACUNSA • AEGON

RPS: 207/12

## Bidegorri sarea osatzeko bidean

Orain dela gutxi Bergara eta Elorregi arteko bidegorria zabaldu eta gero, Udalak herri barruko oinezkoen eta bizikleten zirkulazioa ordenatu nahi du. Herriko bidegorri sarea osatzen joateko, eta zirkulazioari konponbide berriak aurkitzeko, mugikortasun mahaia eratu da. Agintaldia bukatu aurretik, San Antonio auzoko, Dikarreko eta Poligonoko bidegorrien proiektuak idatzia lagatzea da Gobernuaren asmoa.



Azokaren atzealdean dagoen bidegorri zatia. | GOIENA

## Herriko arlo sozio-ekonomikoa

Industria garapena Eusko Jaurlaritzaren ardura den arren, 2015eko aurrekontuetan 165.000 euro onartu dira sozio-ekonomia arloan Udala bultzatzen ari den ekimenetarako (Berelan, Enpresare, Bergara Bizi-Bedelkar, ostalaritza, lehen sektorea, enplegu orientazioa...). Horretaz gain, beste 48.000 euro aurreikusita daude gazteen ekintzailetasuna sustatzea helburu duen prestakuntza programa berrirako.



Oxirondo biziberritzeko ekintza ugari egin dituzte. | GOIENA

## Saskibaloi taldeak bihar arratsaldean etxean eta azken-aurrekoen kontra jokatuko du partidua

Etxetik kanpo eta hogei puntuko aldearekin irabazi eta gero, saskibaloi taldeko jokalariek Labegaraietara gerturatzen diren zaleei beste garaipen bat eskaini nahi diete. Zapatukoak partidu erraza izan beharko luke, Andraitz taldea azken-aurreko postuan doa, eta ez litzateke aurkari zaila izan beharko. Hala ere, 18:00etan, etxekoei euren mailan jokatzea komeni zaie.

## Sailkapenean postu bat igotzeko moduko partidua jokatuko dute eskubaloi taldekoek etxean

Etxetik kanpo jokatutako partidua galdu eta gero, Bergara KE taldeak bihar, 16:00etan, eta etxean, porrot horren zaporea kitatzeko aukera izango du. Etxekoek sailkapenean postu bat gorago dagoen K2 Corazonistas BM taldea hartuko dute eta garaipenak balio bikoitza izan dezake, animoak jasotzeaz gain sailkapenean postu bat igotzeko balioko du-eta.

## Udal Pilotalekuak dituen itoginak direla-eta gaurko pilota partidua Antzuolan jokatu beharko dute

Udaberriko txapelketa herrian jokatzen den arren, gaur, nagusien mailako Bergara eta Antiguo arteko partidua Antzuolan jokatuko da, 20:00etan. Martitzenean (19:30) Soraluce lau t'erdi txapelketako finalerdiak jokatuko dira. Promesen mailan Bakaiko eta Zabala lehiatuko dira eta nagusien mailan Dorronsoro eta Errandonea. Partidu horiek ere, itoginengatik, tokiz alda daitezke.

## Rokodromoko txartela erabil dadila eskatu dute Pol-Pol mendizale taldeko eskalatzaileek

Eskalatzaile taldeak eta Udalak hitzarmena dute rokodromoaren erabilera arautzeko, eta, horretarako, erabiltzaileekiko betekizuna dago: txartela izatea. Pol-Polen bulegoan egin daiteke eta prezioa da 25 euro urtean, federatuentzat. Agorrosingo ohiko erabiltzaileek ez dute ordaindu beharrik, baina Pol-Pol mendizale taldetik azpimarratu dute haientzat ere beharrezkoa dela txartel hori eskuratu eta erabiltzea.





Astelehenetik Ostegunera: 09:30 > 12:00 / 15:30> 18:30
Ostirala: 09:30 > 18:30
Larunbata: 08:30> 12:30
Astelehen, Astearte eta Asteazkenetan %20ko eskaintza
Ostegunetan %20ko eskaintza (mutilak)

Jean Louis David

# Egitarau bateratua gertatu dute eragileek Martxoaren 8rako

Martxanterek, Gure Esku Dagok, Jardunek eta Udalak antolatuta, argazki lehiaketa, hitzaldiak eta bertso saio musikatua izango dira egunotan

**LEIRE KORTABARRIA** | BERGARA

Herriko zenbait eragileren eta Udalaren eskutik, Emakumearen Egunerako hainbat ekintza daude martxan. Eragile guztien egitasmoak bateratu eta egitarau bakarra antolatu dute denek. Hala, martxoaren 2tik 8ra bitartean, ia egunero izango dute herritarrek ekintzaren baten parte hartzeko aukera.

Urrian sortu zen Martxanterak talde feminista, eta argazki lehiaketa deitu dute; martxoaren 2ra arte har daiteke parte, emakumearen lanaren –ordaindutakoa zein ordaindu bakoa– gaineko argazkiekin eta, oro har, Emakumearen Egunean norberak ikusi nahiko lituzkeen argazkiekin. Helburua da ahalik eta jende gehienak parte hartzea. Honela dio Martxanterak taldeko Elena Eginok: "Edozeinek bidal ditzake argazkiak; eta inork ez dezala beldurrik izan, ez gabiltza-eta argazki profesionalen bila".

Martxoaren 8an, domeka, lanak ikusgai ipiniko dituzte San Martin plazan, eta luntxa emango dute.

Martxanteren eskutik ere, Txapa Irratiak antolatutako Tapoi Fest-en barruan, *Tomar el escenario* delako dokumentala eta mahai-ingurua izango dira, zapatuan, 17:00etan, Kartzela Zaharrean. Musika eszena independentean emakumeen papera aztertzen du lan horrek.

**Laguntzeko borondatea**

Euren burua aurkeztu zutenetik, bergararrek entzun dute Martxanterak taldearen izena eta ezagutu dute bere jarduera. Hala, Eginok dioenez, urtarrilean egin zuten autodefentsa feminista ikastaroak 20 lagunendako lekua zuen, baina 40 lagunek eman zuten izena, eta bigarren talde bat sortu behar izan zuten. Bestalde, "jende dezentek adierazi" die "laguntzeko" borondatea *Martxanterei*.

**Independentzia eta emakumea**

Martxoaren 2an eta 3an, areto bizikleta ikastaroetan emakumeek egindako eta emakumeen aldarrikapen abestiekin egindako saioak izango dira; eta 2tik 8ra bitartean, kiroldegian antolatutako ekintzen partaidetzaren inguruko informazio-panelen erakusketa izango da: sexuka antolatutako partaidetzaren datuak, grafikak... Bi horiek Agorrosin Ekintza Gunean izango dira. Udalak antolatu du.

Gure Esku Dago lantaldeak hitzaldia antolatu du, hauxe: *Eskoziako herrialdeak erabakitzeko eskubidearen eta independentziaren inguruan bizitako prozesua emakumeen aldetik*. Aberdeen hiriko Women For Independence taldeko kide Gillian Martin-ek egingo du berbaldia. Martxoaren 3an, martitzena, izango da hori, Irizar Jauregian, 19:30ean.

Martxoaren 6an, egubakoitza, *Ez da kasualitatea* bertso-saio musikatua izango da, Zabalotegi aretoan, 20:00etan. Ekintza hori Udalak antolatu du. Eta hilaren 13an, Ainhoa Agirreazaldegik berbaldia egingo du: *Bertsolaritza, ikuspegi feminista bat* du izenburua. Irizar Jauregian izango da, 18:00etan. Jardunek antolatu du hitzaldi hori.

NIRE USTEZ



JON OLIVARES

## Sinetsi eta egin

Ausardia, zer da ba? Erosotasunetik irtenez gero norberaren segurtasuna azaldu behar da. Zer erraza den norberaren tokitik esku hartzea, norberaren figura erabat osatuta duen tokitik, espaziotik, bertan duen rola hartzea, onartua duen rolarekin jokatzea. Eta norberaren rola onartuta eta bertan gustura egonda erraza litzateke konfiantza izatea, segurtasunez jokatzea.

Urteen poderioz norberaren motxilan sartutako esperientziekin osatutako figura hori, norberak besteen laguntzaz osatu eta onartu duena, erosotasunaren barruan handia ikusten da. Baina, konfort horretatik haratago joaten bada? Hau da, konfiantzazko toki edo inguru horretatik irtenez gero? Auto-konfiantza gutxikoa izanda, besteen aurrean jartzerako orduan ez zara orain arte bezain eroso egoten, ez duzu zure buruarenganako konfiantza berdina. Ezagunean duzun ausardia hori desegin egiten da. Urteetan osatutako figura, segurtasun eta konfiantza hori bat-batean desagertu egiten da? EZ. Apika ezkutatu egiten da, baina ez utzi. Egin aurre ezezagunari konfiantzaz, ezagunean sortutakoa ez da hala nola sortu, ez dator hutsetik, lortutako figura zugandik sortutako zerbait da, zure barnetik irtendako gauzak dira guztiak, beraz sinetsi zure buruagan. Ingurukoak, gertukoak ematen dizuten segurtasun sentsazioa gorde, inguru ezezagun batean eduki ahal duzun segurtasun eza betetzeko.

**"Egin aurre ezezagunari konfiantzaz"**

# Lokatza ziklismo eskolako kideek aste honetan hasi dute denboraldia

Klubeko alebinen, infantilen eta gazteen taldeak aurkezteaz gain, martxoko egitaraua ere kalean da

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Eguaztenean, Bergarako, Elgetako eta Antzuolako zikloturistekin, ibilbide eta jarduera berriak proposatzeko bilerarekin hasi zuten denboraldia Lokatzakoek.

Lehen kontaktu horren ostean, eta pintxo-potearen giroa aprobetxatuz, eguenean, 20:00etan, Lokatzako alebin, infantil eta gazte taldeak aurkeztu zituzten Irala kalean. Lehen ekimenak ez ziren aurkezpenetara mugatu, eta Lokatzak dagoeneko prest dauka ekintza zerrenda.

**Hasiera domekan**

Lokatzako zikloturistek domekan abiaraziko dute irteera egutegia, Dorletako Amari lore eskaintza eginda. 09:00etan irtengo dira San Martin plazatik eta 10:15ean lore eskaintza egin eta talde argazkia aterako dute.

Gogoan izan behar da martxoaren 21ean ospatuko den Anoeta lau orduko jaiaren sarrerak Lokatzaren bidez eskura daitezkeela; egun berean izango den Uzarragako igoera eta 29ko Gorlako igoera ere prest dituzte.



Bergarako txirrindulari bat Uzarragako igoeran iaz. | GOIENA

### 'Mozkorra parregarri' operako sarrerak salgai daude

*Mozkorra parregarri* opera udaletxeko osoko bilkuren aretora bueltatuko da. Martxoaren 14an bi emanaldi egingo dira, 19:00etan eta 22:30ean, eta hurrengo biak egun bat geroago eskainiko dituzte, 16:30ean eta 19:30ean. Emanaldietako sarrerak, 18 euroren truke, kultura etxean, Pikuperen bulegoan eta Lazkano nahiz Lombide oinetako-dendetan eros daitezke. Gainera, *www.bergara.net* webgunean sarrerak erosteko esteka zuzena dago.

### Udal hauteskundeetan LAB sindikatuak gehiengoa lortu du

Udaleko langileek hauteskunde sindikalak egin zituzten martitzenean, eta LABek atera zuen gehiengoa, 69 bozka eta zortzi ordezkari; bigarren ESK izan da, 34 boto eta lau ordezkari; eta hirugarren ELA, 17 boto eta bi ordezkari. Hiru mahaitan banatuta egiten dira hauteskundeak Udalean: alde batetik, laboralak bi kolegiotan banatuta, espezialistak eta teknikariak eta, bestalde, funtzionarioen mahaia. Udaleko 184 langileetatik %71,2 eman zuten bozka.

# Tapoi-fest jaialdia izango da aste bukaeran

KOMUNITATEA GOIENA | JON LEIBAR
TXAPA IRRATIA | BERGARA

Txapa irratiko *Jar Itzazu Tapoiak Mesedez!* irratsaioak laugarren urtez Tapoi-fest jaialdia antolatu du. Urtero bezala, jaialdi horretan, hardcore eszenaren inguruan dabiltzan taldeak ekarriko ditugu bai Euskal Herritik, bai penintsulatik.

**Ostiralean hasita**

Bi eguneko festibala izango da eta, beste urteetan bezala, ostiral eta larunbata.

Egitaraua ondorengoa izango da: ostirala 27, gaueko hamarretatik aurrera, Drop! (Are-Mondra), Hilkar (Zarautz-Urretxu), Ernia (*Zaratazarautz*), Meltdown (Hernani) eta DJ Balza (Bergara).

**Dokumentala**

Larunbatean, hilak 28, arratsaldeko bostetan, *Tomar el escenario* dokumentalaren proiekzioa eta ondoren hizketaldia izango dira, Martxanteren eskutik.

Gaueko hamarretatik aurrera kontzertu gehiago izango dira, honako hauek: Sofa (Zarautz-Orio), Managaitz (*Zaratazarautz*), Accidente (Madril), Perras Salvajes (Madril); ondoren, gaba amaitzeko, DJs Pantxiñon ta Romano (Iruñea *neurona ta erdi*).

# Korrika batzordeak eman ditu lehen pausoak

**I.G.** | BERGARA

Korrika lagun banaketa aste honetan hasiko da, eta martxoaren 5ean eta 12an diru bilketa egingo dute. Datorren eguenean, Korrikaren arropa erosteko kutxa ibiltaria jarriko dute pintxo-pote garaian.

Martxoaren 12an, Irizar jauregian, musika, hitza eta margoa fusionatzen dituen Euskahaldun *jam session* jaia egingo dute, 20:30ean. Horrez gain, hasi dira martxoaren 23ko Korrika Txikia antolatzen.

Kilometroak hartu nahi dituzten herritarrek *korrika19debagoiena@gmail.com* helbidean egin dezakete eskaera. Batzordearen hurrengo bilera martxoaren 10ean izango da, 18:30ean, kultura etxean.

### EH Bilduk bihar aurkeztuko du hautagaien zerrenda

10:30ean Aranzadi Ikastolan egingo den batzar irekian, EH Bildu koalizioko kideek, herritarrekin batera, udal hauteskundeetako programa osatu eta hautagaien zerrenda eratzeko lantaldeak egingo dituzte. Zerrenda eratu eta gero, 13:00etan hautagai18 berrien aurkezpena egingo dute Telesforo Monzon plazan. Ondoren, luntxa egongo da.

# Beñat Herce: "Kudeaketa ekonomiko oso ona egin dugu, eta inbertsio asko"

## Udal hauteskundeetan ez dela aurkeztuko iragarri du eta pozik doa proiektu asko egin direlako "errealitate"

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Agintaldiaren balorazioa egin du Eskoriatzako alkate Beñat Hercek Goiena telebistako *Harira* saioan. Eta oso pozik agertu da lau urteotan herrian egindako inbertsioekin: "Garai gogorrean iritsi ginen, baina kudeaketa ekonomiko oso ona egin da, eta inbertsio asko egin ditugu: Jose Arana oinezkoendako lehenetsi, biribilgunea, kiroldegiko lanak, Zaldibar antzokia, San Pedro auzoko lanak… Esperotakoa baino askoz gehiago". Era berean, jakinarazi du ez dela hurrengo udal hauteskundeetara aurkeztuko.

**Santa Marine plaza estali**

Zaldibar antzokia izan da, hain zuzen, lau urteotako lanik garrantzitsuenetako bat, eta Herce pozik dago: "Kultura ekipamendua "behar-beharrezkoa zen herrian".

Jose Arana kalea oinezkoendako lehenetsi izanarekin herritarrak orokorrean pozik daudela esan du. Autobusaren ibilbidean eragin du horrek, baina argitu du Aldundiak autobus zerbitzu berria martxan jartzerakoan konponduko direla arazook. Bestalde, Santa Marine plaza estaltzeko proiektua aurten egingo dutela jakinarazi du, eta datorren urtean hasiko direla lanak: "Espazio babestua baina aldi berean irekia sortu gura dugu: herri bazkariak egiteko, kontzertuak…".

Atez ateko bilketak emandako emaitzekin oso pozik azaldu da. Eta Axtroki moneta abian jarrita herriko merkataritza bultzatu gura izan dutela argitu du.

| Urtarrila | Otsaila | Martxoa | Apirila | Maiatza | Ekaina | Uztaila | Abuztua | Iraila | Urria | Azaroa | Abendua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| %38,38 | %37,30 | %37,72 | %44,30 | %82,93 | %85,56 | %80,35 | %76,89 | %83,20 | %82,15 | %78,68 | %77,72 |




2014ko gaikako bilketaren datuak. | ESKORIATZAKO UDALA

### Gaikako bilketak "izugarrizko gorakada"

**Iazko gaikako bilketaren datuak eman ditu Udalak, eta pozik azaldu da atez ateko hondakin bilketa sistema jarri zenetik "izugarrizko gorakada izan duelako" gaikako bilketak. Eta diote Hondakinen Mahaiak adostutako kopuru minimoa, %70, "aise gainditu" dutela eskoriatzarrek. Oraindik ere sistema hobetzen dabiltza, eta horretarako, larrialdiguneko erabilera errazteko telefono bidezko sistema jarri dute martxan. 943 25 22 88 telefono zenbakira deitu behar da eta bertan emandako jarraibideak jarraitu.**

# Jose Luis Cantero izango da berriro sozialisten alkategaia

M.A. | ESKORIATZA



Jose Luis Cantero. | ALDERDI SOZIALISTA

Azken agintaldian zinegotzia den Jose Luis Cantero izango da udal hauteskundeetan ere PSE-EEren alkategai. 51 urte ditu eta Urretxukoa da. Abokatua da eta indarkeria matxistan, immigrazioan eta zuzenbide penalean dago espezializatua. "Gogotsu" dago lanean segitzeko.

Aldaketa behar duela Udaleko gobernu taldeak adierazi du Canterok. Haren ustez, Bilduren gobernuak kudeatu du gehiengoaren beharrak "kontuan hartu gabe" eta "iluntasunean".

Era berean, jakinarazi du atez ateko hondakin bilketa sistema kentzeko konpromisoa hartuko duela, eta horren ordez bosgarren edukiontzia jarri: "Eskoriatzako gehiengoaren aurka ezarri da eta, gainera, herritarrek ordainduko dute tasa bidez". Hala, Eskoriatza Garbia plataformari babes osoa eskaini dio.

Eta esan du udal kudeaketa oinarritu gura duela "elkarrizketan" eta "pluraltasunari zor zaion errespetuan" Bilduren "inposizio ereduaren" ordez.

## TXALOAK ETA TXISTUAK



GOIENA

### Zabortza "berriz ere" Apotzagan

**"Beste behin ere, lekuz kanpo dauden objektu hauek aurkitu ditugu Apotzagan; zureak badira, mesedez, pasa jasotzera", salatu du Apotzagako bizilagun batek, eta gaineratu: "Gustura asko azalduko dizugu gune garbien eta garbiguneen arteko ezberdintasunak zeintzuk diren eta non aurkitu ditzakezun bigarren gune horiek, horren behar oso handia duzula sumatzen dugu–eta".**

# Zaldibar antzokiaren erabilera arauak eta tasak zehaztu dituzte

## Martitzeneko osoko bilkuran onartu zituzten

T.MADINA/M.ALTUBE | ESKORIATZA

Martitzenean egin zuen udalbatzak ohiko osoko bilkura, eta Zaldibar antzokiaren ingurukoak izan ziren gai nagusienak.

Antzokiaren erabilerarako araudia onartu zuten aho batez. Zertarako eta nola erabili ahal izango den zehaztu dute, eta jaso ezingo dela jan eta edan, beste batzuen artean. "Instalakuntza ez da Udalarena, herriarena baizik, guztiok erabiltzeko, eta erabilera egokia izan dezan arau batzuk egon behar dute derrigorrean", jakinarazi du Beñat Herce alkateak. Hala arau-hausterik egonez gero zein ondorio izango diren jaso dituzte.

Eskoriatzako edozein elkartek eta taldek erabili ahal izango du antzokia, eta kanpokoen eskaerak zelan bideratu zehaztu dute. Erabileraren gaineko tasak ere onartu zituzten martitzenean. Udalak ez du ordaindu beharko, ezta Udalarekin hitzarmenak dituzten herriko elkarteek ere, eta irabazi asmorik gabeko elkarteek eta alderdi politikoek ere ez. Gainerakoek ordaindu egin beharko dute: "Ulertzen da irabazi asmoren bat egon daitekeela", zioen Hercek. Egun erdia izango da 300 euro eta egun osoa, 400 euro. Ohiko ordutegitik kanpo erabili gura dutenek orduko 30 euro gehiago ordainduko dituzte.

**Axtrokia herrian zabaltzen**

Axtrokiaren gainean ere jardun zuten. Hala, Axtroki dendarien elkarteko kide ez diren komertzioek ere erabili ahal izango dute tokiko moneta.

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta Martxoaren 8an, alderdi guztien artean adostutako erakunde adierazpena onartu zuten. Amuska emakumeen elkarteko kide batek bertan irakurri zuen adierazpen hori.

# Ekarpenak jasotzeko bilera du bihar EH Bilduk

M.A. | ESKORIATZA

Eskoriatzako EH Bilduk hurrengo lau urteetarako ekarpenak jasotzeko saioa antolatu du biharko, zapatua. Kultura etxean elkartuko dira, 11:00etan, eta, hiru atal nagusitan banatuta, puntuz puntu aztertuko dituzte gaiak.

"Erronka interesgarri eta aberasgarri asko ditugu esku artean, guztion artean aztertzeko", diote EH Bilduko kideek, eta gaineratu dute: "Hurrengo urtetan gauzatzeko lan ildoek garrantzi erabakigarria eduki dezakete. Herriaren garapen urbanistikoa plan orokor berriaren bidez, ingurumena defendatzen jarraitzea, gazteriari lehentasunezko lekua ematea…" Horiek eta gehiago landuko dituzte herritarrekin batera.

## NIRE USTEZ

JOKIN MERINO



# Bilgarri hutsala

Bistan da hauteskunde -ziklo garrantzitsua gerturatzen ari dela. Duela gutxi ireki zituen oihalak Eskoriatzan Zaldibar antzokiak: 1.600.000 eurotik gora –mantentze-lanak kontuan hartu barik– kostatu zaigun bilgarri hutsalak.

Alde batetik, badaude zenbait oinarrizko arrazoi azpiegitura honen kontra jartzeko: aurrekontu-gehiegikeria bat delako, ez datorrelako bat Udal Gobernuak sustatzen duen politika kultural eskasarekin, jada tankerako espazioak existitzen direlako herrian –Unibertsitatearekin hitzarmen bidez sinatutakoa, esaterako…

Eta bestalde, maila sakonagoan egin daitekeen irakurketa: proiektua eraikitzearen erabakiaren kalitate demokratiko eztabaidagarria –ez dena, noski, kafeina apur batekin konpontzen–, kulturaren beraren kontzepzio atzerakoia, gizarte-politikara bideratu ezin izan den behar besteko kopurua honen ondorioz –premiazkotzat jotzen dudan udal enplegu-plana bultzatzeko kasu…

Barka egidazue paralelismo pedanteegiak egiten baditut, baina Shakespeareren Rikardo III.aren askogura datorkit burura egun hauetan, gutxi batzuen –edo lagunarte baten, hobeto esanda– kapritxo arbitrarioetatik larregi urruntzen ez dena. "Zaldi bar! Zaldi bar! Zaldi bar nire erresumaren truke".

# Larraitz Ugarte: "Herritarren segurtasuna da gure helburu nagusia"

▶ Diputazioak Deskargako autobidearen harira herritarrei sortutako arazoei erantzuna eman die



Torresoroa bete egin zen Diputazioaren arrazoiak entzuteko. | MAIDER ARREGI

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Antzuolarrak haserre, oso kezkatuta eta nekatuta daude Deskarga-Antzuola autobideko lanekin. Eta orain, lanok eten izanak zer ekarriko duen beldur dira. Larraitz Ugartek, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako diputatuak, argi dauka herritarren segurtasuna bermatu gura duela Diputazioak. Horregatik, proiektu berria egingo dutela azaldu zieten martitzenean herritarrei. "Uste dugu, horrelako egoeren aurrean administrazioak azalpenak eman behar dituela. Legeari iruzur egin geniokeen eta obrari partxeak jartzen jarraitu. Baina, gero, obra hori horrela irekiko zen, eta guretzako ezinbestekoa da errepidean jendea lasai ibiltzea, seguru egotea", azaldu zuen Larraitz Ugartek.

**Proiektu bideragarria**

Bederatzi gunetan, aurreikusita ez zeuden lur-jausiak azaldu dira. Joseba Altubek, Bide Azpiegituretako zuzendariak, harkaitza eta buztina nahastuta daudela esan zuen. Horrek desegonkortasuna eragin duela eta era berean gainkarga ekonomikoa dakarrela. Proiektua ez zela bideragarria azpimarratu zuen.

Obraren %67 eginda dago, Ipurtika, Goizper eta Lapatzako zubibideak eginda daude-eta. Proiektu berriak, bideragarria izango denak, Bergarako bidegurutzeari irtenbide hobea emango dio eta mugimendu guztiak desbideratzeko biribilgune bat jasoko du. "Uda osterako proiektua eginda egongo da eta abendu eta urtarril artean hasiko dira lanak", zioen Ugartek.

**Herritarrei erantzuna**

Lanok guztiz bukatzean, Bergarainoko bidegorria egingo dela agindu zieten herritarrei Diputazioko ordezkariek. Zupideko biribilgunea ere laster egingo dutela gaineratu zuten. Herritarren eskaerei eta kexei erantzunez, futbol-zelairako bidea eta zenbait baserrietako sarrerak konponduko dituzte. "Lotsagarria da gure egoera. Dena lokaztuta edo hautsez beteta daukagu. Ardiak gosez eta etxetik irteteko zailtasunak ditugu", esan zuen Lekuberri baserriko bizilagunak.

Herritarrek kexak jartzeko bulegoa zabalik dutela eta Diputazioak erantzuna eman gura duela azpimarratu zuen.

Esan behar da autobidearen Urretxu-Antzuola zatia hil honen bukaeran zabaldu gura dutela.



**JOXEAN UGARTEBURU**
ANTZUOLA

"Arazoei aurre egin behar zaie, eta herritarrei erantzuna eman. Orain, ikusi egin behar ikerketarekin eta proiektuarekin lehenbailehen hasten ote diren. Izan ere, obra asko luzatu da eta jendea oso gogaituta dago".



**FLORENTINO LAMARIANO**
ANTZUOLA

"Hobe da ondo egitea eta garaiz zuzentzea akatsak; izan ere, presaka eginez gero, ondoren jasaten dira ondorioak. Baserrietan bizi diren zenbait beldur da obra asko luzatuko ote den, batzuek ganadua ere ezin dute-eta zelaira atera".

## Antzuolako 8 Miliak mendi lasterketako argazkiak ikusgai dituzue 'Goiena.eus'-en

KOMUNITATEA GOIENA |
ARROLA MENDI TALDEA | ANTZUOLA

Domekan, otsailak 22, jokatu zen Antzuolako 8 Miliak lasterketa. Arrola mendi taldeko kideak bertan izan ginen eta lasterketaren askotariko momentuak jaso genituen. Argazki galeria gura baduzue, ikusgai duzue komunitatean: *www.goiena.eus/komunitatea/arrolamenditaldea*.

Sareko argazki galerian irabazleekin osatutako podiuma, antolatzaileen lana eta parte-hartzaileen esfortzua dituzue jasota, besteak beste.




A8Mko parte-hartzailea. | JABI ETXANIZ

## Aisa programari esker, oinarri-oinarrizko euskara ikasteko izena eman daiteke martxoaren 19ra arte

Euskararekin harremanik izan ez duen edonorendako ikastaroa da Aisa. Hemengo gizartea, ohiturak, eta abar ezagutu eta euskara ikasteko lehenengo urratsak egiteko ikastaro aproposa da. Gizartea ezagutzeko aukera ematen duten hainbat gai motibagarri lantzen dira. Askotariko ariketei esker, hiztegia eta oinarrizko ulermena landuko dira. 60 orduko ikastaroa da eta astean bi egunetan eskainiko da. Interesa dutenek izena udaletxean edo liburutegian eman dezakete. Martxoaren 19ra arte dute.



EH BILDU

## Presoen eskubideen alde giza katea

Udalak, EH Bilduk eta *Ez dut moztuko bizarra!* taldeak deituta, giza katea egin zuten herritarrek. "Adierazpen askatasunaren aurkako beste eraso bat salatu nahi dugu, Espainiako Gobernuaren salaketari jarriki, Auzitegi Probintzialak udaletxeko balkoian dagoen kartela kentzeko agindu du-eta", azaldu dute.



EHMUS.EUS

## Euskal Herriko finalera bidean

Gorka Etxezarreta eta Mikel Lizaratzu antzuolarrek galdu egin zuten Zestoaren aurkako finalerdia. Hala ere, hirugarren postua lortu zuten. Horregatik, Xabi Arregi eta Igor Larrea bikotearekin batera, martxoaren 7an Lekeition jokatuko den Euskal Herriko finalean parte hartuko dute.

# Feminismoaren aldeko leloekin hasiko da martxoa

## Berdintasun Sailak iragarri du ekitaldi asko izango dela astelehenetik aurrera

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

*Feminismoarekin denok aurrera goaz!* leloarekin dator aurten Emakumeen Nazioarteko Eguna Aretxabaletara. Eta astelehenean hasi eta hilaren 13ra bitartean ekitaldi mordoa izango dira.

Hushe haranean (Pakistan) emakumeek bizi duten egoeraren berri ematen duen argazki erakusketak zabalduko du astea. Eta eguaztenean, hilaren 4an, Felix Iñurrategi Baltistan fundazioko kideak etorriko dira dokumentala eman eta solasaldian jarduteko.

Egubakoitzean, ostera, hetero-arauen gaineko kontuak landuko dituzte *Arrakalak* dokumentala ikusi eta gero.

Datorren zapatuan murala margotuko dute Ernaiko kideek lelo honekin: *Erratza eman ziguten, baina guk, hegan egiteko erabili genuen! Gora borroka feminista!* Eta lau bankuko plaza inauguratuko dute gero.

Martxoaren 8an, ostera, UDAk antolatutako frontenis txapelketaren finalak jokatuko dituzte eta urteroko agerraldia egingo dute gero plazan.



Telefono kabina iaz. | MIRARI ALTUBE

### EGITARAUA

**MARTXOAREN 2TIK 7RA**

**11:00-13:00 eta 18:00-20:00** Argazki erakusketa Arkupen: *Emakumeak Hushe haranean, Pakistanen*.

**MARTXOAK 3**

**19:15** Emakumezkoen goi mailako saskibaloi partidua, Ibarra kiroldegian: UPV–Araski.

**MARTXOAK 4**

**19:00** *Baltiar arima* dokumentalaren proiekzioa eta ondoren solasaldia; kideak: Inazio Arregi, Alberto Iñurrategi eta Txaro Otxandorena.

**MARTXOAK 6**

**19:00** *Arrakalak* dokumentalaren proiekzioa, eta ondoren solasaldia; kideak: Jone Arrazola eta Larraitz Arando. Eta gero mokadutxoa.

**MARTXOAK 7**

**10:00** Mural margotzea.

**10:00-19:00** Ixadebalde azoka, Mitarte kalean.

**12:00** Lau bankuko plazaren inaugurazio ekitaldia eta bankuak margotzea.

**19:30** *Fun Dantz!* ikuskizuna Ibarra kiroldegian.

**MARTXOAK 8**

**12:00** Emakumeen II. frontenis txapelketako finala, Iturrigorri pilotalekuan.

**13:00** Agerraldia Herriko Plazan: *Feminismoarekin denok aurrera goaz!*

**MARTXOAK 10**

**19:00** Antzezlana, Arkupen: *Prest gaude!* Lakrikun antzerki taldearekin (sarrera, 4 euro).

**MARTXOAK 13**

**19:00** *Martxoa* dantza ikuskizuna Jaiki elkartearekin, Arkupen.

# Asfaltoa botatzeko lanak hasi dituzte Otaloran

**M.A.** | ARETXABALETA

Astean hasi dira Otalora kalea konpontzen. Galtzada-harria kendu eta inprimatutako asfaltoarekin egokituko dute lau metroko zabalera duen bidea. 57.524 euroko aurrekontua dute lanek eta Probisa Vias y Obras SLU enpresak egingo ditu hilabeteko epean.

Ibilgailu asko pasatzen da egunero-egunero Otalora kaletik eta gurpilen presioaren ondorioz galtzada-harrien azpian dagoen morteroa desegin egiten da. Horrek sortu ditu salto txikiak, putzuak, hondoratzeak eta beste hainbat traba kalean. Eta egoera eskasean utzi du galtzada-harria dagoen kale tartea. Hala, Udalak erabaki du galtzada-harri itxuradun inprimatutako asfaltoa jartzea.

**Kalea itxita**

Lanok egiteko itxi egingo dute kale tarte hori, eta ibilgailuek, autobusak tartean, Txarapea ibilbidetik egingo dituzte joan-etorriak. Ondorioz, Errekabarren kaleko geltokia ezingo da erabili, eta kuartel parean eta Loramendi kalean bakarrik geratuko dira Arrasatetik datozen autobusak. Ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko Basabe bidea eta Durana kalea zabalik egongo dira 24 orduz.

# Azken parte-hartze saioa egingo du bihar EH Bilduk herritarrekin

**M.A.** | ARETXABALETA

Herri programa osatzen dabil EH Bildu eta *Aretxabaleta aldatzen (h)ari gara* leloarekin hainbat parte-hartze saio egin ditu astean. Bihar, zapatua, egingo dute azkenekoa, eta landuko dituzten gaiak dira: batetik, ongizatea eta berdintasuna; eta bestetik, garapen ekonomikoa. Bilerak EAko lokalean dira, Herriko Plazan, 10:00etan.

**Herritarrak animatu**

Orain arte jasotako herritarren ekarpenak gehiago zehazteko egin dituzte arloz arloko deialdiak, eta hamabost bat lagun elkartu dira astean. Astelehenean, esaterako, hirigintzaren eta ingurumenaren gainean jardun zuten eta ekarpen interesgarriak jaso zirela adierazi du Itsaso Pagoagak, EH Bilduko kideak: "Mugikortasun arloari dagozkion ekarpenak jaso ditugu, baita herriko berdeguneen berrantolaketari dagozkionak ere. Ingurumenaren kasuan, errekaren bi aldeen biziberritzea aipatu da".

Pagoagak herritarrak animatu gura ditu: "Ahalik eta programarik osatuena eta zehatzena egin gura dugu, eta iritzi eta ekarpen guztiak jaso".

## Korrikaren ekitaldien barruan martxoaren 13an egingo duten bertso afarirako txartelak salgai daude

Korrika batzordeak bertso afaria antolatu du martxoaren 13rako, egubakoitza. Uratz Alde elkartean egingo dute (21:00) eta Iñigo Mantzizidor *Mantxi* eta Fredi Paya bertsolari ezagunak gonbidatu dituzte bertara. Txartelak dagoeneko salgai dauzkate Gurea tabernan eta Loramendi elkartean; eta prezioa da 18 euro Loramendiko bazkideendako eta 20 euro gainerakoendako.

Bestetik, ogia egiten ikasteko eskola emango du Angel Akixuk, Loramendik antolatuta. Bi saio izango dira: martxoaren 7an eta 14an, Muru Alde elkartean (11:00-13:00). Izena emateko, Loramendira jo. Hona bideak: *loramendielkartea@gmail.com; eta* 943 77 09 70 eta 685 75 67 29. Azken eguna martxoaren 5a da.

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

## Osasun sailburu Jon Darponen hitzaldia dago gaur batzokian

*Euskal osasunaren egoera* izenburupean hitzaldia egingo du gaur, egubakoitza, 19:00etan, batzokian, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburu Jon Darponek.

*Aretxabaleta hazi arazi* leloarekin antolatutako ekimenaren barruan dago eta EAJko kideek iragarri dute saio irekia izango dela.

# Korrika girotzeko, haurrentzako jolasak eta kantu-bertso-poteo herrikoia gaur

## Korrika laguntzaile egiteko eta arropak saltzeko mahaia egongo da plazan

**KOMUNITATEA GOIENA** | KORRIKA BATZORDEA | ARETXABALETA

Hemeretzigarren Korrikaren etorrera girotzeko arratsalde berezia antolatu du gaurko Aretxabaletako Korrika batzordeak. Haurrek zein helduek gozatzeko ekintzak bilduko ditu arratsaldeak. Haurrek eta gaztetxoek jolaserako aukera izango dute Herriko Plazan, 17:30etik aurrera, ludotekaren eskutik. Leku berean hasiko da kantu-bertso-poteo herrikoia (19:30), kanturako gogoz diren herrikide guztiekin eta Lekaixoka bertso-eskolako kideekin. Bi ekintza horiez gainera, 17:30etik aurrera Korrikalagun egiteko eta Korrikako arropak saltzeko mahaia izango da plazan.

Urtarrilean hasi ziren elkartzen herriko hainbat eragile Korrika girotzekoak eta herrian Korrikari dagozkionak antolatzeko. Gaurkoa otsailean egingo duten ekintza nagusia izango da, baina martxoan, Aretxabaletatik Korrika pasatu arte, izango dira beste hainbat ekintza esanguratsu. Datozen egunotan aurkeztuko ditu martxorako asmoak Korrika batzordeak. Horiek antolatzen bat egiteko edota beste ekintza batzuk proposatu eta aurrera eramateko, batzordea erabat irekia da herriko eragile zein herrikideentzat.



Korrika batzordeko kideak martitzeneko batzarrean. | BEÑAT ZAMALLOA AKIZU

# 'Udaberriko Gaztekonkis' lehiaketa egingo dute martxoan nerabeen artean

Hilaren 30ean eta 31n izango dira probak eta izen-ematea zabalik dago

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

*Udaberriko Gaztekonkis* lehiaketa antolatu dute herriko gaztetxoendako, 12 eta 16 urte arteko neska-mutikoendako. Herriko hainbat eragilek bultzatu dute –Atxagazte gaztelekua, Arizmendi kirol elkartea, Udala eta Aretxabaleta kirol elkartea– eta asmoa da kirola egiteko hamaika modu daudela erakustea gaztetxoei. Bost laguneko taldeak behar dira, eta talde mistoek puntu gehiago jasoko dituzte. Izena emateko epea zabalik dago atzotik eta mezu bat bidali behar da Internet bidez. Azken eguna martxoaren 23a da.

**Probak, herrian eta mendian**

"Kirola egiteko ohitura nerabezaroan murriztu egiten dela ohartuta gaude eta horren aurrean kirola egiteko hamaika modu daudela erakutsi nahi diegu gazteei", diote antolatzaileek. Hala, kirola, aisialdia eta ohitura osasungarriak sustatu gura dituzte *Udaberriko Gaztekonkis*-ekin.

Lehiaketa martxoaren 30ean eta 31n jokatuko dute. Hilaren 30ean, astelehena, mendira joango dira jokatzera. Egun osoko saioa izango da (11:00-17:00) eta probak ibilbidean zehar egingo dituzte.

Martxoaren 31n, martitzena, ostera, herrian egingo dituzte probak. Goizean (11:00-13:00), hainbat kiroletan jardungo dute. Hona: hiruko saskibaloia, igeriketa proba, eskalada, errugbia, punteria ariketa eta abilezia zirkuitua. Eta arratsaldean (17:00-19:00) beste hainbatetan: herri krosa, herri kirolak, *zumba* eta merienda.

Talde onenek sariak izango dituzte: irabazleak, Laboral Kutxa taldearen saskibaloi partidu bat ikusteko sarrerak eta afaria; bigarrenak, izotz pistarako sarrerak eta afaria; eta talde eredugarriak, afaria.

## EMAKUMEEN II. FRONTENIS TXAPELKETA

### Final laurdenak eta finalerdiak

Frontenis txapelketa azken fasean sartu da. Bihar, zapatua, final laurdenak jokatuko dituzte Iturrigorri pilotalekuan, eta gero, domekan, partidu horietako txapeldunek elkarren aurka jardungo dute finalerdietan.

| LAUGARREN JARDUNALDIKO EMAITZAK | |
|---|---|
| Nagore Martin - Laura Saez / Amaia Bolinaga - Maite Txintxurreta | 25-4 |
| Larraitz Iñurrategi - Olatz Pagaldai / Oihana Irazu - Anabel Mondragon | 6-25 |
| Rosa Ojuel - Lore Martinez Axpe / Lur Delgado - Lierni Zangitu | 25-22 |
| Eneritz Ollobarren - Virginia Pando / Ariane Unanue - Ibone Arrieta | 13-25 |
| Miren Argi Zeziaga - Iratxe Bravo / Naiara Amezua - Anais Fernandez | 18-25 |
| Anabel Aranzadi - Marijo Bastardo / Urri Urizar - Miren Antxia | 16-25 |
| Oihana Mata - Leire Valle / Ainhoa Galfarsoro - Agurtzane Elkoro | 25-12 |

| OTSAILAREN 28KO PARTIDUAK | |
|---|---|
| 09:00 | Urri Urizar - Miren Antxia / Oihana Mata - Leire Valle |
| 09:30 | Oihana Irazu - Anabel Mondragon / Nagore Martin - Laura Saez |
| 11:30 | Maite Fraile - Maite Otxoa / Naiara Amezua - Anais Fernandez |
| 12:00 | Ariane Unanue - Ibone Arrieta / Rosa Ojuel - Lore Martinez Axpe |

# Arbizelai inguruan 200 zuhaitz landatzera joateko dei egin dute

M.A. | ARETXABALETA

*Arbizelain, 200 zuhaitz baietz!* erronkarekin zuhaitzak landatzera joateko dei egin dute Landaketa Taldeak, Loramendik eta Udalak. Bihar da landaketa, Arbizelai inguruan, Aretxabaleta eta Arrasate arteko mugan, errepidearen beste aldean.

Laguntzera joan gura duenak 10:00etan agertu behar du Mugarriko aparkalekuan (Lidl). Dena den, eskatu dute aurrez izena emateko, eguraldi txarragatik ekimena bertan behera geratzen bada abisua pasatzeko. Mezu bat bidali behar da helbide honetara: *landaketataldie@gmail.com*.



Zuhaitza landatzen joan den domekan. | MIRARI ALTUBE

## Zaintzailearen eguna ospatuko dute erretiratuek domekan

Urtero legez, zaindariaren eguna, Aingeru Guardakoa, ospatuko dute Basotxoko erretiratuek martxoaren 1ean, domeka. 11:30ean, meza izango dute parrokian; 12:15ean, salda hartuko dute Basotxoko tabernan; eta 14:00etan, bazkaltzeko elkartuko dira Arrasateko Sara jatetxean.



Zure bainuontzia kendu eta dutxa jartzen dizugu

EGUN BATEAN

hori guztia kalitate eta zerbitzu onena emanda.

Dei egiguzu konpromiso barik eta dituzun zalantza guztiak argituko dizkizugu.

SANER

Iturgintza, gasa, kalefakzioa eta eguzki-plaka termikoen instalazioa etxeko urarendako

Mitarte 5 behea - Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92 - ARETXABALETA

# Desadostasuna lan-poltsen kudeaketarako araudia dela eta

Bilduk aurka bozkatu du, eta abstenitu egin da hiru hitzarmenen kasuan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udalak martitzenean onartu zuen lan-poltsen kudeaketarako araudia. Bilduko ordezkariek kontra bozkatu zuten, langileen eskubideen babesari dagokionez hutsuneak ikusten dizkiotelako. Udal Gobernuak ordenantza lantzeko konpromisoa hartu zuen, baina bitartean sortzen diren egoerei aterabidea emateko eta araudiak langileen eskubideak jasotzen dituela azpimarratuta onartu egin zuten, jeltzaleen babesarekin.



Elgetako udalbatza martitzeneko osoko bilkuran. | L.Z.

**Hitzarmenetan desakordioa**

*Intxortako atea*-ko zelaia erabiltzeko hitzarmena sinatuko du Udalak Jarikotxo baserriko ordezkariarekin. Udalak 30 euro ordainduko ditu errekreazioa dela-eta egin ezingo duen belar bola bakoitzeko. Bildu abstenitu egin zen, "kuantifikazio abstraktua" dela argudiatuta. Abstenitu egin zen, baita ere, Udalak Intxorta 1937 kultura elkartearekin eta Herrixa Dantzan ekimenarekin sinatu gura dituen hitzarmenei dagokienez. Oposizioak zehaztasun handiagoa eskatzen du.

**Alberto Olalderen auzia**

Udalak 25.212,16 euro eskatu dizkio Olalderi eta 57.618,22 euro Gizarte Segurantzari. Olalderi 1993tik 2005era bitartean fakturatutako BEZagatik eta Gizarte Segurantzari epe horretan Udalak ordaindutako kuoten baturagatik.



L.Z.

## Erretiratuak tutean eta briskan

Tute eta briska txapelketak jokatu genituen eguaztenean Ozkarbi elkartean. Zortzi bikote aritu ziren briskan, eta irabazleak Antonia Elkorobarrutia eta Juanita Beretxinaga izan ziren. Tutean lau bikote aritu ginen, eta finala Patxi Bouzasek eta Carlos Fernandezek irabazi zuten.

KOMUNITATEA GOIENA
ERRETIRATUEN ELKARTEA | ELGETA

## OHARRAK

**PRESOEN ALDEKO ELKARRETARATZEA**

Hileko azken barikua izanik, elkarretaratzea gaur, 20:00etan, herriko plazan.

**MONOLOGOAK ESPALOIAN**

Queque monologista entzutetsua izango da gaur eta bihar Espaloia kafe antzokian. Ikus 32. orria.

**JORGE MURGIONDOREN ARGAZKIAK ESPALOIAN**

Ikusgai jarraitzen du Jorge Murgiondo bergararrak Espaloia kafe antzokian zintzilikatu duen argazki erakusketak. Indiako Rajhastan lurraldera egindako bidaian ateratako argazkiak dira asko.

## ARETO FUTBOL TXAPELKETA

**AZKEN EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Jaitxo-La Kokotxa | 6-3 |
| Astuan Villa-Txapela | 1-9 |
| Nahaste Borraste-Intxortas Crew | 14-3 |

**PARTIDUAK, 6. JARDUNALDIA**

Astuan Villa-Jaitxo

Txapela-Nahaste Borraste

**SAILKAPENA**

| TALDEA | P | GOLAK ALDE | GOLAK KONTRA |
|---|---|---|---|
| Txapela | 10 | 33 | 8 |
| Astuan Villa | 9 | 39 | 7 |
| Jaitxo | 7 | 32 | 13 |
| La Kokotxa | 7 | 40 | 23 |
| Nahaste Borraste | 6 | 25 | 24 |
| Tzibaz United | 4 | 20 | 25 |
| Intxortas Crew | 0 | 7 | 70 |

### Kantsatzeke mendi taldeak zortzi irteera iragarri ditu 2015erako; lehenengoa domekan egingo dute

Martxotik urrira bitartean egingo ditu irteerak Elgetako mendi taldeak. Lau Gipuzkoan egingo dituzte, bi Araban bat Bizkaian eta beste bat Nafarroan. Domekan, martxoak 1, Arabako Izki parke naturalean egingo dute mendi buelta. Bestetik, Udalak jakinarazi du martxoaren 15ean izango dela Finalista Eguna.

### Domekatik aurrera autobus zerbitzu gehiago izango dira Elgeta, Bergara eta Eibar artean

Goiz erdiko zerbitzu berria nabarmentzen da. Ordutegiak dira: astelehenetik zapatura, Bergara-Elgeta 11:30ean eta 21:40an; eta Elgeta-Bergara 11:45ean eta 21:55ean. Bestalde, astegunetan, Eibar-Elgeta 11:00etan eta Elgeta-Eibar 11:20an. Domeketan eta jaiegunetan zerbitzu horiek izango dira 11:40an eta 12:00etan.

### Familiei bereziki zuzendutako bisita gidatuak martxoaren 7an eta 8an; izen-ematea zabalik da

Memoria historikoaren euskal interpretazio zentroak bat egin du Foru Aldundiaren *Jolastera museora!* egitasmoarekin. Hala, martxoaren 7ko eta 8ko bisita gidatuak familiei zuzenduak izango dira, eta azalpenak haurrendako egokituak. Argibideetarako: *turismoa@elgeta.net*, 943 71 89 11 edo 943 79 64 63.

### Elgetako hamaika piano ikaslek hartuko dute parte, aste bukaeran, Andoaingo piano jaialdian

Bastero kultura etxean joko dute pianoa Nerea Canelok, Xabier Delgadok, Asier Alkortak, Jokin Zeziagak, Mikele Arkarazok, Maria Egizabalek, Lorea Gallastegik, Egoitz Mañarikuak, Kattalin Otxoak, Maialen Alkortak eta Paula Palaciosek.

KOMUNITATEA GOIENA
ELGETAKO MUSIKARIAK | ELGETA



ARAMAIO

Lierni Altuna | EH Bilduren alkategaia

# "Erronka handia bada ere, gogotsu nago egiteke geratu direnei heltzeko"

Aramaioko Alkartasuna EH Bildurekin aurkeztuko da udal hauteskundeetan, "hasiera baten"



EH Bilduren alkategai Lierni Altuna udaletxeko zinegotzien gelan. | J.B.

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Azken lau urteotan zinegotzi eta alkateorde izan ostean, Lierni Altunak (Aramaio, 1982) espero du orain arteko hartutako esperientzia horrek lagunduko diola alkate izendatzen badute erronka berriari aurre egiteko. Lehentasunak oraindik ez dituzte finkatu, herri programa "arloz arlo" lantzen dihardutelako. 2011ko udal hauteskundeetarako Aramaioko Alkartasuna bere aldetik aurkeztu bazen ere, aurten "hasierako asmoa" da batera aurkeztea.

**Gogotsu alkate izendatzen bazaituzte erronkari aurre egiteko?**

Gogotsu bai, beharko... Erronka pertsonal handia da, erantzukizun handia. Lau urte azkar pasatzen dira eta alde horretatik baditut gogoak herri batzarrean zein azken legealdiaren barruan egiteke geratu diren proiektuei heltzeko.

**Nolakoa izan da zure hautagaitza aurkezteko prozesua?**

Herri batzarretan landu da guztia. Proposamena egin zidaten eta buelta batzuk eman ostean baiezkoa eman nuen; batzarraren ostean bozketa egin zen, ohiko prozeduran, eta ni irten nintzen.

**Herri programa lantzen ari zarete. Zerrendak osatu dituzue?**

Horretan ari gara. Zenbait arlo landu dira dagoeneko, baina beste batzuk falta dira oraindik. Horregatik, goizegi da programaren berri emateko, herri batzarrean lanean dihardugu-eta.

**Azken lau urteotan Udalean egoteak lagunduko dizula uste duzu?**

Lau urteotako esperientziak erakutsi dit ez dela lan erraza. Udal txikia gara eta ez ditugu baliabide asko, baina ziur nago, gauza asko ondo egin badira ere, asko dagoela hobetzeko. Lan metodologia sistematizatu eta ordenatu behar dela uste dut; helburu dugun herria zein izan behar den erabaki behar dugu eta ondoren, helburu horretara pixkanaka-pixkanaka heltzeko bitartekoak jarri.

**Zer egin da ondo azken lau urteotan? Eta zer hobe daiteke?**

Herriko elkarteekin harremana estutu dugula esango nuke eta gizarte zein kultura arloetan ekimen politak abiatu direla. Bestalde, esango nuke hankamotz geratu garela zergak eta tasak errepasatzeko orduan. Zergak berrikusi egin behar dira, gai horri astindu bat eman behar diogu. Era berean, oso sakabanatuta ditugun auzoei garrantzia eman zaien arren eta behar batzuei erantzun zaien arren, badira auzoetako beste hainbat eskaera betetzeke geratu direnak.

## Martxoaren 13an jaialdi handia Korrika datorrela girotzeko

Herriko bertsolariak, trikitilariak, abesbatzako kideak, dantzariak eta musikariak izango dira protagonista Korrikaren etorrera girotzeko martxoaren 13rako antolatu den jaialdian. Kiroldegian izango da, 18:30ean, eta sarrerak salgai egongo dira Anboton, Ekin, Añain eta Ibarra okindegian, bi eurotan.

## Kiroldegiko aldagelak eta ur sistema berritzen ari dira

Abenduan hasi ziren kiroldegiko aldagelak eta ur beroaren sistema aldatzeko lanak. Lan handienak eginda badaude ere, oraindik azken ukituak falta dira. Bestalde, astero bertan entrenatzen duen areto futboleko taldeak bihar jokatuko du (16:45) 16. jardunaldiko partidua Taberna Pragaren aurka. Aramaioarrak azken bi sailkatuak dira egun.

ARAMAIO

# Manex Agirre eta Peru Abarrategi, herriko ordezkaritza Zigoitian

J.B. | ARAMAIO

Azken txanpan sartu da Arabako Bertsolari Txapelketa. Bihar, hilak 28, jokatuko da bosgarren finalaurrekoa Zigoitian –kultura etxean, 17:30ean hasita– eta Manex Agirrek eta Peru Abarrategik osatuko dute Aramaioko ordezkaritza. Eta euren ondoan egongo dira Aguraingo Oier Arbina –Amurrioko Unai Mendibilen ordez abestuko du–, Luiaondoko Asier Rubio, Abetxukuko Iñaki Viñaspre eta Gasteizko Felipe Zelaieta.

Laudioko saioa irabazi ostean, Manex Agirrek aukera handiak ditu finalerako sailkatzeko.

**Perea nagusi Aramaioko saioan**

Oihane Perea zalduondarrak –orain arteko puntuazio guztiei begiratuta puntuazioa altuena du, 674 puntu– irabazi zuen Aramaioko saioa. Perearen atzetik Iker Agirre aramaioarra sailkatu zen. Perea zen faborito, eta besteen aurretik ibili zen uneoro, baina txalo zaparrada beroenak etxekoak jaso zituen: "Fresko jardun du Ikerrek, txukun, akatsik egin barik, eta inolako urduritasun barik. Herrikoa izanda hark berotu du aretoa", adierazi zuen Aramaioko Bertso Eskolako kide Xabi Igoak. Sei onenak sailkatuko dira Gasteizko finalerako.

ARAMAIO



AIZPEA AJURIAGERRA

# Amaiera ezin hobea patinaje ikastaroari

Geroago eta ume eta guraso gehiago erakartzen ditu patinaje ikastaroak. Urtarrilaren 25ean hasi zuten, eta ordutik domekero elkartu dira kiroldegian. Ikastaroa amaitzeko, Gasteizko izotz pistara egin zuten irteera joan den domekan, eta, diotenez, "oso ondo" pasatu zuten eguna: "Urtero legez, eskerrak eman gura dizkiegu Agustini eta eskolako ikasle ohiei. Eurengatik ez balitz, ikastaroa ez litzateke egingo". Datorren urtean ikastaroa berriro egingo dutela aurreratu dute.

LEINTZ GATZAGA

# Angulen ostean, bertso ikuskizuna

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Korrika batzordeak antolatutako angulen zozketako irabazlea 713 zenbakia zuen txartelaren jabea izan zen: Gure Ametsa jatetxeko sukaldaria. Joan den zapatuan egin zuten Ibon Oñederrak Deba ibaian hartutako angula bizi-bizien zozketa, Labidean.

Txartelak saltzen ibili ziren han eta hemen; zapatu goizean, esaterako, Arrasateko baserritarren azokan izan ziren. Eta iluntzean izan zen zozketa. Ikusmin handia eragin zuen herrian, Aretxabaletatik ere joan zen kuadrilla bat aitzakia horrekin, baina arrain preziatuak, esandako moduan, etxean geratu ziren.



Zozketaren unea, Agirreurreta zinegotzia bertan dela. | MIRARI ALTUBE

**Amuritza, Barandiaran...**

Behin angulen zozketa eginda, Leintz Gatzagako Korrika batzordeak egin du hurrengo hitzordua: bertso musikatu saioa.

Martxoaren 15ean 18:00etan hasiko da ikuskizuna, parrokian. Eta honako hauek parte hartuko dute: Alaia Martinek, Amaia Agirrek, Oihane Bartrak, Miren Amuritzak eta Aitzol Barandiaranek, bertsotan. Eta haiei laguntzen bi musikari izango dira: saxofoi-jole bat eta gitarra-jole bat –izenak zehazteko daude.



UBANE MADERA

LEINTZ GATZAGA

# Tirolina, estreinatzeko gertu

Gaztainuzketako Mendi Etxeetan udaberria iristeko zain daude, besteak beste, jarri berri duten tirolinari behar den moduko estreinaldia emateko. Leintz Gatzagako Udalak bultzatutako obra izan da tirolina jartzea, diruz lagundutakoa.

# KIROLA

LERA LASTERKETA

# "Txapelketak irabazi ahal izateko, atzean urte osoko lana dago, ez asteburu batekoa"

- Itoitz Armendaritz da munduko txapeldun berria
- Oso laguntza gutxirekin dabil elitean lehian



Itoitz Armendaritz, martitzen goizean etxean txakurrekin atseden hartzen. Bezperan

XABIER URZELAI | LUKU

Ez dakit Debagoienean norbaitek munduko txapeldun dela esan dezakeen. Bada, domeka ezkero badago bat, Itoiz Armendaritzek Alemanian irabazi berri du-eta titulu hori, sei txakurreko modalitatean distantzia ertaineko lasterketan jaun eta jabe izanda. Sari moduan, astelehenean hamabost orduko bidaia egin zuen furgonetan, etxera bueltan. Eta ia jarraian lanera, gaueko txandan. Izan ere, badira laguntza gutxi jasotzen duten kirolak, eta ondoren dator *mushing*-a, lera lasterketa: "Nik beti diot *mushing*-a ez dela kirola, eta bai zaletasuna. Niretako, kirol moduan izendatzeko derrigorrezkoa da sikiera gutxi batzuk bertatik bizi izatea. Eta hemen ez dago halakorik".

**Munduko txapeldunak badu txapelik?**

Ez, txapelak gurean bakarrik ematen dituzte. Alemanian domina bat eman didate, botila bat ardo eta txakurrendako zaku bat pentsu, ez da sari gehiago egon. Sari handiagoa da, zalantza barik, txapelketa bera irabazi izana.

**Eta txakurrendako sari berezirik?**

Txakurrak urte osoan zehar saritu behar dira, ondo zaindu, ondoren 3-4 eguneko lasterketak iristen direnean norberak eskatzen diena emateko gertu egon daitezen. Baina ez, txakurrek, jabeak bezala, hamabost orduko bidaia izan zuten furgonetan.

**Hamaika txakur eraman zenituen Alemaniara, dituzun guztiak. Sei txakurrekin lehiatu zinen, eta guztien artean *Ipar* izeneko txakurra da liderra. Zergatik da berezia?**

Jabearen ardura da guztien artean lider zein izan daitekeen antzematea. 5 urte dituen txakurra da *Ipar*, esperientzia handia duena eta konfiantza ematen didana.

**Hiru etapa izan zenituzten munduko txapelketan. Lehenengoan hirugarren amaitu zenuen, eta, azken orduko aldaketengatik, ez zenuen espero horren ondo amaitzea.**

Ez nuen espero, ez. 42 kilometroko hiru etapa izan behar ziren, baina lehenengoan aldaketak izan ziren epaileek halaxe aginduta, tenperatura altuegiak zeudelako [14 gradu eta elurra egoera txarrean]. Hala, zirkuituari bi itzuli eman beharrean bakarra eman genion. Normalean, nire txakurrak 25. kilometrotik aurrera hasten dira onena ematen, ibilbide laburretan ez dira ondoen moldatzen direnak, eta erabaki hark ez zigun mesederik egin. Baina lehenengoak hamabi segundoko tartea baino ez zuen lortu, eta bigarrenak zortzi segundokoa, eta hor hasi ginen baikorrak izaten.

**Lider ona duzu, baina bigarren etapan *faenaren* bat egin zizun *Ipar*-ek...**

Bai, bigarren egunean 5-6 minutu galdu genituen, zirkuituari lehenengo itzulia eman ostean txakurrak autora joan gura zuelako. Eta, hala ere, lehenengo sailkatu ginen, segundo batzuetako aldearekin. Hala, sailkapenean aurrera egin nuen, baina gainean nituen kontrarioak. Hala ere, pozik amaitu genuen eguna, susto txiki horiek izanda ere aurrean ginelako sailkapenean.

**Eta domekako etapa bikain joan zen.**

Bai, ordurako *Ipar*-ek bazekien zirkuituari bi itzuli egin behar genizkiola eta tarte horretan hamar segundo baino ez genituen galdu. Hala, bigarrena 6-7 minutura helmugaratu zen eta hirugarrena 12 minutura [Rudolf Chlad txekiarra sailkatu da bigarren eta Karl Habermann alemaniarra hirugarren]. Gainera, lasterketan zehar nire txakurrek aurrean doan kontrarioa geroago eta gertuago ikusten badute, hazi egiten dira eta dena ematen dute. Halaxe gertatu zen, eta amaitzeko modu ederra izan zen.

**Munduko txapeldun! Titulua bera ponpoxoa da, baina badakit urtean zehar izaten dituzuela lasterketa gogorragoak; lehen egiten zen Pirena [2013a ezkero ez dute egin], esaterako.**

Bai, badira txapelketa gogorragoak, eta izen handikoak, gainera. Baina munduko txapelketa munduko txapelketa da. Berez, munduko onena da bat, nahiz eta hori ez den erabat erreala, egongo delako norbait hobea txapelketara joan ez dena. Baina bertan lehiatzeko, esaterako, Espainiako txapelketan podiumean egon behar da. Hau da, onenak batzen dira bertan.

**Babesleei begira, bultzada ekar dezake honek?**

Ea egia den... Egia esan, lehenengo, nik sinistu behar dut zer lortu dudan, oraindik ez naizelako egindakoaz oso ondo jabetu. Eta ondoren, ikusi egin behar... Aurten oso laguntza gutxi jaso dut, Lukuko Udalak bidaia ordaindu dit eta Euskal Herriko Negu Kiroletako Federazioak mila euro eman dizkit. Horrekin batera, Akana etxeak urteak daramatza txakurrendako pentsua ematen; ez dago besterik, eta urtean zehar gastu mordoa egoten da. Ea orain, munduko txapeldun naizen honetan, zerbait lortzen dugun. Hori bai, laguntza ekonomikoa izan barik, etxekoen eta lagunen animoek balio handia dute.

**Hamaika txakurren mantenuaz batera, entrenatzera kanpora joan behar izaten duzu, eta baita txapelketetan parte hartzera ere.**

Pentsa, bi urte barru munduko txapelketa Kanadan izango da. Bada, niretako, ezinezkoa da hara joatea. Han behar den moduan lehiatzeko bi hilabeteko egonaldia egin beharko genuke, txakurrak ondo moldatzeko hango kondizioetara. Bada, hegaldiko kostuak bakarrik 12.000 euro dira.

**Eta hori da orain duzun ametsa? Kanadako lasterketa horretara joan ahal izatea?**

Bueno, edozein lasterketa da ametsa, denetan parte hartzea gustatzen zaidalako. Oraingo asteburuan, esaterako, Linzan jokatuko

> "Txakurrak urte osoan zaindu behar dira, hemen ez dago astebururik"

> "Jabearen ardura da txakur guztien artean liderra antzematea"

> "Lehenengo nik sinistu behar dut munduko txapeldun naizela"

> "Alpeetara joan behar izaten dugu elurretan ondo entrenatzera"



egin zuten Alemaniatik bueltako bidea. | XABI URZELAI

dugu Euskadiko Txapelketa, eta hori ere ametsa da. Txapelketa batzuk izen handikoak dira, beste batzuk txikiagoak izaten dira, baina denetan irteten gara irabazteko asmoz.

**Kontrario alemanek, suediarrek, danimarkarrek–eta esango dute: "Euskaldun bat munduko txapeldun! Han ez dago, baina, txakurrekin entrenatzeko behar beste elur...".**

Egia da nik egiten ditudan distantziak entrenatzeko zailtasunak izaten ditugula, penintsulan ez daudelako 40-60 kilometroko pista elurtuak. Horregatik joan behar izaten dugu Alpeetara edo Eskandinaviara. Eta horrek dezente garestitzen du dena, noski.

**Hala ere, nahiz eta elurrik ez egon Arabako parajeak aproposak dira txakurrekin entrenatzeko.**

Bai, Debagoienean dugun orografiak ez du askorik laguntzen, lautadan ibili behar izaten dugu-eta. Eta, gainera, ezinezkoa da han lursail bat prezio onean topatzea. Horregatik etorri nintzen Lukura bizi izatera, hemen etxea eta txakurtegia, dena dut batera. Hala, etxetik bertatik hasten ditugu entrenamenduak.

**Akaso, aurrerantzean lasterketetan presio handiagoa izango duzu, munduko txapeldun izanda...**

Ez pentsa, ez dauka zertan, lasai asko gera naiteke azkena sailkapenean. Lehen esandako moduan, Linzan hitzordua dugu asteburuan, baina hura zazpi kilometroko lasterketa izango da, ez da gure distantzia. Ondoren etorriko dira Euskal Herriko txapelketa eta Espainiakoa. Euskal Herrikoa gure herrikoa da, eta ondo ibili gura izaten dut hor, eta Espainiakoa ere serio hartu beharko dut [martxoaren 7an eta 8an Baqueiran], datorren urtera begira nazioartean lehiatu ahal izateko Espainiakoan lan ona egin behar da-eta.

## Fernando Cobos beterano onena

Espainiako txakur-kroseko Kopako bost probak jokatu ostean, Pol-Pol taldeko Fernando Cobos bergararrak lortu du beterano mailan gailentzea, *Gari* txakurrarekin. Hain zuzen, Kantabrian, Gaztela eta Leonen, Madrilen, Galizian eta Katalunian egin dituzte lasterketa horiek.

Eta, *bikejoring* modalitatean, Bergarako taldekoa den Jose Ramon Ortuoste elgoibartarra hirugarren sailkatu da. Hala, horiek ere Baqueiran izango dira martxoaren 7ko eta 8ko asteburuan, Espainiako txapelketan.




Cobos –erdian– podiumeko lehenengo postuan. | POL-POL

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Tolosa-Aretxabaleta
Zapatua.16:30. Berazubi.
Antzuola-Aloña Mendi
Domeka. 16:00. Estala.
Real Union-Bergara
Domeka. 16:00. Gal.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Lazkao-Mondra
Zapatua. 16:00. Arizti Handi.
Aretxabaleta B-Mutriku
Domeka. 16:30. Ibarra.

**LEHEN ERREGIONALA**
Bergara-Idiazabal
Zapatua. 17:30. Ipintza.

**OHOREZKO GAZTEAK**
Mondra-Beasain
Zapatua. 16:00. Mojategi.
Urola-Aretxabaleta
Zapartua. 17:30. Argixao.
Aloña Mendi-Eibar
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Bergara-Ordizia
Zapatua. 15:30. Ipintza.

**EMAKUMEEN ERREGIONALA**
Mondra-Añorga
Zapatua. 18:00. Mojategi.
Amara Berri-Arizmendi
Zapatua. 15:30. Martutene.

**EMAKUMEEN ERREG. KOPA**
Beti Gazte-Bergara
Zapatua. 16:30. Mastegi.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA**
Eskoriatza-Sapuberri
Zapatua. 18:15. Manuel Muñoz.

**LEHEN MAILA**
Aretxabaleta-Oiartzun
Zapatua. 17:30. Ibarra.

**BIGARREN MAILA**
Miren Taberna-Mondrate
Zapatua. Zehazu barik. Oiartzun.

**ESKUBALOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Uharte-Ford Mugarri
Zapatua. 18:45. Uharte.

**EUSKADIKO TXAP. GIZON.**
Bergara-Corazonistas
Zapatua. 16:00. Labegaraieta.

**EUSKADIKO TXAP. EMAKU.**
Aloña Mendi-Egia
Zapatua. 17:30. Zubikoa.



Bergara Gure Auzuneren kontra. | I. SORIANO

**SASKIBALOIA**

**EBA MAILA**
Askartza Claret-MU
Domeka. 12:00. Leioa.

**SENIOR GIZONEZKOAK**
Natra Oñati- La Trattoria
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**EMAKUMEZKO SENIORRAK**
Tecnun-Eskoriatza
Gaur. 20:00. Altza.

**SENIOR BIGARREN MAILA**
MU-Orioko
Zapatua. 20:00. Altza.
Soraluce Bergara-Andraitz
Zapartua. 18:00. Labegaraieta.

**GAZTEAK**
Soraluce Bergara- MU A
Domeka. 10:00. Labegaraieta.

**PILOTA**

**UDABERRI TXAPELKETA**

**Oñatin:**
Gaur, 19:00etan, bi partidu:
Aloña-Tolosa (2. maila).
Aloña-Azkoitia 2 (1.maila).

**Arrasaten:**
Gaur, 20:15ean, hiru partidu:
Arrasate3-Gure Txeru (1. maila)
Arrasate1-Iparraldekoak (1.maila)
Arrasate-Beloki (2. maila)

**Antzuolan:**
Gaur, 20:00etan, bi partidu:
Antzuola-Endaiarrak (larruzko paleta).
Antzuola-Bergara (1. maila).

SASKIBALOIA

## Errioxarren kontra partidu borobila egin ostean, Leioan jokatuko du Mondragon Unibertsitateak

Aurreko zapatuan Natural Rioja taldeari erraz irabazi (107-52), eta elkarren arteko batez bestekoa alde ipini zuten arrasatearrek; bada, oraingo domekan Leioan jokatuko du Mondragon Unibertsitateak, 12:00etan, Askartza Claret taldearen kontra. Emaitzetan 5-11 partziala dute bizkaitarrek, eta Larreategiren taldeak aukera aproposa du hamargarren garaipena eskuratzeko. Irabaziz gero, sendo jarraituko lukete EBAko laugarren lekuan, eta, liga bukatzeko hamar partiduren faltan, mailari eusteko arazorik izango ez luketela esan daiteke.

ESKUBALOIA

## Bosgarren lekuan sendo jarraitzeko irabazi egin beharko du Ford Mugarrik Uharteren kantxan

Ford Mugarrik Uharten (Nafarroa) jokatuko du aste bukaeran (zapatua, 18:45). Partidu parekatua izango da, sailkapenean elkarrengandik oso gertu dauden bi talde dira-eta: Ford Mugarri bosgarren 31 punturekin eta Uharte zazpigarren 23rekin. Hori horrela, arrasatearrek irabazi egin beharko dute, sailkapenean duten bosgarren lekuari eusteko. Bien artean Elgoibar dago sailkapenean. Lehen Nazional mailako liga txapelketa bukatzeko bederatzi partidu geratzen zaizkie arrasatearrei.

DUATLOIA

## Zabalik dago Oñatin jokatuko den esprint modalitateko duatloian izena emateko epea

Martxoaren 14an jokatuko dute Oñatiko 24. duatloia, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Interesatuek *Triatloi.org* webgunean eman dezakete izena. 300 dortsal dituzte antolatzaileek. Hori da onartuko duten gehienezko parte-hartzaile kopurua. Aurtengo duatloiaren distantziak erdira murriztu dituzte. Hori horrela, esprint modalitatean jokatuko dute: 5,2 kilometro korrika, 22,7 bizikletan eta 2,6 korrika. Era berean, bizikletan egin beharreko ibilbidea aldatu egin dute: Oñatiko kale eta auzoetan ibiliko dira. Tartean, Lamiategiko aldapa igo beharko dute.

FUTBOLA

# Irabazi edo irabazi

## Hil edo biziko derbia jokatuko dute domekan Antzuolak eta Aloñak

**MIREIA BIKUÑA** | ARRASATE

Urrezkoak. Beharrezkoak. Hil edo bizikoak. Ezinbestekoak. Horietako edozein adjektibo jar daitezke domekako (16:00) derbiko puntuak direla eta. Estala futbol zelaian aurrez aurrez Antzuola eta Aloña. Estu eta larri dauden bi talde. Zuloan Antzuola (12 puntu) eta zulora begira Aloña (21 puntu). "Gure egoera gehiago larri ez dadin, irabazi egin behar dugu, bestela zulora begira ipiniko gara", dio Aloñako entrenatzaile Igor Serranok. "Aloña larri badago, zer esango dugu guk? Irabazi edo irabazi. Ez dugu besterik. Puntuak hirunaka batzen hasi behar dugu; bestela, oso zaila izango da", esan du Jon Muruak, Antzuolako entrenatzaileak.


Aloñako Josu Juaristi baloiarekin Oñatiko derbian, Antzuolako jokalariak begira dituela. | JOSETXO ARANTZABAL

### Bi taldeak gogotsu

Aurreko aste bukaeran kolpe gogorra jaso zuten bi taldeek: Antzuolak Bergararen kontra galdu zuen Agorrosinen eta Aloñak Tolosaren kontra Azkoagainen. Kolpe latzak izan arren, biek ala biek gogotsu ikusten dituzte euren jokalariak. "Oñatira heldu nintzenetik jokalarien konpromisoa ikusgarria izan da. Ez daukat kexarik eta badakigu gure esku dagoela bizi dugun egoerari buelta ematea", dio Serranok. Iritzi berekoa da Murua: "Gure buruarengan konfiantza daukagu. Hamasei final ditugu aurretik eta badakigu zer egin behar dugun. Jokalariak gogotsu daude. Gogor entrenatzen dira. Ea, bada, zorte apur batekin egoera aldatzeko gai garen".

### Entrenatzaileen presioa

Antzuolarrak liga hasieratik daude zuloan sartuta. Oñatiarrak gainbehera etorri dira. Bere postua arriskuan ikusi duen galdetuta, zera dio Serranok: "Hori zuzendaritzari galdetu beharko zenioke. Baina, egia esan, entrenatzaileok beti gaude arriskuan. Are gehiago, emaitzak txarrak direnean. Buruak buelta asko ematen ditu, baina ni lasai nago. Lanerako gogoarekin".

Presioak baino gehiago, animoak jaso dituzte Jon Muruak eta Ekain Garinek. "Antzuolan beste modu batera bizi dute futbola. Zuzendaritza batzordearen eta zaleen aldetik animoak besterik ez dugu jaso orain arte. Etxean galduta ere, beti txalo artean agurtzen gaituzte, eta hori ez da ohikoa", azpimarratu du Muruak.

### Futbol zelai txikiak

Estala eta Azkoagain futbol zelai txikiak dira. Antzuolakoa Oñatikoa baino txikiagoa. Hor dute antzuolarrek abantaila txiki bat. "Etxeko puntuak oso inportanteak dira denboraldian zehar. Guk zelaiari neurria hartu diogu, baina jakin badakigu Aloña mendean hartzea oso zaila izango dela. Lehiatzen badakigula erakutsi dugu, eta domekan ere hala egin beharko dugu irabazteko", adierazi du Muruak.

"Hainbat aldaketa izan ditu Antzuolak taldean, baina zuloan egon arren gogor borrokatuko da. Are gehiago, etxean jokatu eta puntuak behar dituenean. Derbi parekatua izango da. Ziur", dio Igor Serranok.

ESANAK

**"Hamasei final ditugu liga bukatu aurretik"**

**"Zaleen eta zuzendaritzaren aldetik animoak besterik ez dugu jaso"**

JON MURUA | ANTZUOLAKO ENTRENATZAILEA

**"Aloñako jokalariek duten konpromisoa ikusgarria da"**

**"Entrenatzaileak beti gaude arriskuan; baina ni lasai nago, lanerako prest "**

IGOR SERRANO | ALOÑAKO ENTRENATZAILEA

FUTBOLA

## Arnaiz: "Domekan ezin izan nien negar malkoei eutsi"

**M.B.** | ARETXABALETA

Sentsazio gaziarekin itzuli zen Beñat Arnaiz Espainiako duatloi txapelketatik. Lehen postuan zihoala, errubera zulatu zuen aretxabaletarrak bizikletako sektorearen 50. kilometroan –70 kilometrokoa zen–, eta lasterketa bertan behera utzi behar izan zuen. "Inpotentzia, mina, negar egiteko gogoa... guztiak pilatu zitzaizkidan erruberaren balbula apurtuta zegoela ikusi nuenean", esan du Beñat Arnaizek.

Errepide bazterrean geratu zen zain, auto batek irteera puntura eraman zuen arte. Minutu luzeak eta sentsazio asko. "Batez ere, inpotentzia. Kirolagatik ez dut sekula negarrik egin, baina domekan ezin izan nien malkoei eutsi. Neguan gogor entrenatu ostean, di-da batean pikutara joan zen guztia", adierazi du.

### Triatloi denboraldia

Espainiakoa ahaztu, eta aurrera begira jarriko da Arnaiz. Entrenatzailearekin adostuta, egun duen sasoi puntua aprobetxatuko du hainbat duatloi egiteko. Horren ostean, buru-belarri hasiko da triatloi denboraldiarekin.

FUTBOLA

## Aloña Mendiko atletek distantzia luzeko Espainiako kros txapelketan parte hartuko dute, Caceresen

Aloña Mendiko Sergio Gartziak, Yerai Varelak, Tasio Gomezek, Alberto Revueltak, Aritz Ruizek eta Imanol Cruzek taldekako distantzia luzeko Espainiako kros txapelketan parte hartuko dute domekan, Caceresen. Hamaika kilometroko lasterketa izango da. Aloñaren helburua lehen hamabost taldeen artean sailkatzea da. "Guztira, 32 talde egongo gara, eta, Elgoibarren egindako lana aintzat hartuta, lehen hamabosten artean sailkatzeko maila dugula uste dugu", esan du Sergio Gartziak. Zirkuituaren egoeraren gainean galdetuta, hauxe esan du: "Caceresen euri gutxiago egin du eta domekara arte ateri egongo dela esan dute. Elgoibarren baino lokatz gutxiago egotea espero dugu".


Saski Baskoniari esker
Laboral Kutxa – CSKA norgehiagoka ikusteko 4 sarrera bikoitz zozketatzen ditugu.
Buesa Arena. Gasteiz
Martxoaren 5ean, 20:45ean.
PARTE HARTZEKO (MARTXOAREN 2A AZKEN EGUNA):
SMS: KLUBA [baskonia] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA baskonia [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com
goienakluba


JEXUSMARI
BORROKAN
ARI DA "B"
DOKTOREAREN
AURKA
"B" kontabilitatea, BEZik gabeko salmenta-kanpainak eta "black" txartelak eguneroko ogia ditugun honetan, Jexusmari ausartu da terminal fiskal bat instalatzera taxian.
Kamera ezkutuaren bideoa
TAXI
◂ Jexusmari Ubarretxena (Donostiako taxilaria)
"A" gizartea lortzeko
ZATOZ EKONOMIA GARDENERA
Ausarten eta super-ausarten bila ari gara
www.ekonomiagardena.eus
#ekonomiagardena
Gipuzkoa
BERRIA

# KULTURA



*ARTEAN hamaika emakume artista* egitasmoko artistak eta antolatzaileak, Kulturateko klaustroan. | KIKE DAPENA

## Artea, emakume sortzaileen eskutik

### 'ARTEAN, hamaika emakume artista' erakusketa, astelehenetik aurrera Kulturateko klaustroan

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Hamabi sortzaile; Arrasatekoak eta gazteak; emakumeak; eskultura, margolan eta bestelako arte diziplinak; horiek guztiak batzen ditu *ARTEAN, hamaika emakume artista* egitasmoak.

Ekin Emakumeek proposatuta –Martxoaren 8aren inguruan antolatutako egitarauaren barruan–, erakusketa egingo dute Kulturateko klaustroan martxoaren 2tik 28ra. Egubakoitzean, martxoaren 6an, egingo dute inaugurazio ekitaldia, 18:30ean.



Zapatuan hasi ziren erakusketa muntatzen. | MIREN BARRENETEXEA

**Elkarlanerako bideak zabalik**

Miren Barrenetxeak eta Maddi Urizarrek jardun dute komisario lanetan. "Gertuko sortzaileengana jo genuen lehenengo eta sarea osatuaz joan gara elkarrekin. ARTEAN norberaren lanak erakusteko aukera bat baino gehiago dela ulertu dugu guztiok. Lanak estreinakoz erakutsiko dituztenak daude, baina baita artea ofizio dutenak ere", dio Urizarrek.

Oihalak, egurrak eta askotariko objektuekin egindako lanak badoaz Kulturateko klaustroan tokia hartzen. Artista bakoitzak aukeratu du zenbat lan eraman eta zelan aurkeztu horiek. Lurrean etzanda daude batzuk, paretan eskegita ere bai, edota mahai baten gainean. Ezagun da mimo handiz egin dutela lan. Jaioterrian erakutsiko dute astelehenetik aurrera; ez dute baztertzen, baina, kanpora ere eramatea.

**IKUSPUNTUA**

**LEIRE ESTEVEZ**
EKIN EMAKUMEAK ELKARTEA
'arrasatekoekin.emakumeak@gmail.com'



### Artista sarea ehuntzen

Elkartean betidanik antolatu izan dira gaitasun artistikoak lantzeko ikastaroak. Oraingo honetan, baina, bereziki landu nahi genuen emakumea eta artearen gaia; izan ere, herrian emakume artistak bazeudela, baina hauek gehienetan ezagutzen ez direla sumatzen genuen. Gainera, oraindik ere, gehienetan, artistaren irudiak gizonezkoarena izaten jarraitzen du, nahiz eta Arte Ederretako ikasleen artean emakumeak nagusi diren. Arrasateko emakume artista batzuekin hitz egin eta susmo bera konpartitzen zutela ikusita, martxan jarri ginen. Prozesuaren hasieran talde txikia izan arren, azkenean hamabi emakumek osatu dute taldea.

Elkartearentzako, erakusketa, emaitza gisa ez ezik, prozesu gisa zaintzea garrantzitsua izan da, etorkizunean proiektu berriak abian jartzeko taldea saretuz.

### 'ARTEAN, hamaika emakume artista' erakusketako protagonistak

**AMAIA ALBES GARITANO**
Moda diseinatzaile ezagunak, bolumenari garrantzia emanda, diseinuaren beste begirada bat erakutsi gura du. XVIII. mendeko soinekoa aukeratu du. Egitura gogorraren eta oihal bigunen arteko kontrastearekin, egiturak oihala menperatzen duela erakutsita.

**AMAIA ARANTZABAL URIARTE**
Eskulturatik eta margotik dute Bartzelonan bizi eta diseinu ikasketak egiten diharduen artistaren lanek. Denboraren joana eta naturaren eboluzioa azaldu ditu enbor eta triangeluekin. Zuhaitzen eraztunak historiaren eta hazkuntzaren adierazgarri dira eta triangeluak, berriz, bilakaera eta dinamismoaren ikur.

**HELENA AZKARRAGAURIZAR JAUREGI**
Mexiko Hirian bizi da. Arte Ederren ikasketa garaiko eskultura eta ilustrazioak erakutsiko ditu. Gorputza eta haren bilakaera, moda, nortasuna, egunerokotasuna, landu izan ditu. Askotariko materialak erabili ditu: egurra eta oihalak, besteak beste.

**MIREN BARRENETXEA IÑARRA**
Arte Ederrak ikasita, argazkilaritza ikasten ari da egun Madrilen. Erakusgai dituen eskulturak eta margolanak intuizio eta bulkadetatik abiatukoak direla dio. Gorputzarekin margotu ditu, *performance*-a balira bezala, mihisearen gainean dantzan. Azken emaitzaz gainera, lan egiteko prozesua ere erakutsiko du bideoan.

**EURI BRUÑA ITURBE**
Taldeko gazteena, Arte Ederretako ikaslea. Hainbat teknika eta baliabideren esperimentaziotik sortutako marrazkiak erakutsiko ditu. Kearekin, suarekin, urarekin eta argizariarekin egindako lan txiki eta intimoekin, ikusleen sentsazioak azaleratzea du helburu.

**LEXURI DOYAGUE LOITI**
Eskultura eta grabatuetan espezializatuta, pintura masterra bukatzen ari da orain. Ustekabea eta txiripa direla dio Kulturatera eramango dituen lanen oinarria. Eskultura arloan, oldarkorra da duen teknika; oso delikatua eta fina, berriz, margotzerakoan.

**OIHANA GARRO LARRAÑAGA**
Eskultura alorrean doktorea, Arte Ederretako irakaslea da Leioan. Tesiaren lan materiala erakutsiko du. Bi zati dituen *Urretue* bilduma dakar: *Mikro-urretue,* familiaren zatiketari buruzkoa, eta *Makro-urretue,* berriz, AHTren eraginak jasotzen dituena.

**ARAITZ PEREA KORTABARRIA**
Haurren margo irakaslea da Kulturaten. Bizipenetan oinarritutako margolan koloretsuak aukeratu ditu erakusteko; familia, herria, eta paisaiak jaso ditu horietan. Bat-bateko lanak dira, egilearen esanetan, bere izaerarekin bat datozenak.

**MADDI URIZAR ALTUNA**
Santa Barbara parkean egindako interbentzio galkorren argazkiak erakutsiko ditu pinturan espezializatutako artistak. Egindakoaren dokumentaziorako tresna izateaz gainera, lurraldea eta gorputza leku bihurtzen diren modua eta unea harrapatu gura dituela dio.

**ELUSKA ZABALO MONJE**
Betidanik margotu izan du, azkenaldian grabatuak lantzen dituela gaineratu badu ere. Bilboko La Taller eta BilbaoArte Fundazioa izan ditu, besteak beste, lantoki. *Paisai alderraiak* egitasmoko lan sorta bat dakar; egilearen esanetan, paisaia erreferente-euskarri moduan hartuta, lerroa eta forma ustiatzeko proposamena dena.

**ALAZNE ZUBIZARRETA MONTERO**
Pintura espezializazioa egiten ari da egun, Leioan. Absurdoari eta barne gatazkei buruzko animaziozko lan bat erakutsiko du, batetik; baina hainbat marrazki ere bai. Gorputza eta paisaia gaitzat hartuta, trazu landua duten irudiak dira.

**JONE ZUBIZARRETA UNTZUETA**
Azkeneko urteetan artelanak alboratuta izan dituen artistak askotariko irudi eta objektuekin osatutako obra erakutsiko du. Horiek guztiek osatutako *mapa kontzeptual* bat dela dio; hau da, bere buruan dagoen sarea azaleratu gura izan duela.


Ricardo Azkargortaren *Bilatzailea* margolana. | BERGARAKO UDALA


Xabier de Zerioren *Indarka*. | B. UDALA


Bingen de Pedroren lana. | B.U.

# Arteaz berba egin eta eztabaidatzeko aitzakia izan nahi duen erakusketa

- Bergarako Aroztegi aretoan '9+2' proiektua jendaurrean jarriko dute
- Gaur hasi eta martxoaren 15era arte egongo dira lanak ikusgai

**ARANTZAZU EZKIBEL** | BERGARA

Talde proiektu bat da *9+2* erakusketa. Bergarako artista talde batek bere proiektua erakusteko duen beharretik sortua. Helburu artistikoak eztabaidatzeko eta eztabaida bidez zalantza egin eta aztertzeko elkartzerakoan sortutako talde baten adierazpena da. Batzen dituena artea dela diote, eta, hain zuzen ere, hortik datorkiela euren lengoaiarekin adierazteko beharra.

Erakusketa gaur, egubakoitza, inauguratuko dute, eta martxoaren 15era arte egongo da zabalik. Erakusketan bederatzi margolariren eta bi eskultoreren lanak jarriko dituzte ikusgai eta artista bakoitzak bina obra eramango ditu.

**Nazioarteko artistak**

Herrikoak, Bergarakoak dira artista gehienak – Aitor Etxeberria mendaroarra eta Aitor Sarasketa ondarrutarra izan ezik–. Gainerakoak dira: Luis Laskurain, Javi Ugalde, Altuna Akizu, Ricardo Azkargorta, Xabier de Zerio, Bingen de Pedro, Ramon Arantzabal, Pello Alberdi eta Antton Arrillaga.

Askotariko gai eta teknikak ikusteko aukera egongo da erakusketan; izan ere, autore bakoitzak librean egin du lan. Luis Laskurain margolari ezagunak azaldu du nazioarte mailan erakusketak jarri dituzten artistak direla gehienak, eta horrek nolabaiteko maila ematen diola erakusketari.

**Arteaz berba egiteko aitzakia**

"Nahi duguna da jendea harritzea, eta pinturaz berba egiteko aitzakia izatea", dio Laskurainek. Pinturaz gain, askotariko gaien eta tekniken gainean berba egiteko aitzakia ere sortu nahi dute. "Erakusketa uniforme bat ikusten duzunean, aurrean dituzun koadroak gustuko izan ditzakezu edo ez. Baina, beste erakusketa honetan, alderatzeak egiteko aitzakia daukazu; hau da, gaiak eta teknikak aldera ditzakezu. Esan daiteke horrelako erakusketa batek gehiago eman dezakeela; gainera, kontuan hartuta maila jakin bateko artisten erakusketa dela", gaineratu du Laskurainek.

Esan bezala, bederatzi margolari izango dira, eta bi eskultore: Javi Ugalde eta Xabier de Zerio. "Bingen de Pedrok, adibidez, bolumena erabiltzen du margolanetan: margolan bolumetrikoa deitzen zaio horri. Eztabaidatzeko aitzakia ematen du horrek: pintura edo eskultura den", azaldu du Laskurainek. Hori da artisten asmoa, jendeak arteaz berba egitea.

**Egungo egoera zaila**

Hirugarren aldia da erakusketa ikusgai jarriko dutena: lehenengoz Bergarako Nahikarin jarri zuten, talde moduan sortu zirenean; eta, bigarrenez, Logroñoko Arkitektoen Eskolan jarri zuten erakusketa. "Gaur egungo egoera oso zaila da. Galeria asko ixten dabiltza, eta, gainera, leku batzuetan ordaindu egin behar da lanak erakusteko. Gainera, nazioartean mugitzea oso garestia da. Horregatik, elkarlanean eta ordaindu behar ez dugun aretoetan ibiltzen gara", dio pintore bergararrak.

Bergarako margolarien mugimenduaren gainean galdetuta, Laskurainek dio herritarrek badakitela mugimendu sendoa dagoela, baina herritarrak ez direla kontziente herrian dagoen benetako mailaz. Gaur egun, beste aktibitate batzuei garrantzia ematen zaiela dio, baina ez kultura mugimenduei. "Mundu osoan erakutsi duten zortzi bat pintore daude Bergaran. Ea zein herritan aurki daitekeen kopuru hori... ezta Donostian ere", dio Laskurainek. Gazteez galdetuta, dio atzetik gogor datozen gazteak badaudela Bergaran.

**IKUSPUNTUA**

**LUIS LASKURAIN**
MARGOLARIA |

## Erakusketa kolektiboa

**Bakarka jardunbide jakin bat daramagun bederatzi margolari eta bi eskultore gara. Denbora bat daramagu hilean behin elkartzen: pinturaz berba egin eta mundua konpontzeko aitzakiarekin. Erakusketen mundua oso konplexua eta garestia da; horregatik, modu kolektiboan erakusketak antolatzea erabaki dugu. Bakoitzak egiten duguna ezagutzera eman nahi dugu. Gure artean ezberdinak gara, jardunbide onarekin, baina ezberdinak. Horregatik, erakusketan, gai eta teknika aukera zabala eskaini nahi diegu ikusleei.**


Ataunen hasi zuten, egubakoitzean, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa. | B. E.

# Debagoieneko bertsolariak eskolarteko txapelketan

Ane Zuazubizkar, Gontzal Belategi eta Urko Arregi lehiatuko dira gaur, bat-bateko saioan

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Gipuzkoako 35. Eskolarteko Txapelketa abian da. Hiru ekimen batuko ditu aurtengoak ere: idatzizko sariketa, saio didaktikoak eta bat-bateko txapelketa.

18 urteko 1.035 bertsolari batuko ditu aurten idatzizkoak. Ataunen egin zuten, aurreko astebururuan, lehenengo saioa eta gaur, egubakoitza, Zumarraga-Urretxun egingo dute bigarrena.

**Debagoiendarrak lehian gaur**

Bat-bateko sariketako lehenengo kanporaketa egingo dute gaur, eta Zumarragan izango dira Debagoieneko hiru ordezkari ere: Arrasateko bertso eskolako Ane Zuazubizkar eta Oñatiko Gontzal Belategi eta Urko Arregi. "Lau kanporaketa izango dira eta apirilaren 26an, Irungo Amaia antzokian, berriz, finala. 27 gaztek parte hartuko dute aurten, eta horietako lau dira Debagoienekoak. Gaurko saioan izango den hirukoteaz gainera, martxoaren 13an Zarautzen lehiatuko da Arrasateko Marixe Ruiz de Austri", esan du Edurne Soraluzek, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko ordezkariak.

Bertso afari formatuan egingo dituzte aurten ere: Zumarragako Amalur elkartean izango da gaurkoa. Afarirako txartelak *Bertsosarrerak.eus* atarian eskura daitezke. Aurrez aipatutako Debagoieneko hiru ordezkariek Maddi Etxeberria, Libe Goenaga, Oier Etxeberria eta Ane Beloki izango dituzte aurkari. Iñaxio Usarraldek jardungo du gai-jartzaile lanetan.


Los Galerna, Martin *Capsula*-rekin estudioan. | ANDER MONEDERO

# 'Sangre en el Atlántico' izango da Los Galerna arrasatearren estudioko lan berria

**K OMUNITATEA GOIENA** |
LOS GALERNA | ARRASATE

*Sangre en el Atlántico* disko berria grabatu genuen urtarrilean eta dagoeneko labean dago. Laugarren estudioko erreferentzia The Cavernarios mexikarrarekin batera egindako diskoa izango da.

Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin kaleratuko dugu binilo-diskoa eta talde bakoitzaren hiru kantu egongo dira bertan. Oraingoan, estudioan grabatu dugun lehen bertsioa argitaratuko dugu, The Cavernariosen *Soy de la costa*; eurek, ostera, gure *Cómo pica esta arena* grabatu dute.

Martin *Capsula*-rekin Bilboko Silver Sounds estudioan egin dugu lan oraingoan, eta emaitzarekin eta esperientziarekin oso pozik gaude.

# Bukatzear da Bergarako lehen antzerki zikloa

**IMANOL BELOKI** | BERGARA

Otsailaren 20an hasi zen Bergarako lehen antzerki zikloa eta martxoaren 1era arte iraungo du. Orain arte, Tanttaka antzerki taldearen *Zazpi aldiz elur* antzezlana, ATX teatroaren *Arren ganbara emeen sotoa,* Txaloren *Mollie Malonen ipuin sinestezina*, Barry Manley bakarlari irlandarraren *Barry Barrez* saioa eta Jardun euskara elkarteko haur antzerki eskolaren *Autobusa* izan dira.

Gaur, Txaloren *100 metro karratu* lana izango da, 22:00etan. Zapatuan, berriz, Tartean Teatroaren *Pankreas* lana izango da, 20:00etan, eta domekan, Eidabe kultura elkartearen *Izar eta Zenaida: indar magikoa,* 18:00etan. Zabalotegin izango diren hiru lan horiekin amaituko da antzerki zikloa.

Mireia Gabilondo bergararrak eman zion antzerki zikloari irekiera *Zazpi aldiz elur* antzezlanarekin. Bergarako pilotalekuan izan zen, eta, 25 urtean herrian lanik aurkeztu barik egon ondoren, etxean antzeztera bueltatu da. Honela azaldu zen Gabilondo: "Polita izan zen ikuskizuna eta gustatu zela uste dut. Beti esaten dut nerbio gehien pasatzen nuela gurasoak etortzen zirenean ikustera. Izan ere, gertu-gertukoei gustatzea nahi izaten da".

Maider Osa Bergarako Kultura teknikariaren esanetan: "Jendea gustura egon da saio guztietan, baina lehen antzezlana frontoian izan zen eta ez zen leku aproposena izan. Hotz egiten zuen, sabaian jotzen zuten tanta hotsak entzuten ziren... Horrelako ikuskizunaz gozatzeko antzoki bat erosoagoa da".

**Balorazio positiboa**

Maider Osa Bergarako Kultura teknikariaren esanetan: "Oraingoz, balorazio positiboa da. Jendeari kosta egiten zaio antzokira hurbiltzea, eta antzerki solteak antolatu beharrean zikloa egiteko apustua egin dugu".



Mireia Gabilondo, antzezlanean. | IMANOL SORIANO

**Hector de Miguel, Queque** | Aktorea

# "Euskal abestiren bat kantatzera ere ausartuko naiz, akaso"

- Elgetan izango da gaur eta bihar, Monologoen Mostraren barruan
- Raul Martin gitarra-jotzailearekin izango da Espaloia Kafe Antzokian

**OIHANA ELORTZA** | ELGETA

*Malditas canciones* bakarrizketarekin dator Hector de Miguel (Queque) salamancarra Elgetara. Gaur, egubakoitza, eta bihar, saio bana egingo du Espaloia Kafe Antzokian, Monologoen Mostraren barruan. 22:30ean hasiko dira biak. Sarrera, 12 euro.

**Lehen aldia da Elgetara zatozela, ezta?**

Bai, baina azkena ez izatea espero dut.

**Ezagutzen zenuen mostra?**

Egia esan, ez, baina behar ditugu horrelako ekimenak. Luzaroan iraun dezala.

**Zer eskainiko duzu? Zer prestatu duzu gaurko eta biharko saioetarako?**

*Malditas canciones* du izena ikuskizunak, eta tarteka musika entzungo den ordu pasako saio umoretsua izango da. Abestiak entzungo ditugu; bizitza alaitu eta izorratu zizkiguten abestiak izango dira. Baina ez ditut nik bakarrik abestuko, han elkartuko garen guztiok baizik.

**Zer-nolako abestiak izango dira? Adibiderik ematerik bai?**

Denok ezagutzen ditugun kantuak izango dira, baina nahiago dut ez aurreratu, sorpresa galduko da bestela-eta.

**Jendearen laguntza beharko duzu?**

Momentu batzuetan, gainera, beharrezkoa izango da ikus-entzuleen laguntza. Batez ere, nik oso gaizki abesten dudalako eta iparrekook oso ondo kantatzen duzuelako. Raul Martin gitarra-jotzailea izango dut ondoan.

**Ausartuko zara euskal abesti klasiko baten bertsiorik egitera?**

Klasikoa zeri deitzen diozun araberakoa da galdera horren erantzuna. Euskal folkloreko abestiez ari bazara, ba ez. Ez naiz ausartzen, ez ditut abesti horiek horrenbeste ezagutzen. Aldiz, Platero y Tu, Negu Gorriak, Fito, Kortatu eta antzerako taldeez ari bazara, ba... akaso bai!

**Lanerako ez ezik, zertarako aprobetxatuko duzu Elgetako bidaia?**

Jateko.

**Eta Elgetatik, nora?**

Bilbora. Ikuskizun bera egingo dut domekan, eta gero Kordobara, *The Hole* lanarekin.



Queque. | WWW.QUEQUE.NET

## "Ikus-entzuleen laguntza beharko dut abestiak kantatzeko"

## "Bizitza alaitu edo izorratu dizkiguten abestiak izango dira, ezagunak"

# 'El regrueso de Patxi' izango da gaur Zaldibarren

**I.B** | ESKORIATZA

Gorka Aginagalderen bakarrizketa izango da gaur Eskoriatzako Zaldibar antzokian. 22:30ean izango da, eta Manuel Muñoz kiroldegian salgai egon diren sarrerak agortuta daude dagoeneko.

Gorka Aginagalde Patxiren paperean sartuko da. Patxi txikiteroa da, langilea, ikasketa gutxi dituena, baina bizitzaz asko dakiena. Gizon zintzoa da, gogorra, astakiloa, tradizionala... gaur egungo gaien errepasoa egingo du, eta gaurkotasunak sutan jarriko du Patxi.



# Agur esan diote Jul Bolinagari, Landan



JUL-EN LAGUNAK

Kometak lagunduta, txalaparta, gitarra eta banjo doinuekin esan zioten agur Jul Bolinagari familiakoek eta lagunek. Ostean, The Potes taldeak emanaldi labur bat egin zuen; *Gogor nago* eta *La sombra del banjo* kantuak jo zituzten, biak Bolinagaren omenez idatzitakoak. Sorpresa gitarristaren familiakoek eman zuten: The Potesen aurretik, *Gogor nago* kantua abestu zuten.

**Martin Perez** | Saskibaloi jokalaria

# "Gainerako Santa Ageda neska-mutilek dantzan eginez gero, nik zergatik ez, ba?"



Martin Perez jokalaria Eskoriatzako kiroldegian.

AMAIA TXINTXURRETA

A.TXINTXURRETA/M.ALTUBE | ESKORIATZA

Saskibaloi jokalaria da Martin Perez (Eskoriatza, 1997). Batxilergoko bigarren mailako ikasketak egiten dabil eta Gasteizko Zuzenak taldean jokatzen du, bigarren mailan. Herriko hamaika saltsatan ere egon izan da.

**Gasteizera joan-etorri asko, ezta?**

Bai, hiru egunetan. Nagusiekin entrenatzen naiz bi bider, eta harrobiarekin beste behin.

**Euskadiko Selekzioarekin ere jokatuko duzu...**

Bai, apirilean. Zaragozan da txapelketa, eta ikusiko dugu... Orain dela bi urte ere izan nintzen eta oso esperientzia polita izan zen.

**Espainiako txapelketarako aurre-aukeratuen artean ere egon zinen...**

Orain dela urtebete egindako aurre-aukeraketa batean hautatu ninduten eta Zaragozan egon nintzen probak egiten. Azkenean, ez ninduten hartu, baina nire helburua ikastea zen; izan ere, orduan bi urte bakarrik neramatzan saskibaloian jokatzen. Eta asko ikasi nuen.

**Nolatan bururatu zitzaizun saskibaloian jokatzea?**

Heziketa fisikoko irakasleak taldeko entrenatzailea ezagutzen zuen eta hark animatuta probatzera joan nintzen egun batean. Gustatu, eta jarraitzea erabaki nuen.

**Saskibaloiaren inguruan jende asko ezagutuko duzu orain, ala?**

Bai. Gasteizen elkartzen gara Bilbokoak, Pancorbokoa (Burgos), Mirandakoa, gasteiztarrak...

**Taldean jokatzeak elkarrekin esperientziak partekatzeko ere balio izaten du?**

Bai. Ni jaiotzetik nabil gurpildun aulkian eta nire urritasuna onartuta dut, baina askorendako terapia da. Gainera, oso dibertigarria da, azkarra, eta nik gustuko dut.

**Baina saskibaloian bakarrik ez, saltsero galanta zara, ezta? Aurten, esaterako, Santa Ageda mutila izan zara eta gainerakoak legez egin duzu dantzan plazan. Zelan?**

Guztiek dantzan eginez gero, nik zergatik ez, ba? Urritasun bat dudalako? Ez, ba. Gainerakoek normaltzat har nazaten nahi dut; hortaz, nik ere normal jokatu behar dut.

**Herrian antolatutako ekitaldietan ere parte hartu izan duzu; San Pedro jaietako danborradan, esaterako.**

Bai; lehen, danborradan joaten nintzen, baina orain, bandarekin, klarinetea jotzen dut-eta.

**Eta antzerkian ere ibili zinen urte askoan, ala?**

Bai, eskolaz kanpoko ekintza zen eta Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik seigarren mailara arte ibili nintzen. Lotsa gainditzeko balio izan zidan.

**Zer ikasi duzu urte hauetan guztietan?**

Urritasun bat izan arren ez dagoela zertan geldi egon, beste edozeinek legez joka dezakedala.

**Eta batxilergoa bukatutakoan zer?**

Lehenengo, selektibitatea pasa behar, eta gero, Bilbon Kazetaritza ikastea darabilt buruan.

### PERTSONALA

**Kirolaririk gustukoena:** Imanol Agirretxe.

**Saskibaloian jokatu ezean:** Futbolean.

**Bizi izateko toki bat:** Eskoriatza.

**Eskoriatzako txokorik gustukoena:** Zaldibar antzokia.

**Amets bat:** Liga irabaztea.

**Musika talde bat:** Governors.

**Zaldibar antzokian ikusteko ekitaldi bat:** Governorsen kontzertua.

**Bidaian joateko herrialde bat:** Italia; iaz egon nintzen, baina berriro.



ADITUAK IGOGAILUAK INSTALATZEN ETA ZERO KOTARA JAISTEN
ERAIKUNTZAK ETA BIRGAITZE-LANAK
PROIEKTUAK. BARNE DISEINUA.
ITE. CEE...
LOKAL ETA ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZEA
FATXADAK ETA ESTALKIAK
ENERGIA ERAGINKORTASUNERAKO SOLUZIOAK
GILTZA ESKURA ERAKO PROIEKTUAK
AURRETIAZKO AZTERKETAK KOSTURIK GABE
IGO ERAIKIN PROJECTS
www.igosl.com
943798864
696159959
ELKANO kalea, 3 20500 ARRASATE

## 1. ETXEBIZITZAK

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erguin auzoan, Udalpe kalean, etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. Egoera oso onean. Berokuntzarekin. Nahiago bikote batentzat. Deitu 17:00etatik aurrera mesedez. 620 15 15 08 edo 943 78 70 07

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Bolun. Hiru logelakoa. Jantzita eta berokuntzarekin. Interesatuok deitu ezazue telefono hauetara: 609 79 47 30 edo 943 76 14 14 edo idatzi helbide elektroniko honetara: anuki1301@gmail.com

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 657 13 33 44

### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Herrian etxebizitza bila gabiltzan hiru gazte gara. Interesa izanez gero deitu zenbaki honetara. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 680 61 96 97

**Arrasate.** Kaixo, etxebizitza bila nabil Arrasaten, ahal bada San Andres auzoan. Hilean 400 euro ordainbadezaket, hobeto. Nahiago nuke erdi jantzia egotea, nire altzariak eramango nituzke-eta. Interesatuok deitu edo whatsapp-a bidali zenbaki honetara. Eskerrik asko. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 699 11 43 23

**Baserri bila Debagoienean.** Bikote arrasatearra Debagoienean edo inguruan errentan hartzeko baserri bila dabil. Interesatuok deitu ezazue telefono hauetara: 680 34 29 60 edo 699 28 99 06

**Bergara.** Etxebizitza txikia hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 619 52 98 04

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Erdigunean, logela ematen da errentan, etxeko gune komunak erabiltzeko aukerarekin. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 678 82 69 77

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Ibargarain garaje itxia salgai. Autoa eta motorra edo bi auto txiki sartzeko lekua dago. 647 37 20 48

**Bergara.** Marradun bi garaje salgai Iturriko auzoan, Ozaetan. 636 14 26 00

## 3. LOKALAK

### 301. SALDU

**Arrasate.** Erguin auzoan, Udalpe kalean, 60 metro koadroko lokala salgai. Ura, argindarra eta komuna ditu. Egokia gremioentzat edo etorkizunean etxebizitza egiteko bertan. Solairu bikoitza dauka. Sarrerarako hiru ate dauzka. 610 53 55 49

### 302. ERRENTAN EMAN

**ESKORIATZA**

160m²-koa, 380m²-ko lursailarekin. Jatetxe, pizzeria edo elkartea egiteko gertatuta. Salgai ere bai.
626 21 22 09
943 71 49 61

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar da goizez etxeko lanak eta pertsona nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 619 40 20 54

**Elgoibar.** Baserri baten pertsona nagusi bat zaintzeko pertsona bat behar da, etxean bertan bizi izateko. Euskalduna eta autoarekin. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 655 71 55 44 (Ana)

### 402. ESKAERAK

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Neska arduratsua, zaintza sozio-sanitarioko ikasketaduna, nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 618 14 71 34

**Arrasate, Bergara edo Oñati.** Erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Menninin lan egindakoa naiz. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

**Arrasate.** Atariak garbitzen edo ume eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 603 85 29 79

**Arrasate.** Egunez nagusiak zaintzeko edo orduka garbiketa eta lisatze lanak egiteko gertu nago. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 632 23 46 19

**Bergara edo inguruak.** 25 urteko neska arduratsua, erizaintza ikasketak amaitzen ari dena, umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko zein arratsaldetan edo goizetan. Baita astebukaeratan ere. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 618 92 40 53 edo 943 76 25 85

**Bergara, Antzuola edo Arrasate.** Emakumea etxeko garbitasun lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 632 77 35 38

**Bergara.** Esperientziadun neska euskalduna, goizetan umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. 685 77 40 26 edo 943 76 52 79

**Debagoiena eta Debabarrena.** Lantegien garbiketan edo bestelako edozein lanetan aritzeko nintzateke. Autoa daukat. Edozein egunetan eta ordutegitarako gertu. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 632 77 35 38

**Debagoiena.** Denetariko garbiketak egiten, ume zein nagusiak zaintzen edo sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 691 28 53 25

**Debagoiena.** Elektrikari, margotzen, iturgin, pladurra jartzen edota pertsianak konpontzen eskarmentua dut. Baita nagusiak zaintzen ere. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 632 08 57 69

**Debagoiena.** Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 606 50 25 67

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi eta umeak zaindu edota garbitasun lanak egiteko. Egunez, gauez, orduka edo etxean bertan bizi izanda. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 638 59 04 71

**Debagoiena.** Eskarmentudun neska gertu asteburu eta jaiegunetan ume eta nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 674 53 60 59

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkia Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**
Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**Debagoiena.** Haretegiko ofiziala naiz eta astean zehar arratsaldez edo asteburuetan lan egingo nuke. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 674 72 06 44

**Debagoiena.** Klinika laguntzailea gertu zaintza lanak egiteko, bai etxean eta baita ospitalean ere. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 629 80 77 73

**Debagoiena.** Mutil eskarmentuduna gertu garbiketa lanak egiteko. Erreferentzia onak ditut eta gauez ere lan egingo nuke. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 679 60 08 48

**Debagoiena.** Mutila eskaintzen da garbitasun lanetarako eta baita nagusiak zaintzeko ere. Esperientzia handikoa nagusien zainketan. Dokumentuak egunneratuta ditut. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 658 74 94 63

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Garbiketan eta hoteletan lan egindakoa naiz eta soldatze zein jaso-makinak gidatzeko ikasketak ditut. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 662 26 07 09

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaindu eta garbiketak egiteko gertu nago, 14:00etatik aurrera. Baita asteburuetan ere. Autoa daukat. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 602 12 18 27

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaindu edo denetariko garbiketak egingo nituzke. Tabernako sukaldari laguntzaile ere aritutakoa naiz pintxo, ogitartekoeta platerak prestatzen. Gidabaimena eta autoa dauzkat eta berehala hasteko gertu nengoke. 677 73 79 59

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu nago. Diana. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 617 11 67 09

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaintzen, garbiketak egiten edota sukalde laguntzaile jardungo nuke. Interesatuok deitu ezazue telefono hauetara: 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko gertu nago Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Eraikuntzan ere lan egingo nuke. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 602 07 12 06

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko gertu nago, baita etxean bertan bizi izaten ere. 631 59 67 91

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo elkarteak garbitzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 603 63 21 99

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edota baserriko lanak egiten lan egingo nuke. Sukaldean ondo moldatzen naiz eta dietista moduan lan egindakoa naiz. Zaintza ikasketak ere baditut. 693 72 41 66

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edota taberna eta abarren garbiketak egiten lan egingo nuke. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 666 92 49 92

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke egun osoz, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gomendiozko gutuna daukat. 664 12 43 25

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 07 97
www.inmokoroeti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Bolun 135 m²ko Elkartea salgai. Hornitua. 123.600€.
- Angiozarren Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena ekipatua eta martxan.
- San Antón Abad 71 m², 3 logela. 2 aparkaleku eta txokoarekin. 85.000€.
- San Lorenzo 85 m², 3 logela, garaje eeta trastelekuarekin. 150.000€.
- Espaloia 95 m², 3 logela. Garajea eta trastelekuarekin.
- Irizar pasealekua. 3 logela, igogailuarekin. 200.000€.
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m2ko terrazarekin. 132.600€.
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m2ko terrazarekin. 107.100€.
- Ibargarai 73 m², 3 logela. 235.000€.
- Zubieta 110 m², 3 logela. Ortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000€.
- Fraizkozuri 162 m², 4 logela. Trastelekuarekin.
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m2ko terrazarekin. 115.000€.
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000€.
- Angiozar 170 m², duplexa. Garajea, txokoa eta 180 m2ko lur sailarekin.
- Artekale 47 m², 2 logela. Berriztua. Trastelekuarekin. 100.000€.
- Barrenkale 113 m², 3 logela, duplex berria. Igogailuarekin.
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 150.000€.
- San Lorenzo 65 m², 2 logela. Garajea eta trastelekua aukeran. Berria. 200.850€.
- Zubiaurre 70 m², 2 logela. Erabat berriztua 180.000€.
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000€.
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000€.
- Bidekurutzeta 71 m², 2 logela, erabat berriztua. Igogailua eta terraza haundiarekin. 204.344€
- Angiozar 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000€.
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000€.
- Aranerreka 79 m², 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.850€.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 85.000€ PREZIO JEITSIERAREKIN
- Ibargarai, 60m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000€.
- Matxiategi, 115m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berriztua. Oso ondo.o.

**ANTZUOLA:**
- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000€.
- Sagasti 86 m². 3 logela. 163 m2ko terrazarekin. AUKERA BIKAINA. 216.364€.
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202€.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Aiherra 83m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000€.

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90m² lursaila.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000€. AUKERA BIKAINA.

**LAN ESKAINTZA**

SURADESA

**ARKITEKTOA**
(ERRELEBO KONTRATUA)

**Izena emateko epea:** Otsailaren 27tik martxoaren 6ra arte (biak barne)

**Oinarri arauak: SURADESAN**
(Nafarroa etorbidea 17, behea, Arrasate)
07:30etatik 14:00etara
eta **webgunean** jaso daitezke:
http://www.debagoiena.eus/es/suradesa

LEHENDAKARIA

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia dut. Orduka edo etxean bertan bizi izaten ere bai. Lege paperak ditut. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 603 63 31 55

**Debagoiena.** Neska arduratsu eta esperientziaduna lanerako gertu. Umeak zaindu, orduka garbiketak egin edota nagusiekin egon eta paseoan ateratzeko laguntzen. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak zaintzeko edo atari, taberna eta abarren garbiketa egiteko. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 632 33 20 46

**Debagoiena.** Neska arduratsua sukaldaritza eta geriatria ikasketak dituena, lan bila dabil. Nagusiak zaindu, zerbitzari lanak egin eta abar. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 615 06 28 04

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu, etxeetan gaixoak zaintzeko edo ospitalean. Geriatriako tituluduna. Autoa daukat. Eskarmentu handia. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 600 00 51 60

**Debagoiena.** Neska langile eta arduratsua nagusi eta umeak zaintzeko edo garbiketak egiteko gertu. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 603 34 58 20

**Debagoiena.** Orduka edo asteburuetan nagusiak eta umeak zainduko nituzke. Baita garbiketa lanak egin ere. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 610 99 70 46

**Debagoiena.** Orduka, egun osoz edo gauez lan egingo nuke, nagusiak zaintzen edo garbitasunean. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 606 64 16 09

**Debagoiena.** Pertsona aditua prest adineko pertsonen zaintza eta ardurarako. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 696 70 55 09

**Debagoiena.** Sukaldari laguntzaile, garbitasun lanetan edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Ostalaritzan lan egindakoa naiz bai garbiketan eta baita sukaldean laguntzen ere. Autoa daukat. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 636 11 23 40

**Debagoiena.** Ume eta nagusiak zaindu edota garbitasun lanak egingo nituzke. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 630 74 67 61 edo 943 71 46 60

**Debagoiena.** Umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu nago. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 943 71 46 60

**Gidari.** C+E eta gai arriskutsuak eramateko gidabaimenak dauzkat. Jaso-makina baimena eta elektro-mekanika LH1 prestakuntza. Eskarmentua dut gidatzen, mekanikari, banaketan eta ostalaritzan. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 676 57 44 18

**Lan bila.** Emakume arduratsu eta eskarmentuduna, etxean bertan bizi izaten, egun osoz, lan egiteko gertu. Edozein herritan lan egingo nuke. Margarita Claros Salazar. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 632 85 03 84

**Lan bila.** Garbitasunean, zerbitzari, sukaldari edota tailerrean lan egingo nuke. Autoa daukat eta berdin zait Euskal Herriko zein lekutan. (Tariq). 602 85 04 03

**Sukaldaria.** Esperientziadun sukaldaria lanerako gertu: menuak, pintxoak, ogitartekoak eta abar egiten urtetan aritutakoa. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 666 83 21 95

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Oñati.** Ingeleseko eskola partikularrak hartuko lituzke Batxilergoko lehenengo mailako ikasle batek. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 627 91 23 21

### 503. BESTELAKOAK

**Gitarra.** Gitarra joten ikasi gura baduzu, nik doan irakatsiko nizuke. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 673 61 31 27

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Altzariak salgai.** Bigarren eskuko sofak, armairuak, telebistarako altzariak eta abar salgai. Prezio interesgarriak. Argazkiak 'Segundamano.es' web orrian, "Gipuzkoa-Onati" bidez bilatu, edo whatsappez bidaliko dizkizut. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 651 70 85 13

### 804. HARTU

**Bizikletak.** Botatzeko dagoen edo erabiltzen ez duzun bizikleta baduzu, nik jasoko nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. Inaki. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 699 06 23 95

### 805. TRUKATU

**Frantses-Gaztelera trukea.** Kaixo, Ophelie naiz, 20 urteko neska frantsesa, eta Bergaran dihardut umezain. Gaztelera hobetu eta lagunak egin gura nituzke. Nik frantsesa erakutsiko nizuke eta zuk niri gaztelera. Ingelesez ere badakit. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 00 33 788 06 71 08

### 807. AURKITU

**Brotxea Bergaran.** Domekan, otsailaren 8an, brotxe bat aurkitu nuen Santa Marinako aparkalekuan. Galdu baduzu, deitu zenbaki honetara: 615 79 61 16

**Ipod-a Aretxabaletan.** Zapatuan, otsailaren 7an, Ipoda aurkitu nuen San Migel inguruan. Galdu baduzu, galdetu Udaletxean.

### 808. BESTELAKOAK

**Arrasate.** Entrenatzaile pertsonal titulua eta eskarmentua daukan entrenatzaile baten bila nabil, astean ordu batzuk entrenatzeko. Interesatuok, mesedez, mezua bidali helbide honetara: laguntzen@gmail.com

**Otsailaren 28an BEC-era.** Otsailaren 28an, 09:00etan, azterketa bat daukat BEC-en. Zuk ere ordu horretarako joateko asmoa baduzu eta autoa eta urduritasuna konpartitu nahi badituzu, deitu! Bergaran bizi naiz.: 615 73 45 53

**Sagardotegira irteera.** 10 pertsonaz osatutako neska kuadrila, martxoaren 14an sagardotegira autobusez joateko jende bila dabil. Irteera Arrasatetik izango litzateke. Interesatuok deitu edo bidali whatsappa telefono honetara: 648 60 09 57

## ZORION AGURRAK



BERGARA
**Xabier Mugica**
Martxoaren 4an, 11 urte. Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu asko etxekoen partetik. Zorionak, txapeldun!



ANTZUOLA
**Laiene Kortabarria Otaegi**
Martxoaren 3an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu potolo bat etxekoen partetik.



ESKORIATZA
**June Fernandez Sedano**
Martxoaren 2an, 10 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat etxekoen eta, bereziki, Ikerren partetik.



ARRASATE
**Luken Ugarteburu Aranzabal**
Martxoaren 2an, 14 urte. Zorionak, *guapo*! Muxu handi-handi bat etxeko guztien partetik, bereziki Ederrena, Aisharena eta Kairena.



OÑATI
**Lur Hernandez Otxo-Aizpurua**
Martxoaren 2an, 2 urte. Zorionak, pototi! Bi urtetxo! Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat familiaren eta, bereziki, Aimarren partetik. Mua-mua!



OÑATI
**Lexuri Altube**
Martxoaren 2an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Jada lau urte! Zein handi egin zaren! Muxu goxo-goxoak etxeko guztien eta, batez ere, Laiatzen partetik. Mundiala zara, polit hori!



ANTZUOLA
**Naiara Garitano Garitano**
Martxoaren 1ean, 2 urte. Zorionak, printzesa! Muxu potolo-potolo bat etxeko guztien partetik.



BERGARA
**Jon eta Ander Basauri Davila**
Martxoaren 1ean, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bana etxekoen eta, batez ere, Unairen partetik!



ARETXABALETA
**Xabier Del Teso**
Martxoaren 1ean, 5 urte. Zorionak Otxandixoko txapeldunari! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu potolo bat aitItaren, amamaren eta tio Ikerren partetik.



BERGARA
**Unai Bolibar Amor**
Otsailaren 28an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eguna. Belarritik hiru tirakada eta muxu handi bat etxeko danon partetik!



OÑATI
**Eneko eta Maider Alberdi Gil**
Otsailaren 28an, 8 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen urtebetetzian eta muxu handi bat Aneren, aitatxoren eta amatxoren partetik.



OÑATI
**Urko Gomez Barrena**
Otsailaren 28an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo handi bat familiakoen eta, batez ere, Danelen partetik.



OÑATI
**Eritz Cerqueira**
Otsailaren 27an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat Bittorren, Leyreren eta Nahiaren partetik.



ANTZUOLA
**Haizea Jauregi Beitia**
Otsailaren 27an, 10 urte. Urte askotarako, Haizea! 10 muxu eta 10 belarri tirakada. Ondo-ondo pasatu zure ospakizunetan. Maite zaitugunon partetik!



BERGARA
**Sara Sotil Barrio**
Otsailaren 26an, 3 urte. Zorionak, Sara! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Patxo handi bat etxekoen partetik. Bereziki Aratz eta Unai.



ARRASATE
**Eider Balantzategi**
Otsailaren 26an, 3 urte. Zorionak, sorgintxo! Hiru urte jada. Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Patxo handi-handi bat familiako guztien partetik.



BERGARA
**Beñat Askargorta**
Otsailaren 26an, 8 urte. Zorionak, Beñat! Etxeko txikixa handixa ein jaku! Segi zaren bezain alaixa izaten. Asko maitxe zaitxugu, Txito! Patxo handi bat etxeko danen partetik!



BERGARA
**Igor Larrañaga Agirre**
Otsailaren 25ean, 5 urte. Zorionak, *rubio*! Patxo potolo bat etxekoen eta, bereziki, Eleneren partetik.



ARETXABALETA
**Andoitz Gomez Iturbe**
Otsailaren 24an, 7 urte. Zorionak zure urtebetetzean! Zorionak eta urte askotarako! Zorionak belarritik tiratzean! Zorionak eta musu erraldoiak zuretako.



ARRASATE
**Danel Zabala**
Otsailaren 24an, 6 urte. Zorionak! Denok batera izugarri ondo ospatuko dugu zure egun berezi hau! Patxo asko-asko zuretzat, Haizearen, aitatxoren eta amatxoren partetik.



ARRASATE
**Eder Luengo Elkoro**
Otsailaren 23an, 8 urte. Zorionak, *guapo*! Muxu handi-handi bat etxeko guztien partetik, bereziki Aisharena, Kairena eta Lukenena.



ESKORIATZA
**Maren Bruña Gonzalez**
Otsailaren 23an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu eta jarraitu horrela! Maite zaitugu. Zure gurasoen partetik, muxu erraldoi bat!



ARRASATE
**Mara Garcia Martin**
Otsailaren 23an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Bi urtetxo jada! Primeran ospatuko dugu! Muxu potolo-potolo bat amatxoren eta aitatxoren partetik!



ARAMAIO
**Izaro Ezpeleta Etxeberria**
Otsailaren 22an, 5 urte. Zorioanak, printseza! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu potolo-potolo bat etxeko guztien partetik!



BERGARA
**Aitor Irizar Galarraga**
Otsailaren 21ean, 2 urte. Zorionak, maitxia! Bi urte! Patxo erraldoiak etxeko danon partetik, bereziki Julen eta Enekorenetik.



BERGARA
**Ander Ilarduia Arteaga**
Otsailaren 20an, 3 urte. Zorionak, mutil handi! Patxo potolo pila bat gure bitxo politxari!



ARRASATE
**Mabel Sanchez**
Otsailaren 20an, 24 urte. Zorionak, Mabel! Oso ondo pasatu zure eguna etxekoen partetik! Muxu handi bat.



OÑATI
**Oihana Uribarren**
Otsailaren 20an, 4 urte. Zorionak, Oihanita, zure familia guztiaren partetik.. Muxu handi bat zuretzako eta jarraitu holako poxpolina izaten. Polakeraz esaten den bezala, 'Gratulacje'. Maite zaitut.



ARETXABALETA
**Lorea Garcia Martinez**
Otsailaren 20an, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Oso ondo pasatu zure bigarren urtebetetze eguna. Patxo handi bat familixa danaren partetik.



ANTZUOLA
**Goiatz Atxa Irizar**
Otsailaren 19an, 4 urte. Zorionak! Patxo bana, danon partetik.



ERGARA
**Haizea Sanchez**
Otsailaren 19an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure laugarren urtebetetzea. Familia osoaren eta, bereziki, tata Noemiren eta Heleneren partetik! Muxu handi bat.



OÑATI
**Izar Gil Albizu**
Otsailaren 19an, 6 urte. Gure etxeko lore ederrak sei urte egin ditu. Zorionak, maittia, etxeko denon partetik. Asko maite zaitugu.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.
**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## ASTEA GOIENAN



GOIENA

### Oñatiko Udaleko kontuak

Oñatiko Udalak eguenean izan zuen osoko bilkura, eta bertan esandakoak eta izandakoak osorik ikusteko aukera izango da. Hainbat diru laguntza, zerga ordenantzen aldaketak, EH Bilduren hiru mozio eta gehiago landu zituzten.

**'Osoko bilkura: Oñati'**
Egubakoitza, 22:00etan.



GOIENA

### Mikel Gonzalezi elkarrizketa

*Galdegazte* saioan, datorren astean Mikel Gonzalez futbolari arrasatearrari egingo dizkiote galderak Aretxabaletako Kurtzebarri Institutuko Asier Ortiz de Mendibilek, Jago Zuazuak eta Dorleta Ezeizak. Miren Arregik aurkezten du.

**'Galdegazte'**
Eguaztena, 22:00etan.

## GOIENA TELEBISTA

### EGUBAKOITZA, 27

**12:00** Debagoiena Zuzenean
**12:30** Berriak
**13:00** Ertzak
**13:55** Zorion agurrak
**14:00** Debagoiena Zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Amaia DJ
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena Zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Aizank!
**17:35** Ikusmira
**18:00** Ur eta lur
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Galdegazte
**19:30** Amaia DJ
**20:00** Debagoiena Zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena Zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Osoko bilkua: Oñati
**23:00** Debagoiena Zuzenean
**23:30** Berriak
**00:00** Ahotsenea
**00:30** Debagoiena Zuzenean
**01:00** Berriak

### ZAPATUA, 28

**10:00** Amaia DJ
**10:30** Idemtitateak
**11:15** Debagoiena Zuzenean
**11:55** Astea iruditan
**12:00** Harira
**12:30** Galdegazte
**13:00** Onein
**13:30** Osoko bilkua: Oñati
**14:30** Harira
**15:00** Debagoiena Zuzenean
**16:00** Ahotsenea
**16:00** Astea iruditan
**16:30** Osoko bilkura: Bergara
**19:00** Debagoiena Zuzenean
**20:00** Astea iruditan
**20:00** Harira
**20:30** Amaia Dj
**21:00** Osoko bilkura: Arrasate
**21:45** Galdegazte
**22:15** Debagoiena Zuzenean
**23:10** Astea iruditan
**23:15** Harira
**23:45** Ahotsenea
**00:15** Amaia DJ

### DOMEKA, 1

**10:00** Debagoiena Zuzenean
**10:55** Astea iruditan
**11:00** Ahotsenea
**11:30** Amaia DJ
**12:00** Osoko bilkura: Arrasate
**12:40** Sagarrondotik
**13:30** Debagoiena Zuzenean
**14:25** Astea iruditan
**14:30** Harira
**15:00** Zorion Agurrak
**15:05** Osoko bilkua: Oñati
**16:00** Amaia DJ
**16:30** Debagoiena Zuzenean
**17:25** Astea iruditan
**17:30** Galdegazte
**18:00** Sagarrondotik
**19:00** Harira
**19:30** Osoko bilkura: Bergara
**22:00** Galdegazte
**22:30** Amaia DJ
**23:00** Debagoiena Zuzenean
**23:55** Astea iruditan
**00:00** Ahotsenea
**00:30** Harira
**01:00** Galdegazte

### ASTELEHENA, 2

**12:00** Debagoiena Zuzenean
**13:00** Onein
**13:30** Debagoiena Zuzenean
**13:30** Zorion Agurrak
**14:30** Berriak
**15:00** Ahotsenea
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena Zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Aizank!
**17:35** Sagarrondotik
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Harira
**19:30** Amaia DJ
**20:00** Debagoiena Zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena Zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harmailatik
**22:30** Debagoiena Zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Ahotsenea
**00:00** Debagoiena Zuzenean
**00:30** Berriak

### MARTITZENA, 3

**12:00** Debagoiena Zuzenean
**12:30** Harmailatik
**13:00** Ikusmira
**13:20** Aizank!
**13:55** Zorion agurrak
**14:00** Debagoiena Zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Harmailatik
**15:30** Onein
**15:55** Zorion Agurrak
**16:00** Debagoiena Zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Ertzak
**18:00** Amaia DJ
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Galdegazte
**19:30** Harmailatik
**20:00** Debagoiena Zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena Zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harira
**22:30** Debagoiena Zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Harmailatik
**00:00** Debagoiena Zuzenean
**00:30** Berriak

### EGUAZTENA, 4

**12:00** Debagoiena Zuzenean
**12:30** Harira
**13:00** Idemtitateak
**13:45** Ikusmira
**13:55** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena Zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Harira
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena Zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Sagarrondotik
**18:00** Aizank!
**18:30** Berriak
**18:55** Zorion Agurrak
**19:00** Amaia DJ
**19:30** Harira
**19:55** Zorion Agurrak
**20:00** Debagoiena Zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena Zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Galdegazte
**22:30** Debagoiena Zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Harira
**00:00** Debagoiena Zuzenean
**00:30** Berriak

### EGUENA, 5

**12:00** Debagoiena Zuzenean
**12:30** Galdegazte
**13:00** Sagarrondotik
**14:00** Debagoiena Zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Galdegazte
**15:25** Zorion Agurrak
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena Zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Ikusi irratia
**18:00** Ur eta lur
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Ahotsenea
**19:30** Galdegazte
**20:00** Debagoiena Zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena Zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Amaia DJ
**22:30** Debagoiena Zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Galdegazte

## ARRASATE IRRATIA

### Arrasateko emakume margolariak, protagonista

FMko 107.7ko autobusa martxan da berriro, eguena ezkero. Astelehenean irekiko da Kulturaten *Artean, hamaika emakume artista* izeneko erakusketa, Arrasateko emakume margolarien lanena, eta horren inguruko elkarrizketa entzun ahal izango da Arrasate Irratian.

### Zozketa: Bigboy-ren kontzertua eta 'Itzalak-Txoriak'

*Kooltur Ostegunak* egitasmoak Zumaiako Bigboy taldea ekarriko du eguenean Arrasatera; bestalde, egubakoitzean, Dantzaz taldeak *Itzalak-Txoriak* izeneko emanaldia egingo du Amaia antzokian. Bada, bietarako sarrerak zozkatuko dira. Parte hartzeko: *irratia@goiena.eus*.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Egubakoitza, 27** | AMEZUA | Santa Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| **Zapatua, 28** | MORALES | Araba, 14 | 943 79 18 65 |
| **Domeka, 1** | RUIZ | Nafarroa, 1 | 943 79 14 09 |
| **Astelehena, 2** | ETXEBERRIA | Zarugalde 42, 44 | 943 77 16 30 |
| **Martitzena, 3** | ALBERTO AZCOAGA | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| **Eguaztena, 4** | M. FCA. AZCOAGA | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| **Eguena, 5** | FDEZ. CORCUERA | M. Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| **BERGARA** | | | |
| **Egubakoitza, 27** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Zapatua, 28** | ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| **Domeka, 1** | ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| **Astelehena, 2** | ALVAREZ-MOZOS | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| **Martitzena, 3** | URRITIKOETXEA | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |
| **Eguaztena, 4** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Eguena, 5** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **OÑATI** | | | |
| **Egubakoitza, 27** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 11 28 |
| **Zapatua, 28** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Domeka, 1** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Astelehena, 2** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Martitzena, 3** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Eguaztena, 4** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Eguena, 5** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |

**Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofgipuzkoa.com).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA



**Max.** 12º
**Min.** 5º

**ZAPATUA, 28**
Apur bat hobera egingo du eguraldiak, baina, hala ere, euri pixka bat egingo du. Hego-mendebaldeko haizea ibiliko da.



**Max.** 13º
**Min.** 5º

**DOMEKA, 1**
Zapatuaren antzera egingo du, baina haizeak mendebaldetik joko du, hegoaldeko ukiturik gabe. Tenperatura, egonkor.

### EUSKAL HERRIA



Goizean baliteke hodeitza saretzea, eta hoztu egingo du. Araba eta Nafarroan izotza egin dezake.

## GAZTE INFORMAZIOA

### BEKAK

**Gazteria arloko 2015eko diru laguntzak: egitarauak eta jarduerak burutzekoak eta mugikortasuna eta elkartrukea gauzatzekoak.**
Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Gazteria eta Kirol Zuzendaritza. Baldintzak: irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko, publiko eta pribatuak (ikusi baldintza guztiak deialdian).

**Atzerrian ikasteko Botin bekak.**
Erakusketa komisariatua eta museo kudeaketa. Botin Fundazioa. Baldintzak: Espainiako nazionalitatea izatea. Arte Ederretan, Artearen Historian, Filosofia eta Estetikan, Literatura, Humanitateetan edo Artearen Kritikan unibertsitate titulua izatea. 23 eta 40 urte bitarteko pertsonak. Herrialdeko hizkuntza jakitea. Zenbatekoa: 18.000 € + 12.000 €. Epea: maiatzak 8.

### LANA

**Lan eskaintza publikoa: kulturarako komunikaziorako erdi-mailako teknikaria.**
Errenteriako Udalak kulturarako komunikaziorako erdi-mailako teknikari bat bitarteko funtzionario gisa hautatzeko deialdia argitaratu du. Baldintzak: 1.- 16 urte beteak edukitzea eta nahitaezko erretiroa hartzeko adin maximoa pasa gabea. 2.- Honako titulu hau edukitzea edo hori eskuratzeko eskubideak ordainduak izatea: Kazetaritzako, Ikus-entzunezko Komunikazio edo pareko gradua izatea, edo kazetaritzako lizentziaturako edo pareko lehen 3 urteak gainditutа izatea. 3.- Euskarako 34. hizkuntza-eskakizunaren jabe izatea. Epea: Martxoak 10.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

OROIGARRIA

## Felisa Murguzur Yarza



Jose Aguirre Balanzategiren alarguna
—Goian bego—

Donostian hil zen 2015eko otsailaren 23an, 99 urte zituela.

*Belaunaldien arteko zilbor-hestea,*
*joan zirenen, izan garenon eta etorriko direnen zaindaria.*
*Mende oso baten lekuko diren begiak itzali arren,*
*munduari begiratzeko zure moduak gugan dira.*
*Betirako zure altzoan, betirako gure alboan.*

**Etxekoak.**
**Arrasaten, 2015eko otsailaren 27an.**

OROIGARRIA

## Rosa Madina Sagarduy

Oñatin hil zen 2015eko otsailaren 23an, 60 urte zituela.

*Lankide fin eta borrokalari nekaezin*
*beti edukiko zaitugu bihotzean gurekin.*

**Fagor Elektronikako adiskideak.**
**Arrasaten, 2015eko otsailaren 27an.**

ESKER ONA

## Hilario Etxaniz Egino



Osintxun hil zen 2015eko otsailaren 24an, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

**Bergaran (Osintxu), 2015eko otsailaren 27an.**

URTEURRENA

## Jose Iria Orue



Arrasaten hil zen, 2014ko otsailaren 27an.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 1ean, 11:00etan,
Garagartzako San Migel elizan.
—

*Urtea pasa dela*
*denok daukagu buruan*
*oroimeneko momentuak*
*sarritan gure goguan*

*ziur gaude gu zaintzen*
*zaudetela elkarren onduan*
*bi izar berri daudelako*
*Garagartzako zeruan.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.**
**Arrasaten (Garagartza), 2015eko otsailaren 27an.**

URTEURRENA

## Sabino Bengoa Etxabe



Aretxabaletan hil zen 2014ko otsailaren 24an, 89 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
martxoaren 1ean, 11:30ean,
Aretxabaletako Jasokundeko amaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.**
**Aretxabaletan, 2015eko otsailaren 27an.**

MEZA



## Antonio Perez Larrañaga

Bergaran hil zen 2015eko otsailaren 18an, 87 urte zituela.



## Felix Perez Larrañaga

Bergaran hil zen 2015eko urtarrilaren 16an, 82 urte zituela.

*Mila esker zuen adiskidetasun, konpainia eta eskuzabaltasunagatik.*
—
Haien aldeko meza domekan izango da, martxoaren 1ean, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.
Bertaratuko zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko.

**Bergaran, 2015eko otsailaren 27an.**

## HILDAKOAK

**Antonio Perez Larrañaga.** Bergaran, otsailaren 18an. 87 urte.

**Isabel Untzueta Abaigar.** Eskoriatzan, otsailaren 19an. 87 urte.

**Pedro Bengoa Ruiz de Arbulu.** Bergaran, otsailaren 19an. 79 urte.

**Regina Igartzabal Guridi.** Oñatin, otsailaren 20an. 91 urte.

**Victorino Martinez Aparicio.** Oñatin, otsailaren 20an. 79 urte.

**Romana Lopez Basuela.** Bergaran, otsailaren 21ean. 86 urte.

**Jose Mari Azkune Zubia.** Oñatin, otsailaren 21ean. 91 urte.

**Jose Inazio Zabala Bergara.** Arrasaten, otsailaren 21ean. 50 urte.

**Rosa Madina Sagarduy.** Oñatin, otsailaren 23an. 60 urte.

**Felisa Murguzur Yarza.** Donostian, otsailaren 23an. 99 urte.

**Bizente Santa Cruz Beloki.** Aretxabaletan, otsailaren 23an. 96 urte.

**Jose Anduaga Arregi.** Toledon, otsailaren 23an. 88 urte.

**Hilario Etxaniz Egino.** Bergaran, otsailaren 24an. 90 urte.

**Porfirio Ruiz de Egino Lopez de Okariz.** Arrasaten, otsailaren 25ean. 83 urte.

MEZA

## Jose Anduaga Arregui



Toledon hil zen 2015eko otsailaren 23an, 88 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza zapatuan, otsailaren 28an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian izango da.
Bertaratu zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.
—
Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
mila esker.

**Oñatin, 2015eko otsailaren 27an.**

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*

## EZKONTZAK



### Ander eta Naiara

Ander Korkostegi eta Naiara Urzelai oñatiarrak martxoaren 5ean, eguenean, ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu eta patxo handi bana biei, etxeko danon partetik eta Nepal aldean ere ondo ibili. Aupa Ander eta Naiara!".

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo *eskelak@goiena.eus*

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Goiena Klubeko bazkideendako 118 euro.
**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**
**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
**BERGARA** Jardun elkartea: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 36 61 605 71 24 69
**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 78 80 80.
**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



## ZINEMA

### ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

**Whiplash**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Into the woods**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### OÑATI

KULTURA ETXEA

**50 sombras de Grey**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Bob Esponja: un heroe fuera del agua**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### ARETXABALETA

ARKUPE

**Descifrando el enigma**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Paddington**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

COLISEO

**Paso a paso**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Kingsman**
Zapatua: 19:45.
Astelehena: 20:30.

**Mr. Turner**
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.

ANTZOKIA

**No llores, vuela**
Zapatua: 17:00, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Annie**
Domeka: 17:00.

**Kingsman**
Domeka: 20:00.

### GASTEIZ

FLORIDA

**El francotirador**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45.

**Dixie y la rebelion zombie**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Stand by me Doraemon (euskaraz)**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**La teoria del todo**
Egubakoitzetik eguenera: 17:15.

**Birdman**
Egubakoitzetik eguenera: 20:00.

**La isla minima**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Big hero 6**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Samba**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Bob esponja: un heroe fuera del agua**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**50 sombras de Grey**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**El libro de la vida**
Egubakoitza: 16:45.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:45.

**Ex-machina**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera:17:00, 19:00.

**Timbuktu**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 21:00.

**Wiplash**
Egubakoitzetik domekara: 16:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Simplemente Alice**
Egubakoitzetik domekara: 18:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

**Ida**
Egubakoitzetik domekara: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 21:00.

**Kingsman**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:45,20:15.

BOULEVARD

**Ex-machina**
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 15:45.
Eguaztena: 15:45.

**Kingsman: servicio secreto**
Egukaboitza eta zapatua: 23:40.
Egubakoitzetik eguenera: 18:25, 21:00.
Zapatua eta domeka: 15:50.
Eguaztena: 15:50.

**La mujer de negro: el angel de la muerte**
Egubakoitza eta zapatua: 23:35.
Egubakoitzetik eguenera: 17:35, 19:35, 21:35.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:35.

**Samba**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 19:30, 22:00.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 17:00.

**Paso a paso**
Zapatua: 16:00.

**Paso a paso (euskaraz)**
Domeka: 16:00.

**50 sombras de Grey**
Egubakoitza eta zapatua: 23:45.
Egubakoitzetik eguenera: 17:35, 18:45, 20:05, 21:15, 22:35.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 16:15.

**Boyhood**
Egubakoitzetik eguenera: 20:30.

**El francotirador**
Egubakoitza eta zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik eguenera: 18:45, 21:30.
Zapatua eta domeka: 16:00.

**El libro de la vida**
Egubakoitzetik eguenera: 18:10.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 16:10.

**La teoria del todo**
Egubakoitzetik eguenera: 20:10.

**El destino de Jupiter**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**The imitation game**
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.

**Big hero 6**
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:30.

**Paddington**
Zapatua, domeka eta astelehena: 15:30.

**The interview**
Egubakoitza eta zapatua: 23:45.

**Annie**
Egubakoitzetik domekara: 18:00.

**Bob esponja: un heroe fuera del agua**
Egubakoitza eta domeka: 16:00, 18:00.
Zapatua: 16:00, 18:00, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 18:00.
Eguaztena: 16:00.

**Las ovejas no pierden el tren**
Egubakoitza eta domeka: 22.30, 00:45.
Zapatua: 00:30.
Astelehenetik eguenera: 22:30.

**Birdman**
Egubakoitza eta domeka: 20:00.
Zapatua: 22:00.

**La isla minima**
Egubakoitza eta zapatua: 00:40.
Egubakoitzetik eguenera: 22:35.

**Into the woods**
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Dios mio, ¿pero que te hemos hecho?**
Astelehenetik eguenera: 18:00.
Eguaztena: 18:30.

**El gran hotel Budapest**
Eguaztena: 22:30.

KRITIKA

# Filtrorik gabeko pertsonaia

**NIGTHCRAWLER** ★★★★☆
**Zuzendaria:** Daan Gilroy.
**Herrialdea:** AEB.
**Aktoreak:** Jake Gyllenhaal, Rene Russo, Riz Ahmed, Bill Paxton.

Pelikularen hasieran ikusten dugu pertsona bat hesiak mozten, ostean lortutako alanbrea saltzeko. Salerosketako negozioetan aritzen da Jake Gyllenhaalek egiten duen pertsonaia. Orrazkera atzera botata, argala eta oso begirada kezkagarriarekin, berehala antzematen da lapur arrunt bat baino gehiago dela. Mugitzeko tankerak, berba egiteko moduak, erabilitako hizkerak eta, batez ere, itxura lasaiarekin batera erakusten duen begirada sarkorrak oso pertsonaia berezi baten aurrean gaudela adierazten dute. Eta pertsonaiaren ekintzek argi erakusten dute psikopata hutsa dela.

*Nightcrawler* komunikabideen munduan sartzen da. Informazioren eta ikuskizunaren arteko mugak nahasten dira. Komunikabideak gertaera txundigarrien atzetik doaz ahalik eta irudi gordinenak lortzeko. Ikuskizunak benetan garrantzia duten notiziak ezkutatzen ditu. Horrela, notiziak ikuskizun bihurtzen dira, eta, kasu askotan, etika alde batera uzten da negozioa indartzeko. Dena den, *Nightcrawler*-ek argi eta garbi erakusten ditu gaur egungo komunikabideen estrategiak, baina ez da hor geratzen: adierazitakoa istorioaren abiapuntua da. Egoera horretan psikopata bat sartzen denean, filma *thriller* aztoratzaile bihurtzen da.

Jake Gyllenhallek egiten duen interpretazioa zoragarria da. Pertsonaiak ez du filtrorik: beti pentsatzen duena esaten du eta ekintza guztiak hoztasun osoz egiten ditu, zalantzarik gabe eta aladurarik gabe. Bere pauso guztiak jarraitzen ditugu. Pertsonaia mundu horretan sartu da eta ez du duda izpirik izango egin behar duena egiteko. Tentsio igoera hori oso ondo neurtuta dago. Agian, azken zatian badaude soberan dauden elkarrizketa batzuk, horiek adierazten dutena lehendik ondo azalduta zegoelako, baina hala eta guztiz *Nightcrawler* oso lan interesgarria da.

ANTONIO ZABALA



TYTTITHUSBERG.BLOGSPOT.COM

**OÑATI 'Maitasun ostean maitasuna' antzezlana**
Dora Salazar artista plastikoaren irudiak oinarri hartuta sortu du antzezlana Garbi Losadak. Hiru ahotsetan planteatutako maitasun istorioa da. Aktore lanetan Ane Gabarain, Dorleta Urretabizkaia eta Sara Cozar egongo dira.
Etzi, domeka, Santa Ana aretoan, 22:00etan.



**BERGARA Tapoi Fest**
Bi eguneko jaialdia egingo dute gaztetxean. Askotariko taldeak egongo dira: egubakoitzean, Ernia, Meltdown, Hilkar eta Drop; eta zapatuan, Aciidente, Managaitz, Perras Salvajes eta Sofa taldeak eta Pantxiñon eta Romano DJak. Hardcore estiloa lantzen duten taldeak dira gehienak. Sarrerak, bost euro.
Gaur eta bihar, gaztetxean, 22:00etan.

# NON-ZER

OTSAILA **27**
MARTXOA **5**

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**OÑATI Poesia emanaldi musikatua**
Olerki saioaren izenburua da: *Burdin hariak eta plastikozko goilarak*. Oier Gonzalez eta Markel Ormazabal preso ohiek euren gaztaroko zati handi bat igaro dute kartzelan. Olerki saio musikatu horretan, euren bizitzako etapa horretaz dihardute.
Gaur, egubakoitza, Antixenan, 20:00etan.

**OÑATI Ray Fernandez**
Lehen aldiz joko du Euskal Herrian musikariak, nahiz eta Kubako euskaldunen lagun handia izan eta inoiz Ruper Ordorikarekin ere jo izan duen. Tobadoretzat du bere burua Fernandezek eta bere poesian batzen ditu kantagintza kubatar zaharra eta berria.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 23:00etan.

**ARRASATE Arrasate Musikaleko Banda**
Mikel Markiegiren zuzendaritzapean kontzertua egingo dute Arrasate Musikaleko kideek. Doako emanaldia izango da.
Etzi, domeka, Amaia antzokian, 12:30ean.

## ANTZERKIA

**BERGARA Edu Luky**
Edu Lukyk bakarrizketa saioa egingo du.
Gaur, egubakoitza, Agirrebeñan, 22:30ean.

**BERGARA '100 metro karratu'**
Bergarako antzerki zikloaren baitan, Txaloren azken lana. Sara pisu etxe dabil eta, azkenean, gustukoa lortuko du prezio eta leku onean, baina badu zerbait gaizki datorkiona: bertako jabeak bertan bizi beharko du bere azken egunera arte. Iñake Irastortza, Jose Ramon Agirre eta Ana Elordi aktore ezagunak egongo dira oholtza gainean.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 22:00etan.

**BERGARA 'Pankreas'**
Tartean Teatroa taldekoek hiru gizon ipiniko dituzte agertokian: lehenak pankreas transplante baten premia larria dauka; bigarrenak suizidatzeko asmoa dauka eta hirugarrenak proposamen bat egingo dio bigarrenari: suizidioaren epea aurreratzea, lehenengoari bere pankreasa ematеko. Patxo Telleria, Joseba Apaolatza eta Mikel Martinez oholtza gainean.
Etzi, domeka, Zabalotegin, 20:00etan.

**BERGARA 'Izar eta Zenaida: indar magikoa'**
Eidabe kultura elkartearen eskutik, umeendako antzelana.
Etzi, domeka, Zabalotegin, 18:00etan.

## IKUSKIZUNAK

**ESKORIATZA 'El regrueso de Patxi' bakarrizketa**
Gorka Aginagalde umorista eta aktore ezagunak bakarrizketa emanaldia egingo du. Sarrerak kiroldegiko leihatilan edo *www.bibe.me* atarian.
Gaur, egubakoitza, Zaldibarren, 22:30ean.

## GAZTELEKUAK

**BERGARA Irteera eskiatzera**
Valdezcaray eski estaziora joango dira egun-pasa.
Bihar, zapatua, autobus geltokitik, 07:00etan.

**ARETXABALETA Bertso afaria**
Bailarako bertso eskolakoek, Eskoriatza eta Aretxabaletako gaztelekuek eta Arrasateko gazte txokokoek Beñat Gaztelumendi gonbidatu dute.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 20:30ean.

**ARRASATE Mahai-jokoak**
Sexualitatearen inguruko zalantzen kutxa ixteko jokoak.
Etzi, domeka, erdi guneko gazte gunean, 18:00etan.

**ARETXABALETA Zinema emanaldia**
Pelikula bat emango dute.
Etzi, domeka, gaztelekuan, 18:00etan.

**ESKORIATZA Zinema emanaldia**
Pelikula bat emango dute.
Etzi, domeka, gaztelekuan, 18:00etan.

## ERAKUSKETAK

**ELGETA Jorge Murgiondo**
Argazki erakusketa ikusgai.
Martxoaren 8ra arte, Espaloian.

**ARETXABALETA Carlos Diez**
*Inintencionadamente* delako erakusketa ikusteko azken eguna bihar da.
Otsailaren 28ra arte, Arkupen.

**OÑATI Bisoia hizpide**
*Ingurumen mehatxatua; gure bisoia galzorian* delako erakusketa ipini dute Ingurumen Jardunaldien barruan. Domeka da erakusketa ikusteko azken eguna.
Martxoaren 1era arte, kultura etxean,

**ARRASATE Emakume artisten lanak**
*Artean. Hamaika emakume artista* da Ekin Emakume Elkarteak osatu duen erakusketa. Martxoaren 2an zabalduko dute.
Kulturaten, martxoaren 28ra arte.

**ARETXABALETA 'Emakumeak Hushe haranean'**
Felix Iñurrategi Baltistan fundazioari esker, Pakistango Hushe haranean bizi diren emakumeen baldintzen berri emango dute, argazki bidez, martxoaren 7ra arte.
Martxoaren 7ra arte, Arkupen.

## LITERATURA

**BERGARA Ipuin kontaketa**
Amaia Arriaranek *Ipuin festa* delako ipuin kontaketa saioa egingo du umeendako.
Gaur, egubakoitza, haur liburutegian, 18:00etan.




GOIENA



DIARIODEMALLORCA.ES

**ELGETA Monologo Mostra: Quequeren emanaldi bikoitza**
Salamancan jaiotako artista ezagun egin zen *El Club de la Comedia* bakarrizketa saioan. Antzerkian ere ibilitakoa da. Azkenaldian, Dani Rovirarekin eta Javier Coronasekin. Elgetan emanaldi bikoitza egingo du.
Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, Espaloian, 22:30ean.



DURANGO-UDALA.NET

**ARRASATE 'On egin' umeendako antzezlana**
Borobil taldeak sukaldean sartuko ditu neska-mutikoak. Txori batek munduko errezeta guztiak lapurtu zituenetik inork ezin du kozinatu. Guztiek jaten dituzte *Amonioburgerretan* saltzen diren hanburgesak. Sarrerak, bost euro.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan..

**OÑATI Pako Aristi**
Poesia errezitaldia Pako Aristiren eskutik, *Urari ostutako poemak* liburua oinarri hartuta.
Etzi, domeka, gaztetxean, 18:00etan.

**ARRASATE Dorleta Kortazar**
Oihulari Klown taldeko Dorleta Kortazarrek ipuin kontaketa saioa egingo du, 5 urtetik gorako haurrendako.
Martxoaren 4an, Kulturaten, 18:30ean.

## HITZALDIAK

**OÑATI 'Biomimesis. La única vía para la sostenibilidad'**
Roberto Bermejok, ekonomia jasangarriaren irakasle katedradunak, egingo du hitzaldia, Natur Eskolak antolatutako Ingurumen Jardunaldien barruan.
Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:00etan.

**ARETXABALETA Jon Darpon**
Osasun sailburuak Osakidetzaren egoerari buruz berba egingo du, EAJk gonbidatuta. Hitzaldia irekia da herritar guztiendako.
Gaur, egubakoitza, batzokian, 19:00etan.

**ARRASATE Anna Gabrielen hitzaldia**
*Munizipalismoa*-ren inguruan jardungo du Gabrielek.
Etzi, domeka, Irati elkartean, 12:00etan.

**OÑATI 'Aingira espezie mehatxatua eta angulak arrandegian; nola liteke?'**
Biologian doktore eta AZTI-Tekanaliako ikerlari Estibaliz Diazek egingo du berba, Natur Eskolak antolatutako Ingurumen Jardunaldien barruan.
Martxoaren 3an, kultura etxean, 19:00etan.

**OÑATI 'Iraunkortasunerako, trantsizioa'**
Hidrogeologian katedradun Iñaki Antiguedadek egingo du berba, Natur Eskolak antolatutako Ingurumen Jardunaldien barruan.
Martxoaren 4an, kultura etxean, 19:00etan.

## DANTZA

**ARRASATE Herrixa Dantzan**
Patxi Monterok gidatutako dantzaldia, dantza tradizional ludikoekin: taldeka, banaka, korroan, bikoteka...
Gaur, egubakoitza, Uarkapen, 19:30ean.

## IRTEERA

**ELGETA Izkira mendi irteera**
Bospasei orduko mendi irteera Kantsatzeke mendi taldearekin.
Etzi, domeka, Mendizaleen plazatik, 08:00etan.

**ARRASATE Araia-Galarreta**
Arabako lautada integralaren zazpigarren etapa egingo dute Besaidekoek martxoaren 15ean. Izena emateko egunak: martxoaren 9a, 10a eta 11, Besaideren bulegoan (19:30-20:30).
Izen-ematea aipatutako egunetan eta lekuan.

**OÑATI Ollo harana**
Nafarroa aldera joango dira martxoko ibilaldian. Mendian federatua egotea ezinbestekoa da irteeretan parte hartzeko.
Izen-ematea Aloña Mendi tabernan.

## IKUS-ENTZUNEZKOAK

**ARRASATE Laura Martinez eta Aitor Igiñitz**
Laura Martinez eta Aitor Igiñitzen eskutik *Pedalka bizi: 8 urtetan munduan zehar bi gurpilen gainean* ikus-entzunezkoa.
Martxoaren 2an, Kulturaten, 19:00etan.

**ANTZUOLA Nagore Laffage**
2008ko sanferminetan hil zuten Nagore Laffage gaztearen gaineko dokumentala emango dute Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira.
Martxoaren 4an, gaztetxean, 18:30ean.

**ARETXABALETA 'Baltiar arima'**
Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan *Baltiar arima* dokumentala emango dute lehenengo. Ostean, solasaldia egingo dute Felix Iñurrategi Baltistan Fundazioko kide Inazio Arregik, Alberto Iñurrategik eta Txaro Otxandorenak.
Martxoaren 4an, Arkupen, 19:00etan.

## OSPAKIZUNAK

**ARETXABALETA Aingeru Guardakoa**
Zaindariaren eguna ospatuko dute Basotxoko erretiratuek: 11:30ean, meza parrokian; 12:15ean, salda Basotxon; eta 14:00etan, bazkaria Sara jatetxean.
Etzi, domeka, Basotxon, 11:30ean.

## BESTELAKOAK

**ARRASATE Zuhaitzak Meatzerrekan**
Aurreko zapatuan euri-jasengatik ezin, eta oraingoan egingo dute Meatzerreka auzoa biziberritzeko arbola landaketa. San Balerio ermita alboko sailean pinudia zegoen lekuan, bertako espezieak sartuko dituzte.
Bihar, zapatua, San Balerio ermitan, 09:00etan.

## DEIA

**ARETXABALETA Herri programa**
Herri programa osatzeko azken batzarra egingo dute bihar, herritarrekin: ongizatea eta berdintasuna eta garapen ekonomikoa arloak landuko dituzte.
Bihar, zapatua, EAren lokalean, 10:00etan.

**ESKORIATZA 'Eskoriatza berritzen (h)ari gara' bilera**
EH Bilduk batzarra egingo du herritarren ekarpenak jasotzeko.
Bihar, zapatua, kultura etxean, 11:00etan.

## IKASTAROAK

**ANTZUOLA Sabel-dantza tailerra**
Sabel-dantza tailerra egingo dute Torresoroan. Irekia da herritar guztiendako.
Bihar, zapatua, Torresoroan.

**ESKORIATZA Internet prestakuntza**
Eskoriatzako Amuska Emakume Elkarteak teknologia berrien inguruko ikastaroak egingo ditu martxoan, Aretxabaletako KZgunean.
Etzi, domeka, Aretxabaletako KZgunean, 10:00etan.

## AZOKA

**ARRASATE Merkemerkaua**
Ibai-Arte elkarte elkarteko 36 merkatarik udazken-neguko *stock* azoka egingo dute. Saltzaileek kalera aterako dituzte bukatzen ari den denboraldiko produktuak, oso prezio murriztuetan.
Bihar, zapatua, Arrasateko kaleetan, 10:00etan.

**Debagoieneko Lanbide Heziketako esperientziak ezagutuz**

GOIAZ! Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

**GOIAZ! 2015**
*Lanbide Heziketaren Azoka*
Apirilaren 15ean eta 16an;
Kulturaten, Arrasaten.

Prestakuntza arloko eskaintza
Enplegu zerbitzuak
Ekintzaileentzat zerbitzuak
Tailerrak eta hitzaldiak
Aparatuak eta esperimentuak

www.facebook.com/goiazdebagoiena
www.twitter.com/goiazdebagoiena

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoa ekintzailea

**Miguel Altuna Institutuko goi mailako heziketa zikloko ikasleak dira Onintza Langaran eta Argiñe Varela. Lehenengoa Administraritza eta Finantzak ikasten ari da eta bigarrena, Fabrikazio Mekanikoko Diseinua. Biak datoz unibertsitatetik eta biak ari dira bigarren ikasturtea Dual Sistemaren bidez egiten.**

**Zer da Dual Sistema?**
Lehen ikasturtea bukatuta, urtebeterako kontratua daukagu, batak Ekiden eta besteak Fagor Ederlanen. Egunero joaten gara enpresara: eskola daukagun egunetan, arratsaldez; eta eskolarik ez dugun egunetan eta oporretan, berriz, egun osoa egiten dugu enpresan.

**Baldintzaren bat bete behar da Sistema Dualean parte hartzeko?**
(A) Bai. 30 urtetik beherakoa izatea eta ikasketak eta lana bateratzeko gaitasuna izatea. Lan-karga nahiko handia izaten da, eta ondo antolatzen jakin behar da. Ikasketek dute lehentasuna, eta, ikasketa-prozesuan emaitzak onak ez badira, programatik kanpora gera gaitezke.
(O) Nahi beste ikaslerentzat ez da lekurik egon. Enpresa arduratzen da hautaketaz.

**Zer ikasteko aukera eman dizu lan eta ikasi batera egiteak?**
(O) Urtebetean denbora ematen du norberaren lan arloa zelakoa den ezagutzeko. Gainera, eskolan ikasitakoa praktikan ikusten da, eta alderantziz; lanean egindakoa gero gelan ikasten da. Egiten dugun lana asko gerturatzen da laneko errealitatera. Eskolako ordezkariak eta enpresako tutoreak lanaren jarraipen estua egiten dute.



**Zerk bultzatu zaituzte Lanbide Heziketa ikastera?**
(A) Unibertsitatean Topografia amaitu ondoren, langabezian nengoen, eta diseinuarekin eta marrazketarekin lotutako ikasketak egitea pentsatu nuen. Oso gustura nago.
(O) Ekonomia lizentziatura ikasi nuen Bilbon, eta, bi urtez lanean jardun eta gero, erabaki nuen Lanbide Heziketa ikastea; ikastetxean bertan eta Goiaz! azokan informazioa jaso ondoren. Administrazioa gustatzen zitzaidan eta horretan sakondu nahi nuen.

**Zein alde ikusten dituzue unibertsitate-ikasketen eta Lanbide Heziketaren artean?**
(O) Nik ikusi dut LH enpresaren errealitatera bideratuago dagoela. Lizentziatura bideratuago zegoen ikerketara, maila teorikoagoan geratzen zen.
(A) Lanera begira aukerak zabalduko dizkigula uste dut.

**Gomendagarria da Dual Sistema?**
(O) Bai, zalantzarik gabe, merezi du. Baina sakrifizio handia eta konstantzia eskatzen du. Egunero enpresara joateko eskolatik lehentxoago irteten gara, eta hori guztia errekuperatu egin behar da.

# Zorionak denoi!

**Hauek dira Goiena Klubeko otsaileko zozketetako irabazleak**

goienakluba

**Harreman dendako otarra:**
Joxe M. Ugarte Aiastui (Oñati)

**Kosmojet jokoa:**
Bilaitz Marzan Usandizaga (Bergara)

**Kirolaz Badakit jokoa:**
Maitane Loyola Zubia (Bergara)

**KULTURA SARRERAK (BINA SARRERA):**

**"On egin" antzezlana:**
Unai Bergaretxe Leibar (Arrasate)
Maria Gardoki Legorburu (Oñati)

**"Ray Fernandez" kontzertua:**
Xabier Mugartza Aiastui (Oñati)
Irati Pagoaga Zaloña (Aretxabaleta)
Amaia Bikuña Martinez de Zuazo (Oñati)

**"De Cuerpo Presente" antzezlana:**
Ascensio Ramirez (Arrasate)
Loli Zeziaga (Arrasate)

**"Euskadi Brass" kontzertua:**
Tere Azkarreta Jauregi (Bergara)
Unai Bergaretxe Leibar (Arrasate)

**"Zazpi aldiz elur" antzezlana:**
Gorka Bikuña Martinez de Zuazo (Oñati)
Maria Gardoki Legorburu (Oñati)

**SARIAK JASOTZEKO:**
**Beste** Sariak jasotzeko zatoz GOIENAren Arrasateko bulegora.
Harreman dendako otarra, Harreman-ek Arrasateko Eroski Hipermerkatuan duen dendan jaso beharko da.
Beste bi sariak jasotzeko zatoz GOIENAren Arrasateko bulegora. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da.
GOIENA. Otalora Lizentziaduna, 31, Arrasate. 943 25 05 05
Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.




BUKATZEKO

# Etxeko txikiekin egiteko errezetak

▶ Maddi Artzamendi bergararrak umeekin sukaldean egiteko moduko platerak aurkezten ditu 'Puntua'-n

▶ Sukaldaritza zaletasuna du; etxean, amamarengandik jasotako zaletasuna dela azaldu du

**ARANTZAZU EZKIBEL** | BERGARA

Errezeta samurrak, errezeta goxoak eta errezeta jostagarriak. Horrelakoak dira Maddi Artzamendi bergararrak Goienaren egubakoitzetako *Puntua* aldizkarian aurkezten dituenak. Errezeta samurrak izaten dira, etxeko txikienekin egiteko modukoak direlako. Hain zuzen ere, Artzamendik berak ere Telmo eta Miren seme-alabekin egiten ditu errezetok.


Maddi Artzamendi etxeko sukaldean. | MADDI ARTZAMENDI

### Sukaldaritza, afizio

Sukaldaritza Artzamendiren zaletasuna da. Etxean jasotako zaletasuna: "Aitaitak eta amamak taberna bat zeukaten eta beti ikusi izan dut amama sukaldean. Hortik datorkit zaletasuna, etxean ikusi dut eta etxean bizitakoa jaso dut".

Artzamendik Giza Baliabideetako ikasketak eta Irakasle ikasketak ditu; gainera, Berasategi eta Mugaritz jatetxeek osatzen zuten taldean jardun izan du lanean, giza baliabideetako sailean. Sukaldaritza gertutik ezagutzeko aukera izan zuen han; hark egiten duena, ordea, "beste maila" bateko sukaldaritza da. Egunerokoa, etxeko txikienekin egiteko modukoa; eta, horretan, seme-alabak gertu izaten ditu.


Telmo sukaldean laguntzen. | M.A.


Miren txikia, eskuekin lanean. | M.A.

### Eskuekin jolasean

Telmok eta Mirenek 6 eta 3 urte dituzte, hurrenez hurren. "Txikitatik parte hartu eta lagundu izan dute sukaldean", dio Artzamendik. Horrelako gaztetxoekin errezetak egiterakoan zer hartu behar den kontuan azaldu du bergararrak: "Osagai errazak erabiltzen ditut, samur aurkitzen direnak; bestalde, tresneria erabili beharrean, eskuekin egiteko moduko errezetak izaten dira; eta ahalegintzen naiz osagai osasungarriak erabiltzen". Horren harira, gurina ahalik eta gutxien erabiltzen duela dio, eta berdurak eta frutak sartzen ahalegintzen dela. "Gozogintzako errezeta asko egiten ditudanez, ahalegintzen naiz azukrearen ordez datilak erabiltzen, adibidez", gaineratu du. "Orokorrean, txokolatezko errezetak dira gehien gustatzen zaizkienak umeei", dio Artzamendik, eta "eurek egindakoa besteek probatzea atsegin dute".

Artzamendik Interneten bilatzen ditu errezetak –asko, ingelesezko atarietan; baina liburuak ere erosten ditu: "Suediako sukaldaritzari buruzko liburu bat da azkena", dio. Askotariko elikadura ereduak jarraitzen ditu eta denetatik probatzen duela dio.

## AZKEN BERBA

**AGURNE BARRUSO**



# Carlos Urquijo

Carlos Urquijo da azken urteetan Madrilgo Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen delegatua.

Ni alkatea nintzenean Mikel Cabieces zen.

Ez dakit zein den Madrilgo Gobernuaren delegatuaren funtzioa; egiten duena inkisidore-lana da eta gustatzen ez zaizkion erabakiekin auzitegira jotzea.

Udalen bueltan dabilen edonork daki sarri-sarri iristen direla salaketa hauek. Gaiak ere bariatuak dira oso: euskaraz bizitzeko borondatea, balkoietan ikurrinak bakarrik jartzea, langileen soldatari Kontsumo Prezioen Indizea igotzea, kontratu publikoetan langileen lan-baldintzak bermatu nahi izatea, Seaskari laguntzea…

Kontseiluak eta Uemak manifestazioa deitu dute larunbaterako, udalak jasaten ari diren erasoari erantzuteko. Euskaraz Bizi nahi dugula aldarrikatzeko.

Bada garaia!

Gakoa erabaki ahalmenean dago. Guk erabakitzeko eskubidea da ukatu nahi digutena.

Gure bizimodua beraiek antolatu nahi dute. Horren aurka ere egin beharko dugu. Bereziki horren aurka egin behar dugu hemen erabakitzeko eskubidea aldarrikatuz; geure bidea eginez.




ESPEZIALISTAK BEGIEN OSASUNEAN

Ba al zenekien ikusmenaren azterketa lagungarria izango zaizula glaukoma, begi-lausoak eta begietako nekea diagnostikatzeko?

**Multiopticas-en begien azterketa egingo dizugu, konpromisorik gabe.**

BEASAIN DONOSTIA EIBAR ERRENTERIA IRUN LASARTE ORDIZIA TOLOSA

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

multiópticas
lehena zerbitzu optikoetan